

+


puntu

Ane Gabarain aktoreari elkarriketa

Debagoieneko taxilariak: edonoiz eta edonora

24 MILIOI OSPITALEA BERRITZEKO

Debagoieneko Ospitaleko eraikin zaharrena bota eta berria egingo dutela iragarri du Osasun sailburuak / 4



GOTZONE SAGARDUI
EUSKO JAURLARITZAKO
OSASUN SAILBURUA

**"LEHEN MAILAKO ARRETAKO
ETA OSASUN MENTALEKO
KONTSULTA GEHIAGO IZANGO
DITU OSPITALE BERRIAK"**

Maria Ubarretxena, Arrasateko alkatea; Gotzone Sagardui, Osasun sailburua; eta Luisa Diez, Debagoieneko ESiko zuzendari kudeatzailea. Arrasaten, ospitalean, eguaztenean. XABIER URZELAI ETA OSAKIDETZA

GOIENA TELEBISTA
SASOI BERRIA



**BESTELAKO
OLATUA!** / 23

**Ikasturtea hasi du
Goienagusik: 18
ekitaldi izango dira
Gabonak bitartean
Arrasaten eta
Bergaran** / 5

SINADURAK

	IMANOL GALDOS IRAZABAL / 8		ASIER ELORZA / 27
	ANE ZUZUBISKAR / 11		CARLOTA ALFARO ORTEGA / 33
	MIKEL ARROABE / 18		IÑAKI FERNANDEZ / 34
			ANDER ETXEBERRIA / 48

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA

TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz


Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 16 70



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Aramaio	8	1	239	16,15	608
Bergara	6	3	1.849	12,30	59
Oñati	5	1	1.686	14,70	52
Arrasate	4	3	3.530	15,99	31
Aretxabaleta	3	0	979	13,83	42
Eskoriatza	1	1	525	12,80	48
Antzuola	0	0	294	13,49	0
Elgeta	0	1	84	7,43	88
Gatzaga	0	0	14	5,60	0
DEBAGOIENA	27	10	9.200	%14,20	52

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Neurriak malgutzearen testuinguruan, kasuek gora egin dute bailaran

Pandemiaren bilakaerak "hobera" egin duela-eta, Labi desegin eta osasun larrialdia bertan behera utzi du Urkullu lehendakariak aste honetan. Debagoiengan, baina, ugaritu egin dira COVID-19 kasuak, eta, horrekin batera, intzidentzia-tasa

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Dagoeneko igaro da egun bat osasun larrialdia bertan behera geratu zenetik; horrek esan nahi du orain arte debekatuta egon diren jarduerak egin ahal izan dituztela herritarrek atzoz geroztik; hala nola tabernako barran kafe bat hartu, kontzertuak zutik ikusi edota kuadrilla osoarekin batu, zenbatekoari begiratu gabe. Hori bai, maskara orain arte moduan erabiltza.

Halere, debagoiendar gehienek zuhurtziaz hasi dute osasun zaintza izeneko fase berri hau. Azken egunetan positiboek gora egin dute, eta birusa desagertu ez dela gogorarazteko balio izan du horrek. "Taberna beteta badago, ni ez naiz sartuko", "dendara sartu baino, nahiago dut

ilaran itxaron" eta halako iritziak helarazi dituzte herritarrek. Pandemia sasoiko ohitura eta arauak "barneratuta" daudela diote askok, baina, oro har, gogoz hartu da neurrien arintzea; batez ere, ostalaritzan, kultura munduan eta gaueko aisiari lotutako eremuetan.

Gogoratu behar da maskara nahitaez erabili behar dela barrualdeetan eta baita aire zabalean ere, metro eta erdiko distantzia gorde ezin denean. Eta beste arau bat ere mantentzea erabaki du Osasun Sailak, nahiz eta horrek oso kasu zehatzei eragiten dien: edukierak %80ra murriztuta jarraituko du 5.000 lagunetik gorako edukiera duten eremu itxietan –adibidez, saskibaloiko kantxetan–.

BIRUSAREN BILAKAERA

ASTETIK ASTERA HIRUKOIZTU EGIN DA POSITIBO KOPURUA DEBAGOIENAN

Hamarretik 27ra igo dira aste-beteen erregistratutako kasuak, eta nabarmentzekoa da 27 horietatik zortzi –laurden bat baino gehiago– Aramaion atzeman direla. Hain zuzen ere, Aramaio da bailarako herrien artean eremu gorrian dagoen bakarra; astelehenean laranjara igaro zen eta martitzenean, tasa bikoiztuta, gorriara.

Bestelako kolore aldaketa batzuk ere izan dira eskualdeko mapan, baina, kasu horretan, hobera egiteko. Eskoriatza eta

Leintz Gatzaga eremu berdera igaro dira. Azken horrek 0,00ko tasa du, ez duelako kasurik izan bi asteen; Antzuola ere egoera horretan dago.

Aste honen eta aurrekoaren alderaketa eginez gero, Aramaioz gain, Aretxabaleta, Bergara eta Oñati ere kaltetuago ateratu dira; Aretxabaletan hutsetik hirura egin dute jauzi positiboek, Bergaran bikoiztu egin dira eta Oñatin bat izatetik bost izatera igaro dira.

Erkidego mailan, pandemiaren bilakaerak hobera egin du, eta horren adierazle da eguaztenean eremu berdera igaro zela EAE. Halere, oinarritzko birsorkuntza datuak eragiten du kezka; izan ere, Araban eta Gipuzkoan letik gorako zenbatekoak izan dira aste honetan. Horrek esan nahi du egun batzuetan, behintzat, birusaren hedapena ez dela eten.

OSPITALEETAKO EGOERA

BEHERA EGIN DU NABARMEN ERIETXEETAKO OKUPAZIOAK

EAEko ospitaleetako okupazioak behera egin du, beste aste batez. Zaintza Intentsiboetako Unitatean 31 lagun zeuden eguaztenean –duela astebete zeudenak baino sei gutxiago– eta plantan,

berriaz, 40 –duela astebete baino 26 gutxiago–.

Bailarara etorrita, Debagoiengo Ospitaletik emandako azken datuaren arabera, ez dago koronabirusaren eraginez ospitaleratutako inor. Halere, aste honetan pertsona bat egon da birusarengatik ingresatuta.

TXERTAKETA-KANPAINA

HIRUGARREN DOSIA HARTU BEHARKO DUTE 70 URTETIK GORAKOEK

Osasun Ministerioa eta autonomia erkidegoak martitzenean bildu ziren, eta 70 urtetik gorako pertsonen erreformatu-dosia jartzea adostu zuten. Pfizer etxeko hirugarren dosia gripearen kontrako txertoarekin bateratzea da gomendio orokorra, eta hala egin nahi du Osasun Batzordeak, "sistemaren karga arintzeko". Txertaketa-zikloa amaitzeki sei hilabete igaro behar dira dosi berria hartu ahal izateko.

Aurreikuspenen arabera, urriaren 25etik aurrera hasiko dira txertoak jartzen, baina, erkidegoetara egingo den banaketari lotuta, Madrildik adierazi dute beharrak ez dira "berdinak" izango eta ezin dela aurreko banaketaren "zehaztasun bera-ekin" aurreikusi.

Hezkuntza sailburuaren bisita jaso du Antzuolak

Antzuolako eskola ezaguna izan da, batez ere, ardatz duen hezkuntza-ereduarengatik; inklusioa eta elkarlana dira pedagogiaren funtsa. Eraikinean egin diren lanek hori sustatzen lagunduko dutelakoan daude zuzendaria eta alkatea

Uxue Igarza Loiola ANTZUOLA

Antzuolako eskolan egindako handitze-lanak ikustera joan zen Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua eguaztenean. Bertan, Silvia Ezpeleta zentroko zuzendariaren eta bere taldearen eskutik, gela berriak eta horiek ahalbidetuko dituzten proposamenak ezagutu zituen. Bildarratzekin batera, Amaia Urzelai Gipuzkoako Hezkuntzako lurralde-ordezkarria eta Beñardo Kortabarria Antzuolako alkatea ere izan ziren bisitan.

1.572.990 euroko inbertsioa egin da ikastetxean, eta horri esker 1.109 metro karratu gehitu zaizkio eraikinari. Hala, lau gela arrunt, laguntza gela bat eta erabilera askotariko beste bat egin ahal izan dituzte, eta jantokia eta sukaldea handitu egin dituzte. Dena dela, espazioa bera baino gehiago, "horien erabilera" jo du Ezpeleta zuzendariak funtsezkotzat: "Premia jakinak genituen; adibidez, ingelesa ikasteko gela bat edukitzea. Handitze-lanek horretarako aukera eman digute, besteak beste".

Hezkuntza sailburuak ere, espazioari baino gehiago, bestelako indargune bati eskaini nahi izan zion arreta: "Eraikina zoragarria da, baina uste dut horago joan behar dugula. Antzuolan ikusten ari garena hezkuntza-proiektu ikaragarria da; komunitate osoaren inplikazioa dago hemen". Horri lotuta, Bildarratzek azaldu zuen Hezkuntza Sailak eta Jaurilaritzak Antzuolako eskaerak bete dituztela, baina "baldintza batekin": "Ikastetxeak eskatuta baliabideak jarri ditugu hemen, baina trukean gauza bat eskatu diogu Antzuolako eskolari: hemengo esperimentzia eta eredu gainerako ikastetxeetara zabaltzea".

Sailburuak eta ikastetxeko zuzendariak esandakoa batuz, Beñardo Kortabarria alkateak espazioak eta metodologia es-

kutik doazela adierazi nahi izan zuen: "Hemengo metodologian, zenbat eta espazio gehiago izan, hobe ikasleentzako. Eta ikasleentzako hobe bada, herriarentzako ere bai, jakina".

"Borroka" baten emaitza

Emaitzarekin pozik daude ikastetxeko langileak, baina urte luzez egindako "borrokaren ondorio" izan dela nabarmendu dute. "Obra berandu etorri da; ikasle kopuru handia geneukan garaian hasi ginen eskaera egin, eta esan behar da momentu honetan oso bestelakoa dela egoera. Ikasle gutxiago daude. Halere, ongietorria da aldaketa", esan zuen Ezpeletak.

Bestetik, zuzendariak gaineratu zuen oraindik lan guztiak ez direla amaitu. Dirulaguntza berezi bati esker, gune zahararren eta berriaren arteko eremu bat estali nahi dute: "Oraindik ez dago argi, baina barruan dagoen patioa tapatu nahi dugu; osorik edo, behintzat, zati bat".

Gogorazapena Bildarratzentzat

Antzuolako hezkuntza proiektuaren "jarraikotasuna bermatzeko asmoz", 2019an, Antzuolako Udalak eta hezkuntza komunitateak proposamena bidali zuten Legebiltzarrera. Besteak beste, lanpostuak "berezitatz izendatu" eta hornikuntza prozeduretan hori kontuan hartzeko zioen proposamen horrek. Alkateak sailburuaren bisita baliatu zuen eguaztenean, gaia mahai gainera ekartzeko: "Legebiltzarrak aho batez onartu zuen gure proposamena, eta Gobernuari neurriak hartzeko agindu zion. Badakit harremanetan jarri direla hemengo irakasleekin, baina izaera berezia ahalbidetzeko markoa eratu gabe dago oraindik". Nolanahi ere, Kortabarriaren ustez, hatutako konpromisoa beteko du Hezkuntza Sailak.



Jokin Bildarratz sailburua, Antzuolako ikasleen proiektuetako bat ezagutzen.



Julen Abasolo, Kaikuko abeltzaina Aretxabaletan.

Kaiku, Debagoieneko baserritar familien esnea

Kaiku proiektua abeltzain familiek osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagotik konpromiso sendoa du sektorearekin. Proiektu horretan denak berdin tratatuak dira, handiak zein txikiak izan. Horri esker, abeltzain txikiek euren jardura garatzen jarrai dezakete, bai baitakite euren ekolizpen osoa jaso egingo dela, baserriaren kokapen geografikoa eta ekolizten duten litro-kopurua kontuan izan gabe.

Maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko inguruarentzat funtsezkoa den sektore honek landa-ingurune lanpostuen sorrera eta ekonomia zirkularra sustatzen ditu.

Kaikuko abeltzain familia horietako bat Julen Abasolo eta bere anaia da. Aretxabaletan dute baserrian egunero egiten dute lan esnea ekolizten.

Abeltzainizan tradizioa duen familia batekoak dira, eta ahalegin handia egin dute euren baserrian teknologia integratzeko, jardura profesionalizatu eta animalien ongizatea hobetze aldera. Ezarri duten aurrerakuntza teknologiko horietako bat jeztako robota izan da, eta, horri esker, behi bakoitza eskariaren arabera jezten da.

Horixe da, hain zuzen ere, animaliak tratatzeko modu naturala. "Inguru honetako jendearen ozaugarria den bezala, gu ere aitzindariak izan ginen eta teknologia berritu genuen gure baserrian; horrek lagundu egin digu

eraginkorrak eta autosufizienteak izaten eta gure behien ongizatea maximizatzen. Horri esker, hemengo, Debagoieneko, esnea ekolizten dugu, eta, hurbilagokoa denez, freskoagoa, zapore handikoa eta gure ingurunea errespetatzen duena", ziurtatu du Julenek.

Gainera, teknologiak aukera ematen die zehatz jakiteko zein den behi bakoitzaren osasun-egoera. Behien ongizatea eta Aretxabaletako larreetako belarrek behiak modu erabat naturalean elikatzea funtsezkoak dira kalitate handieneko eta zapore handiko esnea ekolizteko.

Kaikuko abeltzain familien lanari eta ahaleginari esker, besteak beste, Julenen familiari esker, gertutasuneko produktua lortzen dugu. Debagoienean bizi diren familiek ekoliztatzea, uste baino askoz hurbilagokoa. QR kode hau eskaneatuz gero, zure eremuan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku km0 ekolizpen jasagarriko esne-brik bakoitzaren atzean dauden familiak ezagutu ahalko dituzu.

EZAGUTU



nortzuk garen **KAUKO BASERRITAR FAMILIAK** eta zein **HURBIL** gauden zuegandik
IRABAZI URTEBETEKO ESNEA DOAN.

Jone Olabarria ARRASATE

Debagoieneko Ospitale zaharra bota eta eraikin nagusia handitzeko 24 milioi euroko inbertsioa egingo dutela iragarri du Gotzone Sagardui Osasun sailburuak, martitzenean Debagoieneko Ospitalean egindako agerraldian. Maria Ubarretxena Arrasateko alkatearekin batera eta Osakidetza eta Debagoieneko ospitaleko ordezkariekin eman zituen lanen xehetasunak.

Eraikin zaharra bota eta nagusia handitu egingo duzue...

Guztira, 7.000 metro koadro izango ditu eraikin berriak: bi soto, beheko solairua eta lau garaiera. Horretarako, eraikin zaharra bota egingo da. Irisgarritasuna hobetzeko, aparkalekua egingo da eraikin berriko bi sotoetan, eta 100 plaza izango ditu. Behin-behinean, eraikuntza-lanek iraun bitartean, beste bi aparkaleku gaituko dira; haietako bat, Arrasateko Udalak lagatako espazio batean.

Zer hobekuntza ekarriko dizkie eraikin berriak debagoiendarrei?

Debagoieneko Ospitaleak 64.800 pertsonari eskaintzen die arreta, eta, eraikina handituz, eskualdeak eta Gipuzkoak dituzten beharrei erantzungo zaie. Lehen mailako arretako eta osasun mentaleko kontsulta gehiago eta larrialdietarako eremu bat gehituko dira.

Zeintzuk izango dira, zehazki, zerbitzu berriak?

Eguneko ospitale mediko-kirurgikoa handitu ahalko da, aparatu digestiboko unitate berria sortu endoskopio zerbitzuarekin, errehabilitazio-zerbitzua gehitu eta ospitale barruan erresonantzia magnetikoaren areto bat egokitu.

Noiz izango da prest ospitalea?

Aurreikusitakoaren arabera, lanen iraupena lau urtekoa izango da; urte amaieran botako dute eraikin zaharra eta 2022ko urrian hasiko dituzte lanak.

Osasun egoera bertan behera lagata, eta urte eta erdiren ostean, "hurongo egunaren aurrean" gaudela. Zer espero daiteke hemendik aurrera?

Orain arte bezala, erantzukizunez jokatzeko; herritarren gehien-goak hala erantzungo duela uste dugu. Martitzenean lehendakariak eman zuen Labiren bilaren osteko erabakiaren berri, eta osasun egoera bertan behera lagatzea aurrerapauso garrantzitsua da. Baina pandemia

"Birusarekin bizi eta egokitzeak hilabeteak ditugu oraindik aurretik"

GOTZONE SAGARDUI OSASUN SAILBURUA

Debagoieneko Ospitalean 7.000 metro koadro izango dituen eraikina egingo dutela iragarri du sailburuak: bi sotoko aparkalekua, beheko solairua eta lau solairu izango ditu



Osasun sailburua, eguaztenean Debagoieneko Ospitalera egindako bisitan. X.U.

ez zen martitzenean amaitu. Oraindik baditugu hilabeteak birusarekin gure egunerokoa bizitzen ikasteko eta egokitzen joateko. Gero eta gehiago ustezko normaltasun horretara gerturatu arren, ezin dugu ahaztu pandemia ez dela bukatu.

Osasun Sailak hartuko du hementik aurrera pandemiaren bilakae-raren jarraipena egiteko ardura. Baina noiz berreskuratuko dute herritarrek ohiko zerbitzua Osakidetzaekin? Eguneroko arretan...

Duela bi urte genituen baldintzetara itzuli eta horiek hobetzeko pausoak ematen aritu gara irailean zehar. Pandemia honek ikasteko balio izan digu, gure pazienteekin dugun harremanean zenbaterainoko garrantzitsua den prebentzioa eta elkar zaintzea. Osasun zentroak normaltasun fisikoa berreskuratzen hasiak dira, eta, horrek aurrera egiten duen heinean, herritarrek presentzialki hartzeko gaitasuna berreskuratuko dugu.

Noizko aurreikusten duzue presentzialtasunaren itzulera hori?

Datorren hilabeterako uste dugu gai izango garela zerbitzu hobetua emateko, baina herritarrek

"OSASUN ZENTROAK HERRITARRAK HARTZEKO GAITASUNA BERRESKURATZEN DABILTZA, APURKA"

hasiak dira dagoeneko hobekuntza horiek nabaritzen.

Txertoaren hirugarren dosiari dagokionez, gripearen aurkako txertoarekin batera emango da?

Asteon adostu du Osasun Publikoaren Komisia 70 urtetik gorakoei txertoa modu gradualean jartzea. Orain, erkidego bakoitzari dagokio horren kudeaketa. Gure kasuan, gripearen aurkako txertaketa datozen asteetan hasiko dugu, dena antolatuta dago jada. Bitartean, Txertaketa Komisiaarekin eta Osakidetzaekin zehaztuko dugu nola txertatu hirugarren dosiarekin. Baina gogoratu nahiko nuke 70 urtetik gorakoen zati handi batek baduela dagoeneko hirugarren dosia; adinekoen egoitzetako egoiliarrek, kasu.

laz, nabarmen egin zuten behera gripe kasuek. Aurten ere egoera horretan egongo gara?

Oraindik goiz da jakiteko zenbateraino eragingo digun; beste hemisferioan duen jokatzeak modua aztertzen gabilta une honetan. Hala ere, iaz baino kasu gehiago izango ditugula aurreikusi dezakegu. Era berean, uste dugu maskaren erabilera ezinbestekoa izan zela iaz kasuak murrizteko.

0-12 artekoen txertaketarekin bada aurrerapausorik?

Laborategiak badabilta proposamenak Europako Medikamendu Agentziaren aurrean aurkeztu, baina ez da espero berririk hilabete amaierara arte, behintzat. Bitartean, pentsatu behar duguna da biztanleria horrek babes txikiagoa duela, eta, beraz, kutsatzeko eta kutsakorak izateko aukera handiagoa. Adin tarte horrek interakzio handia du eskolan, gurasoekin, haurrekin... Oso garrantzitsua da bastea.

Hezkuntza protokoloari dagokionez, zer aldaketa aurreikusi daitezke?

Hezkuntza eta Osasun sailak lanean dabilta, baina, gizartean bezala, egoerak hobera egiten duen heinean berrituko dira protokoloak. Litekeena da datorren astean indarrean sartzea. **Plano berri batean egonda, nola egingo da jarraipena?**

Baloratzen ari gara pandemiaren adierazleen berri ematerakoan denbora tarte luza datorren astetik aurrera, egunero behar-rean asteen behin eskaintzea datu horiek. Datuok egunero emateak zentzua zuen aldaketak oso handiak zirenean.

Berrikuntzekin dator Goienagusiren ikasturtea

Ikasturte osora zabaldu dute bazkide egiteko aukera, baina, edukiera mugek behartuta, mugatu egin behar izan dute bazkide kopurua. Era berean, pandemia aurreko hainbat ekintza eta jarduera berreskuratuko dituzte; txangoak, esaterako

Jone Olabarria ARRASATE

Goienagusi elkarteak ikasturte hasierako irekiera ekitaldia egin du asteen Seminarixoan. Bertan ikasturte berrirako dituzten helburu, erronka eta asmoak aurkeztu dituztela azaldu du Joxe Mari Eraña presidentek: "Aurten, alde batetik, bizitasun apur bat berreskuratu, eta, hitzaldiez gain, irteerak eta bestelako ekitaldiak antolatuko ditugu. Bestalde, bazkide egiteko aukera ikasturte osora ireki dugu. Lehen, urtarrilean eta otsailean baino ezin zen bazkide egin".

Hain zuzen ere, dagoeneko egin daiteke izen ematea, *goienagusi@gmail.com* helbidean.

Urriko hitzaldiak, egunez egun

- **Urriak 11, 10:00etan:** *Mundu multipolar bateruntz.* Adrian Zelaia. Arrasateko Kulturaten.
- **Urriak 13, 10:00etan:** *Diagnóstico del sistema cultural-comunicativo vasco en la era digital: propuestas.* Ramon Zallo. Arrasateko Kulturaten.
- **Urriak 18, 10:00etan:** *Ciencia, cultura y mercado del dolor.* Arturo Goicoechea. Arrasateko Kulturaten.
- **Urriak 20, 10:00etan:** *Pandemiaren ondorengo zaintza eszenatokia.* Felix Arrieta. Arrasateko Kulturaten.
- **Urriak 25, 10:00etan:** *Osasuna, pandemiaz harago.* Ane Arbillaga. Arrasateko Kulturaten.
- **Urriak 27, 10:00etan:** *Robótica inclusiva e inteligencia artificial para el bien común: un desafío ético.* Txetxu Ausin. Bergarako Seminarixoan.

Edukiera arazoak izan ohi dituzte hitzaldi eta ekintzetan, eta, horrenbestez, aurtengora begira bazkide kopurua mugatzea erabaki dute: gehienez, 210 izateko aukera egongo da -une honetan, 187 dira-.

Hitzaldien erdiak, euskaraz

Ohikoa den moduan, astelehen eta astearteetan egingo dituzte hitzaldiak, 10:00etatik 11:30era, Kulturaten eta Seminarixoan. Azken urteetan euskararen aldeko apustu irmoa egin gura izan dute, eta, lehen hitzaldi gehienak gazteleraz ziren arren, apurka-apurka euskararen presentzia handituz joan dira; une honetan, %50ekoa da.

Askotariko gaiak landuz

Guztira, hemezortzi jarduera antolatu dituzte lehen hiru hilekorako: hamasei hitzaldi, Aiaraldera irteera eta X. urteurreneko ospakizuna, bazkari eta guzti. Ikasturte berriko aurkezpenarekin, urritik abendura arteko egitaraua zehaztu dute asteen. Ondoko taulan daude ikusgai urriko hitzaldien informazio praktikoa.

EH Bilduk deituta, argindar-enpresen aurkako itzalaldia

"Enpresa elektriko handien xantaiari aurre egiteko" asmotan, eta *Deskonektatu elektriketatik* lelopean, argindar-enpresa handien aurkako itzalaldian eta kazola-jotzean parte hartzera animatu dituzte debagoiendarrak gaur iluntzean, 22:00etatik 22:30era. EH Bilduk zehaztu du Llotja de Marko akordioaren parte diren gainerako indar politiko independentistekin batera ekimenaren helburua dela gizarte eragileak elkartuta "iruzur hori amaitzea": "Guk, herritar arruntok, urteak daramatzagu hilero ordaintzen dugun oligopolio elektrikoak inposatzen digun argindarraren ordain-ageria pairatzen. Azken aste hauean argindarraren prezioa etengabe ari da garestitzen. Prezioak gora eta gora egiten du, eta badirudi inor ez dela gai kontrolatzeko. Inork ez du iruzur hori amaitu nahi, Espainiako Estatuko alderdi nagusiak iruzur horren parte direlako". Herri-tarrak batzera animatu dituzte.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behe
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Eskertze erraldoia

GOTZON ARZELUS

BERGARAKO ERRALDOI TALDEAREN IZENEAN
BERGARA

Bergarako Erraldoi Taldekook (BET), 20. urteurrena ospatzeko, hainbat ekintza egitea pentsatu genuen, baina COVID-19agatik bertan behera utzi behar izan genituen.

Halere, irailean aukera izan dugu bergararrei eta erraldoiak gustuko dituztenei hitzaldi eta erakusketa bana eskaintzeko.

Erraldoiek zentzurik badute, hori jaiei, musikari eta herriari esker da. Horregatik jarri genion izenburu hori irailaren 10etik 26ra arte zabalik egon den erakusketari: *Erraldoiak eta Bergara: jaia, musika, herria*.

Erakutsi nahi izan dugu erraldoiek herrian aspaldidanik izan dutela presentzia eta jaietan betidanik leku garrantzitsu bat dutela –Bitorianatxoren orde, erraldioen dantzekin hasten ziren jaiak–. Horrez gain, herriari erakutsi nahi izan dizkiogu BETek egiten duen lana eta herritik kanpo egindako irteera eta ekintzak.

Baina Erraldoi Taldeak gora egin badu –taldekide kopuruan, irudi kopuruan, irteeretan...–, neurri handi batean, herritarren babesari esker izan da. Bergaran erraldoiek jarraitzaile asko dituzte, eta 2.300 lagunetik gora pasatu dira Aroztegi aretotik. Horrek indarrez betetzen gaitu lanean aurrera jarraitzeko. Ikaragarriak izan

dira jaso dugun babesa eta iritsi zaizkigun maitasun mezuak. Horregatik, eskertze erraldoia helarazi nahi diegu herriari eta erraldoiak gustuko dituzuenoi.

Eskerrak eman nahi dizkiegu erakusketa eta hitzaldia aurrera eramateko laguntza eman digutenei: Matz Erreka, Bilboko Euskal Museoa, Bergarako Udala, Jardun, Udal Artxiboa, K3 Inprimategia, Mila Etxaniz (Xuxu Denda), Javi Vicente, Asier Lazkano, Felix Beitia, Jorge Murgiondo, Iñigo Alberdi, Txarli Gomez, Gotzon Aranburu, Patxi Laborda, Mari Ganuza, Iñigo Castellano. Eta, bereziki, Jon Anduezari (The Badass Project), bera gabe ezin izango baikenuen erakusketa antolatu.

Eta, nola ez, urte hauetan gure taldean parte hartu duten taldekide ohiei eta erakusketara gerturatu zaretenoi.

Bukatzeko, Bergarako Erraldoi Taldea proiektu irekia da; horregatik, Bergarako gazteak eta

gurasoak gure taldeko parte izatera gonbidatu nahi ditugu.

Mila esker, bihotz-bihotzez, eta eskerrik asko erraldoia denoi!

5G-rik ez!

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Orain daukagun kutsadura mailarekin osasun arazoak daude, eta argi dago 5G teknologia martxan jartzen denean gehitu egingo direla.

Espainiako erreinuan, gizarte-segurantzak esandakoa atzera bota du epai batek; esan du Bartzelonako probintziako Sant Pere de Ribes herriko ospitaleko langile bat ez dela gauza lanean jarraitzeko; zehazki, wifi, mugikor eta elektrizitate-koadro inguruan ezin zen egon, igogailuak eta beribilak ezin zituen hartu... Laburbilduz, aparatu elektronikoen inguruan ezin da egon. Abokatuak kontratatu ditu pentsio duin bat

edukitzeko, baina badakizue hemengo burokrazia petrala dela. Suedian, berriz, gai hauek hobeto bideratzen dituzte: pentsio duina emateaz gain, gaixoari bere etxea uhin hauetatik isolatzeko laguntzak ematen dizkio; hau da, behintzat, etxean atsedeen-toki bat izan dezala.

Gizartea modernizatzen duten uhinetatik babestu nahi baduzu, hasi zintezke zure logelatik kanpora ateratzen bertan dituzun aparatu elektroniko guztiak.

Bergaran erraustegi bat

PITER ENCINAS ETA IGOR URIZAR

ARRASATEKO EKOLOGISTAK MARTXAN
TALDEKO KIDEAK
ARRASATE

Orain dela bi aste jakinarazi ziguten Jaurlaritzak proiektu bat zuela, Bergarako Basalgo auzoan erraustegi bat ipini nahi duela, pirolisi sistema bidezkoa.

Zein berezitasun dauka pirolisi sistemak? Batez ere, errausketan oxigenoaren gabezia; horren ondorioz, ke gutxiago sortzen da.

Zein antzekotasun dauka beste errausketekin pirolisi sistemak? Hondakinak ez ditu eliminatzen, baizik eta ikatz, gas, hondakin solido edota likido bihurtzen ditu, batzuk kalterik egiten ez dutenak eta beste batzuk toxikoagoak; eta metal astunak, dioxinak, furanoak... sortzen ditu.

Holako proiektu ilun guztietan bezala, ikusten den lehen gauza joko zikina da. Entzun dugu nola hasi diren

erru osoa Bergarako Udal Gobernuan dagoen EH Bilduri botatzen. Proiektua sortu, bultzatu eta aurrera atera duena Eusko Jaurlaritza izan da, EH Bilduk eta Bergarako Udalak ez dute legalki kompetentziarik proiektua bertan behera uzteko edo gelditzeko.

EAJk-Eusko Jaurlaritzak zergatik ez dituzte behartzen paper-fabrikak euren hondakinak birziklatzera? Litekeena da euren atzean daudelako?

Bukatzeko, gure iritziz, errudun nagusiak EAJ eta Eusko Jaurlaritza dira; zergatik? Hondakin kudeaketaren arduradun nagusiak direlako eta arduragabe jokatzeko dutelako. Hondakinei soluzioa eman beharko lieketelako, eta erraustea edo beste Zaldibar bat sortzea ez da bidea.

Eskerrik asko!

PILI IRIARTE

ARRASATEKO NAGUSIEN KONTSEILUAREN
IZENEAN
ARRASATE

Arrasateko Nagusien Kontseiluak, ohar honen bidez, eskerrak eman nahi dizkie Zaharren Astearen ospakizunean parte hartu duten guztiei.

Komunikabideei, Arrasateko Udalari, elkarteei eta, nola ez, antolatutako ekitaldietara bertaratutako guztiei. Eskerrik asko guztioi! Esan behar dugu aste honetako balorazioa oso positiboa izan dela.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!


Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





17. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Banatu ditugu **Udako Argazkien XVII. Goiena Lehiaketako** sariak. Lau saridun izan ditugu. **Aritz Murgiak** Sardinian ateratako argazkiarekin **Nazioartean** kategoriako saria irabazi du –**Toñanesko La Estela Cantabra** ostatuan bi pertsonarendako bi gau eta gosaria, Arrasateko Halcon Bidaiek-en eskutik–. **Iñigo Zubiak** *Alaia, Abartzuzan freskatzen* izeneko irudiarekin **Protagonistak** kategoriako saria irabazi du –**Redmi poltsikoko telefonoa**, Eroski Arrasateren eskutik–. **Iber Iparragirrek** Gastiainen ateratako argazkiari esker lortu du **Euskal Herrian** saileko saria –**Leintz Gatzagako Gure Ametsa** jatetxean bi pertsonarendako bazkaria edo afaria–. Azkenik, **Susana Gartzia** Laredon txakurrari ateratako argazkiak eskuratu ditu boto gehien, eta, beraz, **Publikoaren Saria** irabazi du –Bergarako Ereindajan-en eskutik otarra–.


Zorionak guztioi eta hurrengo urtera arte!

NAZIOARTEAN NAGUSIA



Aritz Murgia, Arrasateko Halcon Bidaiek-en eskutik saria jasotzen.

PROTAGONISTAK SARIA



Iñigo Zubia, Arrasateko Eroski hipermerkatuan, smartphonea jasotzeko unean.

PUBLIKOAREN SARIA



Susana Gartzia, Bergarako Ereindajan-en.

EUSKAL HERRIAN SARIA



Iber Iparragirre, Gure Ametsa jatetxearen kanpoaldean, saria eskertzen.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

GU
travel
Halcon Bidaiek
Arrasate



ZABALIK

IMANOL GALDOS IRAZABAL

Kaunas

Oraindik erabat gainditu ez dugun pandemiaren ondorengo lehendabiziko lan-bidaia egin dut Lituaniara, independentziaren erdigune izan zen Kaunasera. Baliagarri gertatu zait han eta hemen antzerako arazo eta erronkak ditugula ondorioztatzeko, pandemiaren aurreko bidaietakoa berretsiz. Kontu ugari ekar ditzaket orrialde hauetara. Guztiaren gainetik, halere, Vilniusetik Kaunasera eraman ninduen taxi-gidariaren kontakizun garrantzak sorrarazi zidan tristura. Bestelakorik nahiko nuke, baina halaxe dira kontuak.

Taxi-gidariaren ahotan, korrupzioak irentsi ditu 1991n zabaldu ziren itxaropen ugari. Meritokrazia-arrastorik ez duen herrialdean, ondorioz, uholdeka gazte ihesean doaz. Beste modu batera esanda, herrialdearen etorkizunean sinesteari utzi diote eta, larriagoa dena, milaka gazteren ekarpenak galduko ditu bidean Lituaniak. Kaunasen igaro nituen lau egunetan, taxi-gidariaren iritziak berretsi zizkidaten Europako Ekialdeko hainbat adiskidek.

IMMUNITATEA ASPALDI GALDU GENUEN. ETORKIZUNA JOKOAN DUGU, EZ GEHIAGO EZ GUTXIAGO

Ez da, ordea, paraje haietan soilik gertatzen ari dena. Urrutira joan gabe, Argentina maite dugunok, han senideak eta adiskide estuak ditugunok, kezka bizi dugu handik datorkiguna. Kaunasen antzera, Ezeiza sindromea nagusitu da Argentinako gazte eta horren gazte ez diren argentinarren artean, euskal jatorria duten ugari tarteko. Herriaren etorkizun bakarria Buenos Airesko aireportu nagusian hegaldia hartu eta betirako norbere aberria atzean uztea izateko izugarritzko porrota da. Euskal jatorriko belaunaldi ugari eraiki zuten Argentina, eta orain, horien arteko askok bueltako bideari ekin diote.

Hortxe, ñabardurak ñabardura, munduan barrena indartu den kontakizuna. Diagnostika egiterakoan ez da zalantzarik kolore askotako hurbilpen eta azterketak egin daitezkeela. Konplexua da, ez guztiz zuria ala beltza. Baina mesede egingo liguke Lituaniar eta Argentinan gertatzen direnak egoki irakurtzea. Kalte izugarria egiten digu munduan gertatzen ari direnak gureak izango ez balira bezala ikusteak. Immunitatea aspaldi galdu genuen. Etorkizuna jokoan dugu, ez gehiago ez gutxiago. Entzutea da gakoa. Taxi-gidariei ere arreta jartzea ez da ariketa aldrebesa.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Bizitza berri bat

ISA EGIGUREN
'TTAP'-EN ARGITARATUA

64 afganiar iritsi dira Nafarroara. [...]

Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordetik (CEAR) diotenez, pozik daude toki seguru batean egoteagatik, baina, aldi berean, zalantza eta kezka handiak dituzte Afganistanen geratu direnengatik. Horregatik daude momentu honetan dolu-prozesu betean. Baina bizitzak aurrera jarraitzen du, eta haur afganiarrek Nafarroako eskoletara joaten hasi behar izan dute. Laguntza berezia jasoko dute hizkuntza ikasteko

eta integratzen hasteko. Nafarroara iritsi diren afganiarrek nazioarteko babesa duten pertsonentzako programaren barruan sartu dira, eta diziplina anitzeko talde bat arduratuko da hilabete batzuk barru autonomoak izateko behar dituzten baliabideak eskaintzeaz, bai arlo sozialean, baita laboralean ere. Baina prozesu horrek guztiak ez die etorkizuna ziurtatzen. CEAR-en oso kasu arrakastatsuen berri dute, baina baita porrot handienak ere.

Hala ere, zorionekoak dira. Milaka pertsona Afganistandik ihes egiten saiatzen ari dira zutabe hau irakurtzen duzun bitartean. Europaren

erantzuna Afganistan inguruko herrialdeei milaka euro ordaintzea izan da, pertsona horiez *ardura* daitezen.

Turkiak harresi handi baten sorrera azkartu du afganiarrei sarrera galarazteko, eta Greziak gauza bera egin du, uharteetara iristen diren pertsonen betetako txalupak itsasora itzultzen dituzten bitartean, migrazio politikak gogortzen dituzten bitartean, eta GKEen erreskate operazioak zigortzen dituzten bitartean.

Hainbeste gizagabekeriaren aurrean, nik argi daukat: korridore humanitarioak ireki behar dira emakumeen, gizonen eta haurren bizitzak salbatzeko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetakoa arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Teranga-k sistema osoa jartzen du zalantzan"

MAMADOU SARR NDANK NDANK ELKARTEA

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA Bilboko Film Sozialen Laialdian proiektatuko dute laster *Teranga* dokumentala. Testigantzetan oinarritua, Bergarako Ndank Ndank elkarteak MUko ikasle talde batekin egindako elkarlana da. Bergaran bizi den Mamadou Sarr da elkarriketatueto bat. **Ekainean aurkeztu zenuten *Teranga*. Zer-nolako harrera izan du?**

Pozik gaude. Ez dago jakiterik zenbat lagunengana iritsi den, baina Youtuben 1.900tik gora ikustaldi ditu, eta bada jendea zer-nolako sentimenduak eta hausnarketak eragin dizkion transmititu diguna. Politia izan da.

Urriaren 14an emango dute Bilboko Azkuna zentroan. Mahai inguruak egingo dira eta hainbat ikastetxetara ere helduko da. Garrantzitsua da?

Opari bat da guretzako. Gure helburua zen ahalik eta gehien zabaltzea, eta honek aukera ematen digu jende



Mamadou Sarr. NDANK NDANK ELKARTEA

gehiagorengana heltzeko. Gasteizen, Barakaldon eta Mungian ere proiektatuko da eta ikastetxetean lanketa ezin hobe egingo dute. **Mezua ondo definitzeari garrantzi handia eman zenioten.**

Bai; bestela, arriskua dago-eta inongo hausnarketarik eragin gabe indarra kontu morbosoenetan jartzeko. Esaterako, pairatutako sufrimenduan, txalupan egindako bidaian...

Garrantzitsua da errealtate gordina ezagutzea, baina ez pena sentimendua eragiteko, baizik eta hausnarketa bultzatzeko. Dokumentalak badu denuntzia puntu hori. Sistema osoa jartzen du zalantzan; izan ere, denok eduki beharko genituzke eskubide berberak.

Zoritxarrez, heriotza gehiago izan dira udan, eta ez bakarrik Mediterraneoan; Bidasoa ibaian bertan ere bai. Zer da agintariak ikusi nahi ez dutena?

Indarra Melillako hesian eta Mediterraneoan jartzen da, baina datuek diote migrazioaren %16 dela bide hori erabiltzen duena. Portzentaje txikia bada ere, komunikabideek eta agintariak interesa dute hori erakusteko. Zergatik?

Auskalo! Eta badago etenik ez duen baliabideen ustiaketa, izan Senegalen izan beste herrialde batzuetan. Nazioarteko itsasontzi modernoak dabilta arrantzan Senegalen. Arrantza izanik kostaldeko familientzat ekonomia iturri nagusia, askoren pobrezia dakar arrantza horrek.

Indarrean den Atzeritartasun Legeak ez du laguntzen, ezta?

Ez da bidezkoa migratzeko bide bakarra, batzuetan, lege kanpoko migrazioa

izatea. Bide irregularretik etorri bazara, egin dezakezun tramite legal bakarra errolda da, eta hiru urte egon behar duzu erroldatuta bizileku-baimena lortzeko. Baina bizileku-baimena lortzeko lan kontratu bat behar duzu, eta, askotan, enpresariak paperak eskatzen dizkizu lan kontratua egiteko... Gorpil bat da.

Ndank Ndank elkarte hama urte betetzear da. Zeintzuk dira gaur egungo proiektu nagusiak? Jarraitzen dugu lan egiten bai Euskal Herrian bai Senegalgo Dionewar herrian. Bi komunitateen arteko zubia indartzeko ahaleginean jarraituko dugu. Hurrengo hilabeterako, esaterako, lau senegaldar gazteren bisita dugu programatuta. Ea beharrezkoa duten baimena lortzen duten! Bestetik, Dionewarren bertan aukera berriak sortzen jarraitzen dugu; batez ere, gazteek ikus dezaten migratzea ez dela aukera bakarra. Kezkatuta gaude, baita ere, azkenaldian bizi izandako hainbat egoerarekin –lapurreta salaketa faltsuak–, eta arrazakeria lantzeko beharraz hausnartzera eramán gaitu horrek. Hortaz, horren harira ere lanean jarriko gara.

ITURRI ONETIK

Amerika Elkartea aurkeztuko dute

Amerika Elkartea aurkeztuko dute hil honen 15ean, Arrasateko Kultureteko areto nagusian, 18:00etan. "Amerikako eta Euskal Herriko herrien integrazio ekonomiko, sozial eta kulturalerako elkarte" izango da. Kooperatiba bat. Elkartea aurkezteaz bat, *Abya Yala-ko jatorrizko herriak: identitatea, borroka eta erresistentzia* gaiari buruzko txostena aurkeztuko du Rene Behoteguy ekonomista boliviarrak; 1492ko urriaren 12ko efemeridearen gainean eztabaidatuko dute eta musika emanaldia izango da.

ALBISTE IZAN ZEN



2014-10-08

Candyko langileak, etorkizunarekin kezkatuta

Bergarako Candy enpresako langileek protesta ekitaldiekin ekiten, "etorkizunarekin arduratuta". Produizioaren jaitsierak, ia lanik ezak eta taldeak Txinan zabaldu zituen plantak ezinezona eta ezkortasuna handitu zituzten lantaldean. Handik bi astera, lantegia itxiko zutela iragarri zuten ugazabek langileei, eta 600 lagunetik gora batu ziren manifestazioan Bergarako kaleetan, *Enpleguaren alde, deslokalizaziorik ez. Candy ez itxi!* lelopean.

HAU BE BADOGU!

Osasun larrialdiari agurra, sarean ere

Asteartean Eusko Jaurlaritzak iragarritako berria ozen ospatu dute erabiltzaileek Twitterren: *@gorka_bm*: "Euzkotarrak... LABI... hil da". *@joxemiel*: "#LABI, entregatu itzazu musukoak, barkamena eskatu arau zentzugabeengatik eta disolbatu zaitez behingoz". *@andoni_o*: "Agur LABI eta musuko bat zuretzako". *@enekuttu*: "Hizki handiegiekin idatzi dute 'normaltasuna' hitza. Ez nuke normaltasunez hitz egingo pandemia aurreko bizimodua, guztiz berreskuratzen dugun arte".



Kulturola, eguaztenean. Eraikina zaharberritzeko obraren epea azaroaren 1era luzatzea onartu du udalbatzak. E.A.

Azken txanpa geratzen zaio Kulturola berrituari

Eraikina zaharberritzeko obraren epea azaroaren 1era luzatzea onartu du udalbatzak asteon eta Maria Ubarretxena alkateak adierazi du urtea amaitu aurretik bukatuko dituztela lanak: "Gabonetan eragileek gauzak hara eraman ahal izatea espero dugu"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Erabiltzaileen eskariak aintzat hartuta, eraikineko hiru gunetan instalazio eszenikoak jarriko dituzte, eta, horretarako, obraren epea luzatzea onartu du udalbatzak. Modu horretan, Izaskun Murgia elkartearen eta Doke Antzerki Taldearen aretoetan barra normalizatuak muntatuko dituzte, fokuak jarri ahal izateko. Halaber, barra horientzat, argindar eta datu kanalizazioak eta kable sareak jarriko dituzte. Bestalde, bigarren solairuko askotariko erabilera gelan, fokuentzako azpiegituraz gain, oihala jarri ahal izateko beste barra bat ere muntatuko dute. Hori dela-eta, atzerapen txiki bat izango dute lanek.

Indarkeriaren aurka, aho batez Martitzeneko osoko bilkuran onartutako beste puntuetako bat Indarkeria Matxistari aurre egiteko II. Tokiko Plan Integralarena izan zen, indarkeria matxistaren eta sexu erasoen Arra-

sateko biktimei arreta egokia bermatzeko erakundeen arteko II. Koordinazio Protokoloarekin batera. Aho batez onartu zuten, eta Johanna Sanchez Berdintasun Saileko zinegotzi sozialistak elkarlana goraipatu zuen, parte-hartzaile guztiei eskerrak emateaz gain. "Lan handia egin dugu, erantzukizun handikoa, eta askotariko eragileekin elkarlanean. Emakume Txokotik, Maite Barreña, Esther Lizarralde eta Amets Beltran de Guevara teknikariekin; eta Berdintasun batzordean, Maitane Muñoz, Itxaro Artola eta Eva Avuinekin. Guztien lanari esker, arreta eta zerbitzu osoa eta baliabideen eraginkortasuna hobetzen jarraitzen dugu. Indarkeria jasa-

VOXEN AGERRALDIA SALATZEKO MOZIOA ONARTU ZUTEN, BAINA EZTABAIDAK PIZTU ZITUEN GAI HORREK

ten duten pertsonen ematen digute motibazioa lanean jarraitzeko. Guztion lanari esker, emakumeen egoerak hobera egiten jarraitzea espero dut".

Onartutako beste hainbat puntu

Bestalde, taxiaren 2022rako hiri tarifak ere onartu zituzten, adostasun zabalarekin (*Goiena.eus*-en ikusgai), eta Mondragon Goi

Eskola Politeknikoaren Gautxori esparruaren subrogazioa ere onartuta geratu zen, unibertsitateak espazio hori urbanizatzeko daukan proiektuaren baitan, esparrua hitzarmen bidez kudeatu ahal izan dezan.

Mozioak, eztabaidagai

Edozelan ere, mozioek eman zuten zeresan handiena osoko bilkuran. Lehenik, EAJk eta sozialistek aurkeztutakoa onartu zuten, trantsizio energetikoaren bueltakoa. "Guztiok ikusten dugu nola ari den igotzen energiaren prezioa, eta Euskadin menpekoak gara, ez dugulako gure energia produzitzen. Beraz, Arrasateko Udalak urrats bat egin behar du. Energia berriztagarriak dira etorkizuna eta gure apustua irmoa da", azaldu zuten alkateak.

EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek hitzetatik ekintzetara pasatzeko eskatu zioten Gobernuari: "Adibidez, Iberdrolarekin daukagun kontratua etenda".

Bestalde, EH Bilduk ere mozioa aurkeztu zuen, enpresa elektrikoaren prezio igoera salatzeke eta gaurko deituta dagoen itzalaldiarekin bat egiteko. Dena den, jeltzaleek eta sozialistek aurka bozkatu zuten eta ez zen onartu.

Azkenik, Elkarrekin Arrasateren mozioak Voxek Arrasaten egin zuen elkarretaratzea salatu zuen. Onartuta geratu zen, baina alkateak azaldu zuen gai hauek Elkarbizitza Mahaian lantzekoak direla, ez mozio bidez, eta Mahaiaren baitako akordioak ez dituztela errespetatu oposizioa bi alderdiek. "Ez dugu elkarlanean jarraitzeko borondatearik ikusten". EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek esan zuten "onartezina" dela Voxen aurrean "ezikusiarrena" egitea.



Herritarrek TAO bulegoan. E.A.

Jada hasi dira TAO bulegoan egoilarren txartelak tramitatzen

Ilara luzerik ez sortu arren, herritar ugari joan dira asteon Olarte kaleko TAO bulegora, zalantzak argitzera eta egoilarraren txartelak tramitatzen. Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara dago irekita; zapatuetan, 09:00etatik 13:30era. Bestalde, 943 10 10 06ra deituta eta tao@arrasate.eus helbidean ere egin daitezke kontsultak.

Ezker Anitzak alderdi eta eragileekin batzen jarraitzen du

Uda aurretik EAJrekin eta EH Bildurekin batu ostean, PSE-EE-ren gestoreko bozeramaile Blanca Roncalekin egin dute hiru garren bilera Juan Luis Merino Ezker Anitzako komunikazio idazkariak eta Juankar Davila Arrasateko Ezker Anitzako koordinatzaileak. "Herritarren arazo eta beharrak konpontzeko gogoz ari gara lanean", azaldu dute.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke

arrasate

'Ekobulebar'-aren lanek aldaketak eragin dituzte

Nafarroa eta Biteri etorbideak itxita egon dira asteon, asfaltatze lanak egiteko, eta Zerrajeratik bideratu dute trafikoa. Ondo bidean, gaur bukatuko dituzte lan horiek; Maria Ubarretxena alkateak azaldu du herritarren jarrera "primerakoa" izaten ari dela

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Egokitzapenek beti eskatzen dituzte aldaketak eta beti sorrazten dituzte kezka eta ardurak. Horregatik, bizilagunen pazientzia eskertu gura dugu. Obra honek zentro guztia hankaz gora dauka eta esan beharra dago bizilagunen jarrera primerakoa izaten ari dela", nabarmendu du Ubarretxenak.

Gaineratu du gutxika bada ere ari direla ikusten ingurua itxuraldatzen ari dela: "Eta bukatzean, oinezkoendako, bizikletendako eta, batez ere, bizitza komunitariorako espazio zabal bat izatea gura dugu".

Bestalde, Next Generation funtsari eskatutako dirulaguntza "bultzada garrantzitsua" izango litzatekeela uste du alkateak. "Garbi dute bizikletari eman behar zaion esparrua eta oinezkoari eman behar zaion garrantzia handia izan behar dela eta ahalegin bat egin behar dugula trafikoa herrigunetik ateratzeko.

Ekobulebar-ak baldintza horiek guztiak betetzen ditu eta espero dugu laguntza hori jasotzea. Urte bukaerarako edo datorren urte hasierarako jakingo dugu laguntza jasoko dugun ala ez".

EH Bildu, "oso pozik"

Maidier Morras Arrasateko EH Bilduren bozeramaileak aitortu du "oso pozik" daudela. "Gure ekimenaren ondorioz lortu da Garibai etorbidea oinezkoendako izatea. Beraz, aldaketa horrekin oinezkoek eta herritarrok irabaziko dugu. Pixkanaka, gure Laubide proiektua egikaritzen joango dela ikusten ari gara".

Dena den, autobus geltoki berria eta zerbitzu aldaketa erabiltzaileentzat "zoramena" izaten ari dela azpimarratu du. "Ez dago informaziorik, erabiltzaileek ez dakite noiz eta nora joan behar duten eta jendeak denbora asko pasatzen du itxaroten. Planifikazio falta izugarria egon da eta hori nabaritu egiten da".



Astelehenean hasi zituzten lanak. Kulturoloko bidegurutzea itxita egon da. E.A.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Algoritmoa

Algoritmoak zuk baino hobeto ezagutzen nau. Adibidez, Googlek. Adibidez, Instagramek. Bospasei orduko etenaren ostean, eta argazki guztiak galduko nituen kezka ia apokaliptikoak tripak janda, kopia bat sortzeko agindua eman diot Instagrami, eta deskargatu ditut zintzilikatutako argazki guztiak. Argazkiak, eta bestelakoak. Karpetatxotan agertu zaizkit pantailan: edukiak, mezuak, kontaktuak, zure interesak, duela gutxi egindako bilaketak, zure gaiak... Ireki ditut karpetatxoak, eta aukeratu dut *Zure interesak* dioena. Eta hor zerrenda: kosmetika, ilerako produktuak, arropa, pop musika, yoga, zinema, fitnessa, Aries, kafea, ezkontzak, musika elektronikoa... Eta izutu egin zait berran *millennial*-a. "Ai ama!". Gero, lasaitu egin naiz. Badakigu zertan ari garen. Gutxi gorabehera.

Hark zuk baino hobeto ezagutzen nau. Ihes egiten dizudalako "zer nahi duzu?" edo "zergatik zaude kezkatuta?" edo "zeri diozu beldurra?" galdetzen didazunean, eta *like* eta *follow* egiten dudalako inork eskatu gabe ere. Erruak partitzen hasita, ez da algoritmoaren kontua bakarrik. Baina baita algoritmoarena ere.

DEMO DAY

Kids&Us

school of english

Bizi Kids&Us esperientzia

Kids&Us Arrasate - Euskal Herria plaza 13 - Tel.: 943051546 / 656740578 - arrasate@kidsandus.es

Demo Day: ekitaldi paregabea familian

Familiek zuzenean ikusi ahal izango dute Kids&Us-en metodoa, 1 eta 7 urte arteko haurtxoentzako eta haurrentzako demostrazio-eskolen bidez.

Kids&Us zentroek bat egin dute ekimen honetan: aldi berean eskainiko dituzte Babies eta Kids Experiences-ak 1 eta 7 urte arteko haurtxoendako eta haurrendako, urriaren 23an. Demo Day ekimena Natural English metodoa zuzenean eta lehen pertsonan ezagutu nahi duten eta 1 eta 7 urte arteko haurrak dituzten familientzako da.

Jardunaldi paregabe eta eksklusibo honetan, irakasleek 30-40 minutuko demostrazio-eskola emango dituzte, familiak bertan direla. Horrela, munduko bederatzi herrialdeetan 150.000 ikasle baino gehiago dituen ingelesez ikasteko metodo paregabe baten eraginkortasuna egiaztatu ahal izango dute.

Demo Day-rako plaza kopurua mugatua da eta familiek webgune honen bidez erreserbatu ahaliko dituzte:

www.kidsdemoday.com.

Kids&Us-en Natural English metodoak ingelesaren ikaskuntza goitik behera aldatu du

Kids&Us 1 eta 18 urte arteko haurrentzako munduko erreferentziako ingeles-eskola da. Ikaskuntza-metodoa lagun dute beren garapenean, dela akademikoan, dela pertsonalean. Materialak adin bakoitzaren errealitatearen egokitzen dira, eta ikastaroak oso talde txikietan lantzen dira.

Natural English metodologia hizkuntza-murgilketa eta ama-hizkuntza gureganatzeko prozesua erreplikatzeko oinarritzen da, eta hizkuntza naturalki eta berez ikastea bermatzen du.

Haurrek hizkuntza deszifratzeko duten berezko gaitasuna baliatzen du Kids&Us-ek, eta zentzumenetan eta emozioetan oinarritutako ikaskuntza-esperientzia batean murgiltzen ditu haurrak.

Jarduera osagarrien unibertso handi bati esker, ikasleek ikasgela barruan eta ikasgelatik kanpo esperimendatzen dute hizkuntzarekin, eta ingelese euren egunerokoan sartzen dute.

Kids&Us-en helburu nagusia da haurrek ingelesezko hizkuntza-gaitasun handienak lortzea eta etorkizuneko ateak irekitzeko konfiantza hartzea.

Plaza kopuru mugatua!



Eman izena gertuen duzun zentroan, webgune honen bidez: www.kidsdemoday.com.



Egun, Osiñako bidegurutzeak lau adar ditu eta horietatik hiruk stopa dute. TXOMIN MADINA

Bidegurutzea kendu eta biribilgunea jarriko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak biribilgune bat egingo du Osiña-Ospitaleko lotunean, "bide segurtasuna hobetzeko eta trafikoaren abiadura murrizteko" helburuarekin. Urrian lizitatuko dute obra eta 2022. urte hasieran hasiko dituzte lanak, ondo bidean

Eneko Azurmendi ARRASATE

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak nabarmendu duenez, Aldundiak "beti" eduki izan du bidegurutze hori ordenatzeko nahia. "Ospitale-rako bidea erraztu gura dugu; izan ere, garrantzi handia ematen diogu bide segurtasunari, eta esku-hartze honek horri erantzuten dio. Lau adarreko bidegurutze bat da eta horietatik hiruk stopa daukate. Lehenetsuna GI-627tik datorrenak daukan arren, jendeak askotan ez daki nork daukan lehenetsuna, eta horrek istripu txikiak eragin izan ditu, nahiz eta oso larriak ez izan".

Horri konponbidea emateko asmotan egingo dute biribilgunea. Proiektuak 168.108,57 euroko inbertsioa izango du eta ez da oso biribilgune handia izango, "leku handirik ez dagoelako", Oiarbidek aurreratu duenez. "alde batean Deba ibaia dago eta beste aldean GI-627 errepi-dearen zubia".

Bestalde, diseinatu duten biribilguneak 19,20 metroko kanpoko diametroa dauka eta 5 metro zabaleko barne eraztuna. "Gainera, biribilgunearen 8,10 metroko eraztuna zapalgarria izango da, ibilgailu astunek eta autobusek biraketa maniobra errazago egin dezaten". Era berean, saihebidetik datozen ibilgailuen abiadura mantsotu egingo dela azaldu du Oiarbidek, eta mugimenduak erraztuko direla gaineratu. Azkenik, inguru horretako argiztapena "nabarmen" hobetuko duen 250 wateko potentziako LED argiteria ere jarriko dutela aurreratu du foru diputatuak.

Esan moduan, lanak 2022ko urtarrilean hasiko dituzte, Al-

**IBILGAILU ASTUNEN
MANIOBRAK
ERRAZTEKO, ERAZTUN
ZAPALGARRIA IZANGO
DU ERROTONDAK**

dundiaren aurreikuspenak betetzen badira, eta martxorako bukatuta egongo lirateke, zortzi asteko obra izango da eta. "Trafikoan eragina izango du, baina saiaturako gara ahalik eta txiki-ena izaten".

Berri "pozgarria" da

Maria Ubarretxena alkateak azaldu du "oso berri pozgarria" dela Arrasaterentzat, eta esker-erak eman dizkio Aldundiari egingo duen inbertsioagatik. "Guztiok ezagutzen dugu bidegurutzea, lau adar dituen eta bailarako jende asko sartu eta irteten dena, kontuan izanda Debagoieneko Ospitalea daukagula bertan. Trafiko askoko zona da, bidegurutze zail bat, eta biribilguneak asko erraztuko ditu sartu-irtenak, abiadura murrizteaz gain".

Biribilgunearekin, bide segurtasuna "nabarmen" hobetuko dela gaineratu du, "bai auto, autobus, bizikleta eta abarrena, baina baita oinezkoena ere".

Aukera dago bide publikoaren ordenantzari ekarpenak egiteko

Bide publikoa terrazekin eta beste instalazio batzuekin okupatzea arautuko duen ordenantza da aipautakoa

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuak bide publikoa terrazekin eta beste instalazio batzuekin okupatzea arautuko duen udal ordenantza arautzailea idaztea erabaki du. Agiria idatzi aurretik, baina, ekarpenak egiteko aukera dago *Arrasate.eus* webgunean. Modu horretan, ostalari, kontsumitzaile zein herritarrek urriaren 22ra arte izango dute iritzia emateko aukera.

"Herritarren segurtasuna, trafikoaren segurtasuna, irisgarritasun ona edota oinezkoen zir-

kulazio egokia errespetatzeko", besteak beste, hartu du erabaki hori. "Izan ere, gaur egungo osasun-krisiak eraginda ostalarien eskaera berriak atzeman dira bide publikoa mahai, aulki eta gainerako instalazioek okupatzeari dagokionez". Helburua da terrazak jartzea bezeroei zerbitzua aire zabalean emateko, "baina kontuan hartuta espazio publikoaz gozatu behar duen herritarra ostalaritza instalazio edo erabilera batek hura eragotzi gabe, eta, are gutxiago, oztopatu edo kaltetu gabe".

Familia eta buru osasuna izango dituzte berbagai urriaren 14an

Iker Arrizabalaga Agifes elkarteko psikologoak hitzaldia egingo du Kultureteko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan

E.A. ARRASATE

Osasun mentaleko arazo batek senitarteko bakoitzarengan eta familiaren dinamikan duen eragina aztertuko du Agifeseko familia-programaren arduradunak. "Era berean, halako gaitz psikikoak agertzen direnean zer egin jakiteko jarraibideak eman go dituzte. Familia osoarentzat eskuragarri dauden baliabideak eta laguntzak ezagutaraziko dituzte, bai diagnostikoa duten pertsonentzat bai haien senideentzat". Elkartetik diotenez, gizarte, osasun eta erakundeetatik es-

kaintzen dituzten buru osasuneko programak eta zerbitzuak "oinarrizkoak" dira: "Baina ez dugu ahaztu behar osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen egunero laguntzen dietenen zeregina". Hurbileko senideak dira buru nahasmena dutenen errehabilitazio prozesuaren "zutabe nagusietakoa", elkarteko kideen esanetan. "Familien rola azpimarratzeaz gain, haien zaintza eta ongizatea hobetzeko baliabide eta programa gehiago eskaintzearen alde lanean jarraitu behar dugu".

Auzoko egitasmorako izen-ematea zabalik dute dagoeneko

Urtero moduan, helburua da euskarara lehen pausoak eman nahi dituzten herritarrek -auzokideak- eta euskal hiztunak -auzotarrak- elkartzea. Interesa dutenek Ekin Emakumeak elkartearekin jarri behar dute harremanetan, *aniztasuna@ekinmakumeak.eus* helbidera idatzita edo 943 79 83 70 / 651 70 79 36 zenbakietara deituta.

San Kristobalgo nitxoak nora bideratu jakinarazi behar da

Udalak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aterako ditu San Kristobal hilerriko nitxoetan 2011n lurperatu zituzten gorpuzkiak. Hala, urriaren 15a baino lehen adierazi behar da udaletxean gorpuzkia nora bideratu. "Bestela, hilobitik ateratzen dituztenean, San Kristobalgo hilerriaren guztion hobian utziko dira gorpuzki horiek".

"Egun, futbol jokalariai Jainkotuta daude"

JAVIER LARRAURI MONDRAKO ETA REAL MADRILEKO JOKALARI OHIA

'Mondra. Una temporada y tres futbolistas' liburuaren aurkezpena aitzakia aproposa izan da 'merenge'-ekin jokatu duen Mondrako jokalariai bakarretakoa elkarriketatzeko

Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasatek emandako "futbolarririk onenetakoek" profesional mailan jokatzeko lortu zuten 60ko eta 70eko hamarkadetan. Aranbarrik eta Sagastak Realean egin zituzten zenbait denboraldi eta Larrauri, berriz, Real Madrilek fitxatu zuen. Lehenago, baina, Mondran egin zuten topo hirurek, eta horretan oinarritu da Velez de Mendizabal liburuak idazteko. Arrasatearrendako Larrauri da, seguruenik, hiruretan ezezagunena, kanpoan bizi da eta.

1965-66 denboraldia ona izan zen Mondrarendako. Ze oroitzen duzu?

Ederra, benetan. Izan ere, urte hartan Hirugarren Mailan laugarren postuan sailkatu ginen. Benetan geneukan talde ona, eta, gainera, jendeak bikain erantzun zuen. Iturripen zaleek asko gozaten zuten gurekin, ikuskizun ederra ematen genuen. **Urte bakarra egin zenuen Mondran...** Halaxe da. Gu, izatez, legazpiarrrak gara, baina lau anaietatik hiruk Mondran jokatu genuen. Aitak negozioa jarri zuen Arrasaten, eta horrela etorri ginen hona bizi izatera. Hala, hiru urte egin nituen UCEAn (Union Cerrajera Escuela de Aprendices), eta ondoren bakarra Mondragon taldean. Eta, Mondrako urte



Javier Larrauri, liburuaren aurkezle, jantzi berria erakusten du. GOIENA

hartan, apirilean, Espainiako Federaziotik deitu ninduten Uefako 18 urtez azpiko txapelketa jokatzeko. Hala, Jugoslaviara joan nintzen Espainiako selekzioarekin eta Herbehereen kontra jokatu nuen partidu bat. Bistan da Real Madrileko norbait atzetik neukala, handik itzultzearekin batera fitxatu ninduten eta. Badakit Realak eta Athleticek ere interesa erakutsi zutela, baina ordurako nire aitak hitza emana zien madrildarrei. **Ez zen salto txikia izango, Mondratik Real Madrilerara...**

Pentsa, eta 18 urte baino ez nituen. Kontratu profesional batekin joan nintzen, baina harrobiko taldearekin jokatu nuen, gaur egun Castilla dena. Espainiako amateur mailako txapel-dun izan ginen, finala Romaredan Bartzelonari irabazita. Eta Madrildo txapelketa ere irabazi genuen. Hala, hurrengo denboraldirako, 19 urterekin, Castelloko taldean nengoen jokatzeko, Bigarren Mailan. **Horrenbestez, Real Madrildo talde nagusiarekin ez zenuen debutik egin, ezta?**



Liburuaren protagonistei Mondrako elastiko bati oparitu zieten. GOIENA

Gaztetako garaiak gogora ekarri

Josemari Velez de Mendizabalek idatzitako *Mondra. Una temporada y tres futbolistas* liburuaren protagonista Jon Sagastari, Javier Larrauriri eta Jesus Aranbarri harrera egin zieten Mojetegin, eta elastiko bati oparitu.

Ez, ez. [Barre]. Hori asko esatea da... Aita zenari esaten zioten izango nuela lehenengo taldean jokatzeko aukera, baina ez nuen debutik egin, ni baino hobeak zeuden. Talde askotan jokatu izan nuen; esaterako, Osasunan, Cadizen eta Cultural Leonesan. **Zein alde dago gaur egungo eta lehenengo futbolaren artean?**

Ez dauka zerikusirik. Hasteko, nahiz eta neure burua profesionaltzat neukan, gaur egun askoz serioagoa da dena. Niretako futbola jolasa zen. Bestalde, esango nuke lehen jokalariai teknikoagoak zirela... Izan ere, gaur egun, futbol jokalariai korrika egin behar du derrigor; lehen, ez. Bestalde, jokalariai Jainkotuta bizi dira gaur egun. Nik kirol bizitza osoan ez nituen hamar sinadura egingo, eta gaur egun Bigarren Mailako edozein jokalarik entrenamen-

du saioaren ondoren lana dauka sinadurak egiten. Gure saioan ere ez zegoen horrenbeste telebista...

Mondrak harrera egin eta elastikoa oparitu dizue.

Ez dakizu zein ilusio egin didan... Izugarri ondo portatu dira Mondrako ordezkariak. Klub hau bihotz-bihotzean eraman izan dut beti. Pentsa, 19 urterekin Real Madrileko jokalaria nintzen, Espainiako selekzioarekin jokatu nuen... Eta hori guztia Mondrari esker izan zen. Omenaldia egin digutenean malkoei eusten ere nahikoa lan izan dut.

"REAL MADRILEN JOKATU, SELEKZIOAN... MONDRARI ESKER LORTU NUEN DENA"

Omenaldia jokalariai ohiei

Pandemiak eragindako atzerapenarekin, baina, azkenean, Mondrak iaz taldea utzi zuten jokalariai omendu ahal izan zituen domekan. Gainera, taldekide ohiek partidua irabazi zuten (2-1). Ezkerretik hasita, Jokin Gorostola, Mikel Gonzalez, Asier Sanchez, Haritz Ezpeleta, Gorka Eraña, Markel Gonzalez eta Julen Aranbarri kapitain ohia.



IMANOL BELOKI

MUko neskek debuta egingo dute Iturripen domekan (16:15)

Ointxe!-k sortu berri duen emakumezkoen saskibalo taldeak ezin hobeto hasi zuen joan den astean liga, Paules Galtzagorriren kantuan 47-84 irabazi zuen eta. Domekan, berriz, etxeko zaleen aurrean egin ahal izango du debuta. Iñaki Ogararen neskek Antigua Luberrikoen kontra jokatu dute bigarren jardunaldia.

Mugarri Eingouk Ereintzaren kontra jokatu dute lehena

Arrasatearrek asteburuan jokatu dute Euskadiko txapelketako lehenengo partidua, joan den astekoa atzeratzeko eskatu zieten-eta kontrarioek. Hala, asteburuan Ereintzaren kontra neurtuko dituzte indarrak. Talde erabat berriarekin, eta gazte mordoarekin, belaunaldi aldaketara egokitzeko egingo dute lan arrasatearrek.

Bibliotekaren Eguneko aldarriekin bat egin dute

Urriaren 24an nazioarte mailan ospatuko den egunaren harira, egitarau zabala prestatu dute Arrasateko Bibliotekan. Besteak beste, Jon Basaguren eta Iñigo Astizek musika eta poesia uztartuko dute, urriaren 29an, Kulturaten

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Urriaren 24an ospatuko da Bibliotekaren Nazioarteko Eguna, eta Arrasateko Bibliotekak bat egingo du aldarrikapenekin. Aurtengo edizioak *Liburutegiak: irakurri, ikasi, deskubritu* leloa izango du; nabarmendu nahi da liburutegiek duten zeregina kultura eta ezagutza eskuratzeko espazio libre, askotariko eta ireki gisa.

Aldarrikapenekin eta ospakizunekin bat egiteko egitarau zabala prestatu dute urrirako; ume zein helduendako proposamenak batu dituzte.

Bizipenak entzun eta kontatu

"Giza bibliotekaren oinarritzko ideia da denok ditugula bizipenak, kontatu eta entzun daitezkeenak; horregatik, denok bilakatu gaitezke liburu besteentzat", azaldu du Ane Berasategi liburuzaingak. Dinamika honela izango da: zazpi pertsona egongo dira euren istorioak kontatzeko prest. Entzuleak aukeratu du bere interesekoa dena,

eta pertsona horrekin eseriko da entzutera eta hitz egitera, hamabost minutuz. Giza bibliotekan parte hartuko dute: Jesusi Etzebarria musika irakaslea izandakoak; Amaia Arroyo Sagasta komunikazioan eta hezkuntzan adituak; Naiara Gorroño Viteri *mindfulness* irakaslea; Iñaki Peña zainketa aringarrietako medikuak; Yanina Choque Perutik etorritako ingeniariak; Josu Tornay Belategi xake jokalaria; eta Luciana Alfaro Emakumeen Mundu Martxako kideak. Ez da lehenengo aldia hori antolatzen dutena: "Aurreko edizioek harrera ona izan dute. Ezezagunekin hitz egiteko ohitura falta zaigu, eta kostatu egiten da jendea erakartzea. Ikuspegi berritzailea da".

GIZA BIBLIOTEKAK EZEZAGUNEKIN HITZ EGITEKO AUKERA EMATEN DU, HAMABOST MINUTUZ

Antolatutako egitaraua

Urriak 13, eguaztena

• **18:00** Santa Marinaran, *Ipuinen haria* ipuin kontaketa egingo du Izaskun Mujikak.

Urriak 21, eguena

• **18:00** *Ameli eta xirrikitu*en *jostunek* ipuin kontaketa musikatua egingo dute Kulturaten, 5 urtetik gorakoentzat.

Urriak 27, eguaztena

• **18:00** Kulturaten, IV. giza biblioteka.

Urriak 29, egubakoitza

• **19:00** Kulturaten, Jon Basaguren eta Iñigo Astiz. Musika eta poesia emanaldia.

Leo Minax laukoteak jazz doinuak ekarriko ditu etzi

'Arrasate Blues 365' ekimenaren barruan antolatu dute emanaldia; brasildarrak azken bi diskoak eskainiko ditu

A.E.G. ARRASATE

Ibai-artek antolatuta, Leo Minax laukotearen musikaz gozatzeko aukera egongo da etzi, domeka, Herriko Plazan, 19:00etan. *Arrasate Blues 365* ekimenaren barruan antolatutakoa da; izan ere, *Arrasate Blues 365* ekimena martxan jarri dute urtean zehar ere, "hainbat ekitaldi antolatu eta herria animatzeko asmoz".

Leo Minax musikari brasildarra Euskal Herrian egongo da urrian zehar. Hiru emanaldi egingo ditu; horietako bat, Arrasaten. Laukote formatuan ari-tuko da. Taula gainean lagun izango ditu: Borja Barrueta bateria-jotzailea, Dario Guibert kontrabaxu-jotzailea eta Daniel Garcia Diego piano-jotzailea.

Bi disko eskainiko ditu

Jazz doinuak dira brasildararren musikaren oinarri nagusia, bai



Leo Minax. CANCIONAQUEMARROPA.ES

kompositore eta baita interpretatzaile gisa ere. 2017an eta 2019an sortutako bi disko eskainiko ditu, *Con la mosca tras la oreja* eta *Trinta*, hurrenez hurren. Horiez gain, abesti ezagun batzuk ere joko ditu Arrasateko emanaldian.

Kooltur Ostegunak bere ohiko dinamikara bueltatu dira

Atzo, eguena, hasi zituzten emanaldiak, La Excavadora taldearekin; urriaren 14an, Mice taldeak joko du

A.E.G. ARRASATE

Kulturaren gupila ez gelditze-ko ahaleginean jarraitzen dute Kooltur Ekimeneko kideek. Oraingoan, Kooltur Ostegunak beren ohiko dinamikara itzultzea erabaki dute, eta urrirako egitaraua prestatu dute dagoeneko. Atzo hasi zituzten emanaldiak, ohiko leku eta orduan.

La Excavadora taldeak hasi zuen pandemia osteko zikloa. Hurrengo emanaldia, berriz, Mice taldeak egingo du. Urriaren 14an izango da, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean, 7 euroren truke. Sarrerak egunean bertan salduko dituzte.

Miren Narbaiza

Miren Narbaiza musikaria dago Mice taldearen atzean. Napoka Iria taldearekin hainbat urtez ibili ondoren, bakarkako ibilbideari ekin zion Narbaizak.



Miren Narbaiza. MIKEL NARBAIZA

Zilar printzak da Miceren bigarren erreferentzia diskografiakoa. 10 hazbeteko biniloan lau kanta jasotzen ditu: bi berri eta bi bertsio, Ruper Ordorikarena eta Delirium Tremensena.

Maskara janztea ezinbestekoa izango da areto barruan.



Iñigo Astiz eta Jon Basaguren, jolasean. OIHANEDER.EUS

KPIa igoko dute 2022ko ordenantza fiskaletan

Salbuespenak salbuespen, tasak eta zergak %2,7 igoko dituzte datorren urtean. Horrez gain, bake epaile berria Antonio Elejalde izatea proposatu zuten, eta kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko lanak exekutatzeko proiektua onartu zuten

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Iraileko ohiko osoko bilkuran hainbat gai izan zituzten mahai gainean. Horien artean, bake epaile berria eta haren ordezkia proposatzea. Udalbatzak aho batez onartu zuen Antonio Elejalde izatea bake epaile berria, eta haren ordezkia Monika Landaluze. Udalbatzak hartutako erabakia epaitegien proposatuko da; gero, epaitegiak izango du izendapena egiteko ardura.

Lanpostu zerrendan aguazil lanpostuaren izen aldaketa onartu zuten, aldeko zazpi botoekin eta bi abstentzioekin. Aramaioko kasuan, aguazil-zerbitzu anitzetako langile moduan dago izendatuta lanpostua, eta Eusko Jaurlaritzak dio hori ezin dela izan; edo bat edo bestea izan behar du. "Kontuan hartuta aguazilak egiten dituen lan gehienak zerbitzu anitzetako lanak direla, erabaki da proposatzea zerbitzu anitzetako langilea izatea", azaldu zuen idazkariak. "Lan bera egiten jarraituko du, funtzio bera izango du. Lanpostuaren izena bakarrik aldatuko da", gehitu zuen Lierni Atuna alkateak.

Ordenantza fiskalak

2022rako ordenantza fiskaletan aldaketak proposatu zituzten



Kiroldegiaren kanpoaldea; eraikina eraberritzeko proiektua onartu egin dute. A.E.G.

osoko bilkuran, eta aho batez onartu zituzten proposamenak. "Jasotzen dugunaren eta gas-tatzen dugunaren arteko aldea ikusita, 2022rako %7ko igoera egitea proposatzen dugu", azaldu zuen alkateak.

Bideen erabilera tasa, uraren tasa eta ibilgailuen gaineko zerga KPIa beste igotzea -%2,7- proposatu zuten; era berean, auto zaharren hobaria kentzea proposatu zuten. Azkenik, terrazen ordenantzan aldaketa txiki bat egitea proposatu zuten, eta salbuespen izaeretan ematea terraza handitzeko baime-

na. "Pandemian beharra egon da eta ezetz esan beharra izan dugu, horregatik uste dugu araua aldatzea komeni dela", azaldu zuen Iban Herrarte zinegotziak.

Kiroldegia handitzeko lanak

Aramaioko kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obren exekuzio proiektua onartu egin zuten. "Materialetan igoera egon da, eta horregatik aurrekontua igotzea proposatzen dugu, lehiaketara norbait aurkez dadin", azaldu zuen Gorka Astondoa zinegotziak. Proiektua Aldun-

Urriaren 16an, Jarindora


Herriko hainbat eragilek aurkeztutako *Arabako mendiak bizirik!* mozioa onartu zuten, EH Bilduren aldeko zazpi botoekin eta EAJren kontrakoekin.

Aixeindarrek Arabarako proposatu dituen lau parke eolikoan proiektuen harira, zera eskatu diote Udalarri: indarrean dauden proiektuak geldiaraztea, inpaktu txikiagoa dutenak babestea eta zentral eolikoak leku antropizatueta kokatzea. Horrez gain, bat egitea hilaren 16ko Jarindoko martxarekin.

dira bidali dute eta han onartzen denean aterako dute lizitaziora.

Amaieran, mozioak

EAJk bi mozio aurkeztu zituen. Aramaioko irudiari buruzkoa bat, ondokoa eskatuz Udalarri: udalerriko eraikin publiko eta pribatu guztietatik pintaketak garbitzea; Aramaiorekin lotutako muralak margotzea kiroldegian; eta berdeguneak apaintzeko konpromisoa hartzea. Gaia Hirigintza batzordean proposatu behar dela iritzita, EH Bilduk kontra bozkatu zuen. Bestalde, ospitale zaharreko mozioan, eraikina aurri-egoeran deklaratzeko espedientea hastea eta eraikina bota edo ixtea onartzea eskatu zuen EAJk. EH Bilduk, berriz, gaia landu eta irtenbidea bilatzeko konpromisoa erakutsi zuen; azken hori onartu egin zuten.



GOIENA

"Ahal dela, lagundu egin nahiko nuke"

ANTONIO ELEJALDE BAKE EPAILEA

Elejaldek 75 urte ditu, eta Fagor Garagartzan lan egin zuen 40 urtez.

Zergatik erabaki zenuen proposamenari baietz esatea?

Deitu zidaten esanez inor ez zela boluntario aurkeztu, eta ni egokia izan nintekeela. Niri gustatu egiten zait ahal dela jendeari laguntzea. Horregatik esan nuen baietz.

Zer egin beharko duzu?

Astelehenero jaitsi beharko dut udaletxera paperak sinatzera. Bestalde, hauteskundeak daudenean, botoak eraman beharko ditut Gasteizera. Nik galdetu nuen ea iskanbiletan epaile egin beharko nuen, eta ezetz esan didate.

Zer eskatzen diezu herritarrei?

Errespetuz jokatzeko; batez ere, hori.

Martitzenean egingo dute kaleko 30. margo lehiaketa

Aramaiion urteroko hitzordu bilakatu da urriaren 12an egiten den kaleko margo lehiaketa. Eta aurten ere egingo dute: martitzenean izango da. Estilo eta teknika librean egingo da margo lehiaketa. Urriaren 12an, 09:00etatik 11:00etara bitartean jarriko dizkiete zigiluak euskarrii udaletxean. Margolanak aire zabalean egin beharko dira,

Aramaioko udalerrian, eta 14:00etarako entregatu beharko dituzte -sinatu barik-.

Sariak arratsaldean banatuko dituzte: 18:00etan umeena eta 18:15ean helduena. 16 urtetik gorako kategorian, hauek izango dira: lehen saria, 700 euro; bigarrena, 500 euro; eta hirugarrena, 400 euro. Lehen aramaiorrendako, 150 euro. 16 urtetik beherakoen kategorian: lehen saria 150 euroko txartela; bigarrena, 100 euroko txartela; eta hirugarrena, 50 euroko txartela.

Argazki lehiaketa egingo dute 2022ko egutegia osatzeko

2022ko egutegia ilustratzeko erabiliko diren argazkiak aukeratzeko, argazki lehiaketa jarri du martxan Udalak, urtero legez. Urriaren 29ra arte dago argazkiak aurkezteko epea zabalik. Gaia librean izango da, baina ezinbestekoa izango da argazkiak Aramaiion egindakoak izatea.

Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu

ahal izango ditu. Formatu horizontalan aurkeztu beharko dira, eta bakoitzak izan beharko du izenburua, tokiaren izena eta data.

Lehenago argitaratu gabeko edo saritu gabeko argazkiak izan beharko dute eta ezin izango da jatorrizko konposizioa aldatu; hala ere, argazkiak gainetik berrukitzea onartuko dute.

Antolatzaileek nabarmendu dute argazkietan lehen planoak agertzen baldin badira pertsona horren baimena beharko dela.

Galdara berria jarriko dute anbulatorioan datorren astean

Hainbat hobekuntza egiten da biltza Aramaioko anbulatorioan azkenaldian. Izan ere, asmoa da datorren astean galdara berria jartzea eta erdiko gelan erradiadorea. Daniel Lopez de Munain iturginak egingo ditu lanok, 2.816,20 euroko aurrekontuarekin. Baliteke egunen baten berogailu sisteman eragina izatea lan horiek.



Familia bat jolasean egoitza jarri berri duten pilotekin betetako igerilekuan. OIHANA GARCIA INSAUSTI

Familien beharrak asetzen jarraitzeko, ateak parez pare zabaltzear

Urte eta erdiko etenaldiaren ostean egoitza ireki eta ikasturte berriari ekiteko gogotsu daude Kuku Mikuko kideak; egitarau dotorea gertatu dute hamar urte betetzear dagoen elkarte ezagutza emateko eta bazkidetza kanpaina zabaltzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Pandemiak eragindako etenaren ondoren, ateak zabalduko ditu Kuku Miku elkarteak udazkenean. Luze egin zaie urte eta erdiko itxaronaldi hori, eta bertako kideek uste dute "hutsune handia" izan dela hainbat familiarendako. Horregatik, "gogotsu" datoz bueltan, eta egitarau dotorea gertatu dute ikasturteari "indartsu" ekiteko eta elkarte ezagutza emateko guraso berrien artean.

Familientzako txokoa

Durana kalearen atzeko partean Udalak duen lokalean elkartzen dira Kuku Mikuko kideak. Azken urtean, baina, "lokal beharra" izan du Udalak pandemiaren eraginez, eta ludotekako umeendako beste gune bat egokitu dute han. Horregatik, oraingo, aste bukaeraetan za-

balduko dituzte bertako ateak Kuku Mikukoek. 0 eta 6 urte bitarteko umeak dituzten familiendako txokoa da eta bazkide sistema erabiltzen dute. Orain dela bi urte, 45 familia zeuden izena emanda; iaz, baina, baja asko izan ziren eta 31 familiatara jaitsi zen bazkide kopurua. "Pandemiak zeresana izan zuen, baina bazkide errota ere handia da gure elkartearen; umea koskortu ahala joan doaz batzuk eta jaioberriekin etorri beste batzuk", azaldu du zuzendaritzako kide Oihana Garcia Insaustik. Hain

6 URTE BITARTEKO UMEAK DITUZTEN FAMILIAK ELKARTZEN DIRA BAZKIDETZA SISTEMA BIDEZ

zuzen, horregatik, familia berriei ezagutza eman gura diete elkarte, eta bazkide egiteko epea zabalduko dute urriaren 16tik azaroaren 15era bitartean. Izen-emate fitxa bete beharko dute interesa dutenek, eta egoitzako postontzian sartu edo helbide honetara idatzi: kukumikuelkartea@gmail.com. Bazkideek 35 euroko urteko kuota ordaintzen dute –guraso eskola eta gimnasio saioak erabiltzaileak ordaintzen dituzte eta familia bakoitzari egoitza giltza ematen zaio. Hala, ezarritako ordutegiaren barruan, edozein unetan erabil dezakete txokoa –beste ekitaldiren bat ez badago–.

la hamar urteko ibilbidea

Orain dela hamar urte guraso batzuek herrian atzemandako hutsuneei erantzun nahian jarri

"Umearendako zein familiarendako topagune goxo bat da elkarte"

OIHANA JAUSORO / OIHANA GARCIA ZUZENDARITZAKO KIDEAK

Zuzendaritzako kide dira, eta abian jarritako bazkidetza kanpainarekin elkarte sendotu gura dute.

Zein da aurtengo erronka?

Azken urte eta erdiko etenaldiak elkarteari berari ere eragin dio, eta hori indartzeko, familia kopuru txukun bat elkartu gura dugu Kuku Mikuren bueltan. Horretarako, ezagutza ematea da aurtengo erronka. Hortik abiatuta, familia berriei transmisio ona emateko gura dugu; umeak koskortu ahala alde egingo dugu orain gaudenok, baina elkarteak jarraipena izango du.

Gurasoen eta umeen beharrei erantzutea da elkartearen helburua?

Familien bidelagun izatea eta formakuntza beharretan laguntzea dago, batetik, eta umeendako ekintzak




MIRARI ALTUBE

antolatzea eta elkargunea izatea familiendako, bestetik. Bertatik pasatutako gurasoen aldetik zer jaso duzue?

Oso ondo baloratzen dute. Gu geu, esaterako, ez gara aretxabaletarrak, eta jendea ezagutzeko tokia izan da. Umea sozializatzeko gunea ere bada; bereziki, lehen urteetan etxean haztea erabaki dutenentzat. Umearendako zein familiarendako gune goxo bat dela uste dugu.

Adituek gidatutako taldeak



ANE REMEDIOS
FISIOTERAPEUTA

"Gorputzeko minak ekiditeko saioak dira"

"Zoru pelbikoa eta muskulu abdominala berreskuratzeko teknikak ematen ditut, batzuk haurdunaldi sasoirako eta beste batzuk erditze osterako. Jarrerak hobetzeko laguntza gimnasiak dira, eta horiei esker bizkarrezurreko eta, orokorrean, gorputzeko minak ekiditeko. Eskaera handia dago, gustura datoz; inguruko herrietatik ere bai. Elkarte sortu zenetik ematen ditut saioak; hitzaldi bat eman genuen, lehenik, eta handik sortutako talde batekin hasi nintzen lanean".



NEREA MENDIZABAL
PSIKOPEDAGOGOA

"Gune bat da konpartitzeko eta baliabideak topatzeko"

"Elkarren arteko sostengua beharrezkoa izaten da eta komunitate bat sortzeko lagungarri izan daiteke guraso eskola. Konpartitzeko espazio bat da, baita baliabideak topatzeko ere. Esku artean dituzten kontuen gainean galdetzen dute gurasoek, eta sarri eskatzen dituzten gaiak dira seme-alaben emozioak – haserreak, frustrazioak, beldurrak...– nola kudeatu geuk eta nola lagundu umei kudeatzeko. Norberaren burua zaintzearen garrantzia ere azpimarratzen da".

zen martxan Kuku Miku. "Espazio falta, elkartzeko toki falta, hezkuntzaren gainean hausnartzeko foro falta igarri zituzten, besteak beste, eta behar horretatik hasi ziren elkartzen", azaldu du Garcia Insaustik. Beste herri batzuetako ereduak aztertu zituzten lehenengo, eta ondoren, Udalarekin jarri ziren harremanetan. Hitzarmena sinatu zuten harekin lokal bat erabili ahal izateko, eta 2012ko ekainean eratu zen elkarte. Hasieratik zehaztu zuten haurren garapenerako elkarte izango zela, gurasoendako eta umeendako topagunea, eta ez ludoteka, ezta liburutegia ere. Euskara oinarri izango zen, gainera, eta horren erabilera sustatzea ere helburuen artean sartu zuten.

Kuku Mikuren beste ezaugarrietako bat izan zen ikastetxe bati loturik ez egotea. Indargunea dela hori uste dute orain ere: "Ikastetxe ezberdinetako gurasoak elkartzen gara, beste la elkartuko ez ginatekeenak". Herrikoak bertakoak ez diren gurasoendako lagungarri dela hori diote.

Orduko helburuek bere horretan jarraitzen dute: "Familiendako elkargune bat da, arratsaldeetan edo asteburuetan elkartzeko toki bat; batetik, jendea ezagutzeko, harremanak sortzeko, umeendako espazio egoki bat izateko... Eta bestetik, gurasotasunaren bide horretan bidelagun izateko eta formakuntza eskaintzeko". Horretarako, hainbat ekintza antolatzen dituzte; batzuk iraunkorrak dira, guraso eskola, esaterako, eta beste batzuk aldizkakoak, hala nola hitzaldiak eta formakuntza saioak. Noizbehinka, familiendako edo umeendako ekitaldiak ere izaten dituzte:

Udazkenerako gertatutako egitaraua

Urriak 16, zapatua (17:30)

- **Esperimentazio gunea.** 0-4 urteko umeendako txokoak: eraikuntza-jolasak, argi-mahaia, harea... Txatxilipurdiko hezitzaileekin. Kuku Mikuren egoitza.

Urriak 20, eguaztena (17:30)

- Tailerra: *Haurren larrialdietarako lehen sorospinak.* Bea Pacho pediatriaren eta Larraitx turbe erizainaren eskutik. Komentuan.

Azaroak 5, egubakoitza (18:30)

- Dokumentala: *Haztarnak-Huellas.* Ondoren solasaldia J. Ramon Mauduitekin, Donostiako Hazi Hezi prebentzio-guneko zuzendaria. Arkupen.

Azaroak 15, astelehena (17:30)

- Hitzaldia: *Komunikazio ez-bortitza.* Txikiekin komunikatzeko gakoak lantzeko saioa Nerea Mendizabalekin. Komentuan.

Oharra: ekintzak debaldekoak dira – dokumentala izan ezik–.

ipuin kontalariak, kultura tailerrak eta abar.

Horrez gain, lan ildoen artean dute jasota herriko elkarteekin lankidetzan jardutea. Hala, Loramendirekin badute egitasmo bat abian –azken urte eta erdian etenda egon bada ere–: Auzoko Txiki. Kanpotik etorri berri diren familiak eta bertakoak hila-betean behin elkartu izan dira, elkarrekin jolastu eta arratsaldea pasatzeko.

Era berean, Udalarekin elkarlanean ere jardun izan dute, eta Hezkuntza Mahaian parte hartu.

Bi talde eratuta

Elkartearen bueltan bi talde iraunkor daude sortuta: batetik, guraso eskola dago; hamabost bat lagun elkartzen dira hila-betean behin eta Nerea Mendizabal psikopedagogo eta gizarte hezitzaileak gidatzen ditu. Hainbat arlotako gaiak lantzen dituzte, eta gurasoek dakartzaten kezak eta beharrak konpartitu.

Bestetik, haurdunaldia gertatzeko eta erditze ostean laguntzeko saioak eskaintzen dituzte, gimnasia hipopresiboak eta TAD eta 5P metodoan oinarritutako saioak. Sane fisioterapia zentroko Ane Remedios aretxabalearrak dihardu horretan eta asteen behin elkartzen da hiru talderekin.

Udazkenerako egitaraua

Elkarkea zein egoitza bera eza-gutzero emateko lau ekintza antolatu dituzte urriaren 16a eta azaroaren 15a artean. Umeendako zein gurasoendako ekintzak izango dira eta ez dago aurretik izenik eman beharrik –edukera bete arte–, ezta bazkide izan beharrik ere, nahiz eta lehentasuna izan azken horiek.

Bi milioi euro pasatxoan esleitu dituzte Santa Kurtz kaleko lanak

Sasoi Eraikuntzak enpresari eman dio Udalak ardura; azaroan hasiko dituzte, eta hamar hilabetetan bukatu

M.A. ARETXABALETA

Bost enpresa aurkeztu ziren Santa Kurtz kaleko hornidura eta saneamendu lanen lizitazio deialdira, eta Sasoi Eraikuntzak enpresari esleitu dizkio Udalak oraintsu, 2.042.544 eurotan.

Kuartel alboan hasita

Azaroan ekingo dietela lanei iragarri dute Udaletik. Kuartel zaharraren alboan dagoen erdi-biribilgunean hasiko dituzte, eta handik Kurtzabarri eskolarako norabidean jarraitu, zatika; Santa Kurtz alboan dauden ka-

leetan ere sartuko dira, horiek berritzeko. Ondo bidean, hamar hilabeteren bueltan bukatzea aurreikusita dago.

Hornidura eta saneamendu sareak ordezkatzeko gain, kalea berrurbanizatuko dute "espazio publikoak hobetzen jarraitzeko". Horrela, oinezkoentzat "atsegina" izango den kalea egokitzeko da asmoa, "irisgarritasunean eta bide segurtasunean irabaziz". Argiteria publikoaren instalazioak eta telekomunikazioarenak ere aldatu egingo dituzte, eta hiri-altzari berriak jarri.



MIRARI ALTUBE

Energiaren gainerakoak berbegai

Trantsizio energetikorako bidea eta *0 karbono* ekonomia lortzeko erronka izan zituen berbetagai Mikel Otero EH Bilduko legebiltzarkideak. Energia kontsumoa jaistea, baliabide fosilak gutxitzea eta energia berriztagarriak handitzea ezinbestekotzat jo zituen, eta garraioan, industrian eta energiaren eraldaketan dagoen kontsumoa murriztu beharra aipatu.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Nire kantuen disko labur bat egingo dut"

MIKEL ZAMORA MUSIKARIA

Askorendako sorpresa izan den arren, berak konposatutako abesti bat argitaratu du bideoklip eta guzti Mikel Zamorak. Lauzpabost kantuko diskoa ere kaleratuko du

Amaia Txintxurreta ARETXABALETA

Musika munduak betidanik erakarri izan du Mikel Zamora aretxabaletarra, baina orain artean isilpean gorde duen zaletasunak argia ikusi du. Berak sortutako *Quien me lo iba a decir* kantua argitaratu du.

Nolatan murgildu zara musikaren munduan?

Betidanik gustatu izan zait, musika asko entzuten dut eta musikazalea naiz. 40 urterekin, hau da, duela bost urte hasi nintzen kantuko eta gitarrako eskolak jasotzen Gasteizko eskola batean. Duela hiru urte, bertako Blue Painters izeneko taldearekin hasi nintzen bertsoak egiten eta konturatu nintzen abestea gustatzen zaidala eta gogoko dudala egiten dudana musika beste batzuekin partekatzea, kontzertuak emanaz.

Baina argitaratu duzun kantua zuk konposatutakoa da, ezta?

Bai. Pandemian, pixkanaka, bakarrik konposatzen hasi nintzen; melodiak lantzen eta letrak egiten. Kantu bat hasieratik bukaerara egin nahi nuen, eta, lehenengoa sortu ostean, taldekideei erakutsi nien. Askok gustatu zitzaizkion, eta animatu egin ninduten gehiago sortzera. Dagoeneko sortu ditut batzuk.

Eta estudio batera sartu zinen grabatzera?

Justu, Avant Music Center Gasteizko eskolako zuzendari Raul Verari proposatu nion eta bi kanturen ekoizpenak egin dizkit. Profesionala da, eta zorte handia izan dut. Kantu bat grabatzen hasi eta, azkenean, lau zpabost grabatu ostean, disko labur bat argitaratzeko asmoa daukat orain.

Lehenengo kantua bideoklip eta guzti argitaratu duzu.

Madriilen bideoak egiten dituen lagun bat daukat, Dejotas Leal, eta hari proposatu nion; izan ere, oso lan politak egiten ditu. Egun askotan ideia lantzen izan



Bideokliparen une batean, Mikel Zamora, mikrofonoa eskuan duela, abesten. M.Z.

"HELBURUA DA NIRETZAT ARTEA DEN MUSIKA JENDEAREKIN PARTEKATZEA ETA ZUZENEOAK EGITEA"

ginen, eta nahi nuen Degurixa, Urkulu eta inguruko irudiak ere agertzea. Beraz, hemengo paisaiak ere jaso ditugu, eta agertzen dira bideoklipetan.

Nolako harrera izan du?

Oso pozik nago sare sozialetan izan duen harrerarekin. Jende asko orain konturatu da nire pasio honetaz, baita familiako asko ere. Orain arte pausoa eman gabe neukan, eta, azkenean, nire zaletasuna partekatu dudanean, sorpresaz ere hartu dute askok.

Sare sozialek zein pisu dute zure lanak zabaltzerakoan?

Handia. Horieta igoko ditut aurrerantzean ere nire lan berriak. Instagramen *mikelmusic1* izenez aurkituko nauzue eta Facebooken eta Youtuben, berriz, *mikelmusic* izenez.

Zuzeneko eman duzu?

Oraingo, ez. Bideoklipa grabatu gurenean, abestu egin behar

izan nuen, kontzertu bat ematen egongo banintz bezala, baina, oraingo, ez dut zuzenean abestu. Egia da musikariak ere lor-tu beharko ditudala zuzenekoak egin ahal izateko, baina hori ere egingo dut. Zuzenekoak ematea asko gustatuko litzaidake; bai tabernetan, bai kalean... Gainera, nire helburua da niretzat artea den musika partekatzea jendearekin. Bestela, niretzat bakarrik sortzeak uste dut ez daukala zentzurik. Guztiak zentzua hartuko du kontzertuak ematen hasitakoan.

Gogotsu zaude?

Ilusioz, bai. Ez daukat espektatiba handirik, egia esan, baina kontzerturen bat ateratzea bada asmoa.

Diskoa zein fasetan daukazu momentu honetan?

Pixkanaka, nahasketak bukatzen gabiltza. Ideia da hilabete honen erdialdera edo bukaera aldera aurkeztea hurrengo kantua, bideoklip eta guzti, sare sozialetan. Kantuak eskuragarri jarri nahi ditut baita ere Spotifyn eta plataforma digitaletan. Disko fisikoa ateratzea ere gustatuko litzaidake; behintzat, gertukoenei saltzeko aukera hori izateko.



UDA

UDaren 75. urteurrena hasi dute

Kurtzebarri mendiko gurutze inguruak argizatuta eman dio hasiera Aretxabaleta Kirol Elkartek 75. urteurrenari. Zapatu gauean argizatu zuen taldetxo batek. *Herriaren hauspoa* leloa jarri dio urteurrenari kirol elkarteak, eta hilaren 15ean estreinatuko du izen bera daraman ikus-entzunezkoa, Arkupen, 19:30ean. 22an eta 29an ere emango dute.



NIRE USTEZ

MIKEL ARROIA

Geologia albiste

Aspaldian, La Palmako sumendia albiste bihurtu da. Telebista gehienek etxe barik gelditu direnen tragedia erakusten diguten bitartean, TV Canariasek infografia edukatibo ikusgarriak zabaldu ditu. Eskolan erabili ditugu, ezin aukera galdu. Ai, gure lurraldearen historia geologikoa irakasteko ere holako materialik bagenu...

Bai, badakit, Euskal Herrian ez dago sumendia bezalako gauza espektakularrik... Bueno, aspaldi izan genuen. 100 milioi urte dela itsaso azpian sumendia egon zen gaur egungo Eibar eta Soralue inguruan. Ondo ikusten dira orduko *pillow* labak. Aretxabaleta dagoen lurraldea ere ur azpian zegoen garai hartan eta uretan bizi ziren animalien oskolak itsaso honoan pilatuz joan ziren milioika urtetan zehar, kareharrizko geruza erraldoiak sortuz. Ondoren, Iberiako plakak Europakoarekin txoke egin eta itsaso honoan zegoen guztia altxatu zen. Kurtzebarri mila metrotik gora ikusten dira mila metroko sakoneran sorturiko geruzak. Geruza horien arrakaldetan bizi gara gu.

'Bideak' dokumentala emango dute gaur, Arkupen, 19:00etan

Artzain baten hasierako ideia batetik sortutako proiektuaren fruitua da *Bideak*. Gazta bat soinean, Nafarroako mendietan korrika, erronka batean murgiltzen da Aritz Ganboa artzaina, bere arbasoen herriak lotzeko: Sakanako Arruazu eta Erronkariko Izaba. Landa eremuari eta kulturari balioa ematea du helburu. Sarrera 3 euro da.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Panpa-belarra, jatorriz Hego Amerikakoa den landare inbaditzailea, bidegorrian; argazkian, ezkerrean. EH BILDU

Herriko ondare naturala babesteko eskaerak

EH Bilduk hiru eskaera aurkeztuko dizkio Udal Gobernuari herriko ondare naturala babesteko asmoz. Horiek Hirigintza eta Ingurumen batzordean proposatuko dituzte, ekarpenak kontuan hartzeko asmoz, eta proposatutako hiru alorretan eragiteko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduk herriko ondare naturala babesteko ekimen baten berri eman du, ingurugiroarekin kezkatuta zenbait arazo eta hobetu beharreko aspektuak identifikatuta. "Auzokide talde batek, gure ondare naturalaren egungo egoeraz kezkatuta dagoenak, egindako auzo-lanari esker, hiru ekimen

proposatu nahi ditugu, lehenbailehen gure bizigune naturala ahalik eta egoera onenean zaintzeko eta kontserbatzeko", adierazi du EH Bilduk.

Deba ibaia eta ibaiaren inguruko ertzak berehala garbitzea –sastrakak kentzea, zuhaitzak zaintzea, zaborra kentzea...–, panpa-belar landare inbaditzailea ezabatze konpromisoa

adieraztea (*Cortaderia selloana*), eta horretarako plana uztartzea, eta Bidebarrietako bidea eta Santa Anako Alberja zaharra mantentzea, txukuntzea eta zaintzea dira egingo dituzten hiru eskaerak.

Erreka garbiketa

Deba ibaiaren egoera dela-eta kezkatuta agertu dira EH Bil-

duko ordezkariak, eta azpimaratu dute premiazko lan gisa jardun behar dela sastrakak eta zaborra garbitzen. "Gaur egun Deba ibaiak duen egoera kezkarria da. Ez bakarrik errekan dagoen zaborragatik, baita ur-bazterren eta zuhaitzen egoeratik ere. Premiazkoa eta beharrezkoa da hilabete hauetan, negua iritsi baino lehen, erreka garbitzea, sastrakak kentzea eta zuhaitzak zaintzea. Prezipitazio handienera hilabeteak datoz, eta erreka eta ertzak ahalik eta garbien egon beharko lukete. Horrenbestez, Udal Gobernuak premiazko eskaera bat egitea proposatzen dugu, arduradun eskudunek ibaia eta ibai ertzak garbitu ditzaten".

Landare inbaditzailea

Panpa-belarrak (*Cortaderia selloana*) Eskoriatzako zenbait txokotan geroz eta presentzia handiagoa duela adierazita, etorkizunera begira arazoa handitu egin daitekeela uste du EH Bilduk, eta landarearen zabalkundea areagotu. Izan ere, landare inbaditzailetzat hartu da Euskal Herrian.

Espezie hori Hego Amerikakoa da, Argentinako Panpakoa, hain zuzen ere, eta hortik datorkio izena. Landarea Espezie Exotiko eta Inbaditzaileen Katalogoan sartuta dago. Horrek esan nahi du ekosistemarentzat kaltegarria dela. Adibidez, belardien kalitatea gutxitzen du, eta hori arazo larria izan daiteke baserri-arrantzat. Katalogoan sartuta dauden beste espezie guztiekin gertatzen den bezala, debekatuta dago landare hori saltzea edo landatzea. Horrenbestez, honako hau eskatzen dute oposizioko kideek: "Espezie horretako landareak kentzeko plana ezartzea

eskatzen dugu, Udal gisa atxikitzea *LIFE Stop Cortaderia*-ra, Europar Batzordeak finantzaturako proiektura; proiektu horren helburuen artean dago, besteak beste, aktore publiko eta pribatuak dinamizatzea, bai eta gizartea dinamizatzea ere, Panpako luma edo Panpa-belarra landarearen aurkako borrokan lankidetzan aritzeko, nazioz gaindiko aliantza bat sortzeko. Non jardun behar den identifikatzea –horretarako, Eskoriatzako plano bat eta argazkiak erantsi dira, landareak non dauden identifikatuta, garai honetan oso ikusgarriak baitira–, lorezaintza-enpresari ekin-tza-plan bat eskatzea, partikularrei eta enpresei –Bidegi, Ederlan, Kutxabank– informazioa ematea, titulartasun pribatuko zein publikoko lurretan batera jarduteko. Hurrengo urteetan landarearen hedapenaren eta agerraldi berrien jarraipena egitea eta Mankomunitateari eta Diputazioari jakinaraztea, jarduketak koordinatuak izan daitezten".

Bidebarrietako bidearen egoera

Bidebarrietako bidea eta Santa Anako Alberja zaharra mantentzea, txukuntzea eta zaintzea ere eskatu dute. "Bidebarrietak gaur egun duen egoera ikusita, komeni da sastrakak garbitzea eta bidea txukuntzea, eta garbigune zaharrean, bestalde, bere egituraren egoera aztertzea komeniko litzateke".

PANPA-BELAR INBADITZAILEA KENTZEKO PLANA EZARRI NAHI DU EH BILDUK

Olio bilketarako edukiontzi berriak jarri dituzte herrigunean

Plastikozko nahiz beirazko edozein motatako ontzietan sartu ahal izango da olio aurrerantzean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Etxeko olio erabilia batzeko edukiontzi berriak jarri dituzte herrigunean. Orain arte zeuden edukiontzi berdeak kendu egin dituzte, eta laranja kolorekoak jarri, Eskoriatzan zehar saka-

banatuta. Aldaketa garrantzitsuenak honako bi hauek dira: batetik, edukiontzi berrietan ez da derrigorrezkoa lehen erabiltzen zen pote berdea erabiltzea, eta olio plastikozko nahiz beirazko edozein motatako ontzi

batean sar daiteke, baina botea ondo itxita egotea eskatu dute; bestetik, sistema berri horrekin, herritarrek ez dute bueltan ontzirik jasoko.

Edukiontzi gehienak lehengo leku berean daude, baina gutxi batzuk lekuz aldatu dituzte. Hauek dira, gaur egun, olio-poteak uzteko lekuak: Aranburuzabala kalea 54, Dorleta auzoa 19, Jose Arana kalea 1, Santa Ana auzoa 9, San Pedro auzoa 17, Intxaurtxueta auzoa 2 eta Intxaurtxueta auzoa 17.



Edukiontzi berria. ESKORIATZAKO UDALA

Urkulura joango dira Tortolis ludotekakoak bizikletan

Gaur, egubakoitza, 17:00etan abiatuko dira ludotekako haurrak Urkulu urtegiara, bizikletan, neska-mutikoek ludotekariei egindako proposamena bete eta bertan jolasak egiteko asmoz. LH-3 eta LH-6 bitarteko mailetan ikasten ari diren gaztetxoek hartu ahal izango dute parte ekintzan, eta nork bere bizikleta eraman beharko du.

Literaturari eta herriko sortzaileen lanari balioa

Hainbat kultura arlori lekua eman nahi die Eskoriatzako Udalak, urriko kultura programazioari erreparatuz. Hala, literatura, zinema eta bestelako ekintza-sorta ederra prestatzeaz batera, egun bakarreko tailerrei eman nahi diete indarra

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urrirako kultura agenda betea antolatu du Eskoriatzako Udalak. Helduentzako zein haurrentzako zinema bueltatuko da Zaldibar antzokira, uztailen martxan jarritako *Ostiral musikatuak* izeneko egitasmoari jarraipena emango diote, Auzoko eta Berbalagunak egitasmoen hitzorduak zein bestelako talde, elkarte eta eragileen ekintza puntualez gain, Mugikortasun Astea eta Gaba Beltza ere antolatu dituzte, ekintza bakoitza bere egitarauarekin.

Tailerren aldeko apustua

"Mendi orientazio tailerra izango dugu asteburu honetan ekintza nagusi moduan. Jende dezentek eman du izena, eta hala koen aldeko apustua egingo dugu hemendik aurrera ere. Konturatu gara epe laburreko edo luzeko ikastaroei baino hobeto funtzionatzen dutela egun bateko tailerrekin; egun trinko batean joan, egin eta listo. Horrekin batera, zinema ere izango dugu hemendik aurrera, sarri, antzokian. Kasu honetan, zapatuan, *Ane* filma izango dugu. Bost euro ordaindu beharko dira Zaldibar antzokiko proiektzioarako, gaztelaraz izango da, eta 2020ko Donostia Zinemaldian Irizar saria jasotakoa denez, jendea animatuko dela aurreikusten dugu", adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Literaturari bere lekua

Eskoriatzako idazleek egindako lanari balioa emateko asmoz, literaturak ere izango du bere tarte Eskoriatzako kultura agendan. Urteroko Literatura Solasaldien beste edizio bat hasiko da, eta, horrekin batera, liburu aurkezpenek ere beren tokia izango dute egileen partetik. Lan horretan lehenengoa Oihana Arana eskoriatzarra izango da. Urriaren



Oihana Arana eskoriatzarra *Lazunak azkazaletan* liburuarekin. OIHANA ARANA

14an, *Lazunak azkazaletan* bere poema liburuaren gaineko aurkezpena egingo du, kultura etxean. "Oro har liburuak nahiko harre-ra ona izan duela esango nuke. Jendeari gustatu zaio, eta iritsi zaizkidan mezuak positiboak izan dira. Aurkezpenean, Leire Vargas bertsolari eta idazlea eta biok egongo gara, eta elkarrizketa formatuan egingo dugu. Galderaren eta erantzunen tarteetan, poemak tartekatzen joango gara. Hala, elkarrizketaren eta errezitaldiaren arteko nahasketa eskainiko dugu", adierazi du Oihana Arana idazle eskoriatzarrak.

**EGUN BATEKO
TAILERREN ALDEKO
APUSTUA EGINGO
DUTE, HERRITARREN
ERANTZUNA IKUSITA**

"Oihana Arana bere liburua aurkeztera etorriko da oraingoan, baina Eskoriatzan badaude beste zenbait idazle, eta horiei lekua egin nahi diegu, beraien lana azaleratzeko. Hori horrela, azarorako Xabier Oianguren eskoriatzarra gonbidatu dugu, *Assugeko Erregea* liburuari idatzi du, autoargitaratua, eta aurkezpena egiteko eskatu diogu. Aurrera begira, Jon Isazelaiari ere egin nahi diogu gonbidapena, bere eleberria aurkeztu dezan... Herriko idazleen lanak herritarren artean zabaltzea nahi dugu", adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Mugikortasun Astea

Urriaren 18tik aurrera, astebe-tez, Mugikortasun Astea izango da Eskoriatzan. Oreka bizikleta dendakoen eskutik bizi-

Kultura egitarau betea dago urrirako

Urriaren 9a, zapatua

- **10:00** Mendi orientazio tailerra, kultura etxean.
- **19:00** *Ane* filma, Zaldibar antzokian.

Urriaren 10a, domeka

- **17:00** Haurrentzako zinema, Zaldibar antzokian.

Urriaren 14a, eguna

- **19:00** *Lazunak azkazaletan* liburuaren aurkezpena Oihana Aranak, kultura etxean.

Urriaren 16a, zapatua

- **19:00** Helduentzako zinema, Zaldibar antzokian.

Urriaren 17a, domeka

- **17:30** Auto eolikoa egiteko haurrentzako tailerra, Ibarraundi museoa.

Urriaren 18a, astelehena

- **18:30** Bizikletak konpontzeko tailerra, Oreka bizikleta dendan, Intxaurtxuetan.

Urriaren 18tik aurrera, Mugikortasun Astearen barruan antolatutako ekintzak izango dira. Horrekin batera, *Mintzapoza tonbola* egongo da, *Ostiral musikatuak* hasiko dira, bertso saioa egongo da, Gaba Beltza...

kletak konpontzeko tailerra izango da, patinetan aritzeko ikastaroa, skate ikastaroa, bigarren eskuko bizikleta azoka... Horrekin batera, hilabeteari amaiera emateko, Gaba Beltza egingo da. Ludotekan zenbait ekintza egingo dituzte, Josu Ozaita antropologoa izango da Zaldibar antzokian, *Itzalitako gaba beltza berpizten* hitzaldia egiten, eta beste hainbat hitzordu ere egingo direla aurreratu du Kultura Sailak.

Auzoko egitasmoak bederatzigarren edizioari ekin dio

Eskoriatzako Udalak eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean zuzentzen duten Auzoko egitasmoak bederatzigarren ikasturteari hasiera eman dio Eskoriatzan. Oraingoan, bi saio soilik izan dituzte, eta euskal dantzak lantzen aritu direla adierazi dute Auzokokoek. Mexikarrek, sahararrek, ukrainarrek, aljeriarrek, marokoarrek eta nikaraguarrek osatzen dute taldea, eta oraingoan parte hartzaile berririk ez dagoen arren, ateak irekita dituztela jakinarazi dute. Interesdunek 661 74 63 76 zenbakira whatsapp-a bidali dezakete, kultura etxean galdetu edo auzoko.eskoriatza@gmail.com helbidera idatzi.

Literatura Solasaldien edizio berrirako irakurketak, ezarrita

Literatura Solasaldien beste edizio bati hasiera emango diote, eta, betiko moduan, gaztelezarako eta euskarazko liburuen solasaldiak egingo dira. Horiek gidatzen Monica Leiva eta Mikel Antza arituko dira, koordinatzaile, eta kultura etxean –18:00etan– aztertuko dituzten lau liburuak honako hauek izango dira: Fatima Mernissiren *Sueños en el umbral, memorias de una niña del harén* liburua, urriaren 21ean; Kepa Altonagaren *Duvoisin kapitainaren malura*, urriaren 28an; Yoko Ogawaren *La fórmula preferida del profesor*, azaroaren 18an; eta Katixe Agirreren *Amea ez dute*, azaroaren 25ean.

Karmelo Oñateren erakusketa ikusgai Los Arcos-en

Azaroaren 4tik 14ra bitartean, Karmelo Oñate ilustratzaileak egindako mendiko marrazkien bilduma izango da ikusgai Nafarroan, Los Arcosko kultura etxean. Gardatxo Mendi Taldeak antolatutako erakusketan, eskoriatzarrak egindako marrazkiak izango dira ikusgai: eskia, arroila jaitsierak, eskalada... oinarri hartuta.

Ointxe! eta Eskoriatza batuta, talde berria

Saskibaloian, senior kategoriako bigarren mailan ordezkaritza izateko hitzarmena sinatu dute Arrasateko Ointxe!-k eta Eskoriatza Kirol Elkarteak. Saski Goiena Hemen Garbiketak izenpean hasi dute denboraldia, eta lehenengo garaipena lortu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako saskibaloia saileko senior mailan jokalaria gutxierekin geratu dira denboraldi honetarako. Hori horrela, hitzarmena sinatu dute Arrasateko Ointxe! saskibaloia klubarekin, bien artean talde berri bat osatzeko. Saski Goiena Hemen Garbiketak izenpean eratu dute taldea eta dagoeneko hasi dute denboraldia.

"Senior mailan jokalaria behar geunden Eskoriatzan. Izan ere, zenbait jokalaria kanpora joan dira beraien ikasketak burutuz, eta Arrasateko jokalariekin batera talde berria eratzea adostu genuen. Lehenengo jardunaldia ondo joan da, eta bide beretik jarraitzea espero dugu", adierazi du Zuhaitz Gonzalezek, Eskoriatzako saskibaloia saileko arduradunak eta talde berriko entrenatzaileak.

Baliabideak partekatuz

Zortzi senior daude taldean: sei jokalaria Eskoriatzakoak zirenak eta beste bi jokalaria Ointxe!-ko senior kategoriakoak zirenak; eta taldea guztiz osatzeko, Ointxe!-ko gazte mailako lau jokalaria daude. Hala, Eskoriatzako sei jokalarirekin eta Ointxe!-ko beste seirekin eratu dute taldea.



Saski Goiena Hemen Garbiketak talde berria, lehenengo jardunaldian. ESKORIATZA KE

Iñaki Ogara *Arri* Ointxe!-ko kirol zuzendariak adierazi duenez, zenbait denboralditan aritu dira bi klubak formatu egokia bilatzen, eta, osatu duten modua aproposa dela adostuta, aurrera begira ere emakumezkoen saskibaloia indartzea dutela helburu adierazi du. "Taldea hau da abiapuntua, baina helburua da emakumezkoen saskibaloia indartzea Debagoienan. Entrenamenduak Eskoriatzako kiroldegian eta Musakolako kiroldegian egiten ari dira, eta partiduak, aldiz, do-

meka arratsaldeetan izango dira, Eskoriatzan".

Garaipenarekin hasita

Saski Goiena Hemen Garbiketak taldeak denboraldiko lehenengo jardunaldia jokatu zuen joan den astean, etxetik kanpora, CD Internacional Mons taldearen aurka, eta 37-57 irabazi zuen partidua. Etapa berria garaipenarekin hasi dute, eta hurrengo erronka irailaren 17an izango dute, Donostiako Luberri Base-ri Km0 taldearen kontra, etxean, 18:00etan.

Ehiza-postuen zozketak

Ehiza-postuen banaketak eguaztenean hasi zituzten, Aldaype elkartearen lokalean, Intxaurtxuetako bederatzigarren atarian, eta atzotik egin dezakete ehizan horietan parte hartu eta posturen bat tokatu zaien herritarrek. 160 postu zozketatuko dira eguaztenean, 17:00etatik 18:45era bitartean, azaroaren 17a bitartean.



IMANOL BELOKI

LEINTZ GATZAGA 21

"Aurreikuspena hamabost ordu eta erdi inguruan amaitzea da"

BEÑAT AGIRREURRETA MENDI LASTERKARIA

Bigarren aldiz egingo du Hiru Haundiak proba

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gorbeia, Anboto eta Aizkorri mendietako tontorrek zeharkatzen dituen mendi lasterketa mitikoa, Hiru Haundiak proba, izango da asteburuan. Aurtengoa 22. edizioa izango da, eta erresistentzia handiko proba zapa-tuan 00:00etan hasiko da eta egun bereko 24:00etan amaitu. Parte-hartzaileek 101,6 kilometro egin beharko dituzte, 5.126 metroko desnibel positibo metatuekin, eta 1.000 parte-hartzailek helduko diote erronkari. Gatzagak ere izango du bere ordezkaritza; izan ere, Beñat Agirreurreta arituko da, Gatzagako parte-hartzaile bakarra.

Prest zaude erronkarako?

Eguraldi freskoa iragarri dute, eta euririk ez badu egiten ondo joango delakoan nago. Ondo prestatu naiz lasterketarako, eta garrantzitsua jana eta edana ondo kontrolatzea izango da. Pazientzia izatea, burua hotz mantentzea eta beheakada momentuei aurre egitea; azken honetan dago gakoa.

Laguntza ezinbestekoa da halako lasterketetan?

Anoa-postuetan beti izango ditut lagunak. Horrekin batera, Landatik aurrera Asier Urizar herrikideak lagunduko dit, eta, amaiera aldera, Urbiatik aurrera Aratz Oñederra laguna etorriko da nirekin batera.

Zein aurreikuspen dituzu?

2018an egin nuen lehenengo aldiz, eta orain, bigarren aldiz egingo dut. Nire asmoa hamabost



Beñat Agirreurreta gatzagarra. GOIENA

ordu eta erdi inguruan amaitzea da, eta, helburu finko barik, lasterketa bukatzen badut ondo, eta denbora horren aurretik eginez gero, hobezin.

Ibilbidearen zatirik gogorrena zein izan daiteke, zure ustez?

Denbora asko galdu daiteke Anbototik Landara bitartean. 20 kilometro dira, eta, lasterketaren 40. kilometroa izanda, erritmoa jaitsi eta azken kilometroak oso luzeak egin daitezke. Horrekin batera, eolikoak zeharkatzea ere luzea izan daiteke, baina erritmoa mantendu behar da, eta aurrera egin.

Errekuperazioa ere garrantzitsua izango da, ezta?

Noski. Proba osteko astea lasai hartuko dut, eta lasterketa aurretik eta lasterketan zehar bezala, ondo jan eta ondo edan. Hala, apurka-apurka errekupe-ratzeko.

Lutodekako ikasturte berrirako plangintza prestatu dute

Joan den astean, Leintz Gatzagako Gurel Guraso Elkarteak zenbait kidek batzarra egin zuten, herriko ludotekako ikasturte berrira begira ekintzen proposamenak egin, helburuak finkatu eta plangintza prestatzeko. Hala, horrekin batera, begirale bila aritu dira denbora batez, eta herriko gazte baten aldeko apustua egin dute. Hain

zuzen ere, Gorka Zubillaga gatzagarra izango da ludotekako begirale berria.

Ludotekako zerbitzua azaroan hasiko da, eta maiatzera bitartean, egubakoitzero eskainiko dute haurrentzako aisialdi eskaintza, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Esan moduan, Gorka Zubillagak izango du ludotekako ardura, eta, gaztetxoekin egin daitezkeen ekintzak prestatzeaz batera, beraiekin batera adostutako ekintzen aldeko apustua ere egingo dute.

"Larramendiko plantak ez du usainik sortuko kanpoaldean"

JUAN JOSE HERNANDEZ SAMANIEGO GREENE ENPRESAKO ZUZENDARI NAGUSIA Azaroan dira hastekoak planta berriko lanak; Hernandezek luze eta zabal erantzun dio GOIENARI: "Ingurumenari dagozkion txosten guztiak alde izango ditugu abiatu aurretik"



Greene-ko zuzendari Juan Jose Hernandez, Alacanteko bulegoan, asteon. GREENE

Jokin Bereziartua BERGARA

Greene enpresaren sortzaileetako bat eta gaur egungo zuzendari nagusia da Juan Jose Hernandez Samaniego (Alacant, 1975). Larramendiko plantak izango dituen ezaugarriei eta onurez dihardu, besteak beste. **Zeintzuk izango dira planta berrien abantailak? Eta desabantailak?** Abantaila nagusia da modu jasagarrian tratatuko direla papera ekoiztean sortutako lohiak eta azpiproduktuen nahasketa bat, paper-errefusa izenekoa. Bi material horiek paper-industriaren ekoizpen-prozesuan lortzen dira, eta orain arte zabartegia zen haien azken geltokia. Planta berriari esker, ekonomia zirkularraren ereduaren sartuko dira eta lehengai jasagarri berri bihurtu. Beraz, urtean 122.000 tona hondakin zabartegira ez botatzeko balioko du, eta atmosferara urtean 150.000 tona CO₂ isurtzea saihestuko da. Desabantaila nagusia da plantaren amortizazio-epea 15 urtekoa dela, eta haren etorkizuna paper-industriaren garapen onari lotuta dagoela, bezero eskusiboa da eta. **Ze jarduera jarriko duzue abian?** Paper-industriako material bartzertuak –lohiak eta paper-errefusa– eraikuntzan eta kimika industrialean berrerabiliko dira. Gure teknologiarri esker egin daiteke hori, termo-konbertsio prozesu jasagarria, ekonomia zirkularraren parametroak eta

2030erako horizonte betetzea ahalbidetuko duena.

Bi prozesu dira. Zeintzuk, zehazki? Lehen prozesuan, paperaren errefusak prozesu termokimiko bat izango du, oxigenorik gabekoa, non gas erregaia lortzen den. Gas hori erabat garbitzen da hainbat prozeduraren bidez, konposatu kutsagarriak deuseztatze, eta iragazi egiten da, partikula solidoak ezabatze. Behin gas garbia dugunean –gas naturalaren antzekoa–, energia ekoizteko erregai gisa erabiltzen dugu, eta instalazioaren auto-konsumorako baino ez da erabiliko. Hala, lohiak lehortzeko erregai fosilak erabiltzea ekiditen dugu. Bestalde, lohiak tenperatura moderatuak jasango dituzte kaltzio karbonato bihurtzeko. Kaltzio-karbonatoa naturan da-

goen konposatu bat da, eta agente zuritzaile eta errefortzu-karga gisa erabiltzen da paperaren eta pinturen industrian.

Bizilagunek badute kezkatu beharrik plantaren inpaktuaz?

Inpaktu bisualari dagokionez, Udalarekin lanean ari gara alderdi hori minimizatzeko, itxituretan arreta berezia jarritz, eta partzelaren mugetan landaredia jartzea aurreikusten da. Tratatu beharreko materialak ez dira inoiz ikusgai egongo, pilatzeko propio diseinatutako espazioetan

"INPAKTU BISUALA MINIMIZATZEKO, LANDAREDIA JARRIKO DUGU PARTZELAREN MUGETAN"

egongo dira; beraz, ez da usainik sortuko. Planta berriak ingurumen-inpaktuari buruzko aldeko txosten guztiak izango ditu abian jarri aurretik; une honetan, espazio-fasean dago.

Aurrekaririk gabeko planta da?

Proiektu bakarra da nazioartean, ekonomia zirkularraren kontzeptua ezartzen du-eta paper-prozesaketako gaiak aprobetxatzeko. Egun zabartegian edo errausketan amaitzen duten paperaren industriako azpiproduktuak kudeatzeko irtenbide integral, iraunkor eta errentagarria bultzatzea da helburua.

Zertarako sortu duzue Valogreene?

Valogreene Paper BC da Larramendiko planta eraiki, operatu eta kudeatzeko sortu den enpresa. Greene da teknologia jarriko duena, eta Euskadiko hainbat

inbertitzaileekin elkartu da martxan jartzeko.

Ze eperekin ari zarete lanean?

Obrak 2021eko azaroan hasiko dira, eta planta 2023ko lehen hiruhilekoaren amaieran martxan egongo da. Partzela ia 18.000 metro koadrokoa da, eta horietatik 12.000 metro koadro eraikiko dira; gainerakoa guner berdeekin urbanizatuko da.

Ezer gaineratu nahi duzu?

Hondakinetatik abiatuta, ekonomia zirkularreko eredu berriak zabaltzeko zentro bihurtu nahi dugu planta berria. Ikasleen bisitak izango ditugu, mota horretako hondakinak balio erantsi handiko produktu bihurtu daitezkeela eta Europar Batasuneko 2030 Agendak ezartzen dituen parametroak bete ditzaketela jakin dezaten.

"Informazio zehatzagoa" nahi dute

Greene enpresak Elxen (Alacant) duen planta bisitatu zuten astelehenean Gorka Artola alkateak, EH Bilduko Juan Luis Gonzalezek, EAJko Lander Arregik, Uberako alkate Gorka Buruagak eta Embalan enpresako Ion Alberdik. Bergaran garatutako den prozesuaren zati bat ikusi zuten eta galderen artean errepikatu zenetako bat izan zen ea zarata edota usaina sortuko

dituen jarduerak. "Enpresako arduradunen hitzetan, ez litzateke halakorik sortu behar. Udalak, hala ere, eskatu zien gertu izateko kontingentzia plan bat, eta horretarako konpromisoa hartu du Valogreene", adierazi dute Udaletik. Eguaztenean beste batzar bat egin zuen Udalak auzotarrekin, izan ditzaketenez kezka, zalantza eta galderak batu eta Greene enpresari helarazteko.



Gonzalez, Artola, Buruaga, Alberdi eta Arregi, Alacanten, astelehenean. GREENE



GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA



Azken hilabeteetan harra-patuta izan gaituzten olatu-tuetatik urrun, bestelako olatua dakar udazkenak Goiena telebistaren seinalea jasotzen duten etxeetara: eduki berriz ziprztinduko ditu harekin bat egiten duten ikus-entzuleak.

Larraitz Zeberio aurkeztuta, orain artekoa eta gehiago jasoko du saioak. Izan ere, astelehene-tik egubakoitzera, egun bakoitzak bere bereizgarri bihurtuko den tarte bat izango du eta, astero pauso berri bat emanez, ibilbide oparoa egingo du horietako bakoitzak.

Tarte finkoa egunero

Astelehenetan, Txomin Madinak gidatutako *Izenen izana* izango da: Debagoieneko abizenen jatorria eta horien bueltako bitxikeriak ezagutzeko ez ezik, gure herrietako toki izenek ezkututzen duten historian murgiltzeko bide emango duen tarte. *Akordeak* erreportaje sortak musika jarriko dio martitzenetan saioari: Aitziber Aranburuzabalak bailarako musikariak ezagutzera eta euren kantuez gozatzera gonbidatuko ditu ikus-entzuleak.

Eguaztenetako saioak *0km gida*-ren zigilua izango du denboraldi berri honetan ere, eta ikus-entzuleek Debagoiengan bertan ditugun komertzio eta negozioak ezagutzen jarraitzeko aukera izango dute, Jone Olabarria gidari dutela. Eguenetan,



Denboraldi berriko aurkezlea, Larraitz Zeberio, eta saioan parte hartuko duten kolaboratzaileak. JAGOBA DOMINGO

'Hemen Debagoiena' saioa, eduki berrieekin eta itxuraldatuta

Urria aurpegi eta erreportaje-sorta bereziarekin abiatuta, dekoratua aldatuta ikusiko dugu saioa datorren astetik aurrera. Larraitz Zeberio aurkezleak lantalde zabala izango du alboan, bailaran gertatzen denari hurbileko jarraipena egiteko

Eneko Azurmendiren deia jaso-ko dute munduan barrera dabil-tzan debagoiendarrek, bizitoki duten horri buruzkoak kontatzen. Eta astea borobiltzeko, *Luzapena*, Mireia Bikuñarekin, beste kirol eta kirolari batzuei tokia egiteko xedearekin.

Komunitatearen ekarpena

Horiek izango dira nobedade nagusiak, baina ez bakarrik: askotariko arloetako adituek euren alea jarriko dute eguazte-netan, nork bere esparrukoak hizketagai hartuta. Eta eguene-tan, astebururako antolatuta dauden kultura hitzorduen arte-tik bat aukeratzeko eskatuko diegu era batera edo bestera kultura arloko diziplinaren batean murgilduta dabilzan komunitate-ko kideei.


Ordubeteko saioan segituko dute tokia izaten eguneko albisteek, elkarrizketek eta errepor-tajeek; sare sozialek, GOIENA aldizkariaren, *Puntua*-ren eta *Ttapa!*-en erreposoek, eta herrie-tako berriemaileek kontatzeko dituztenek. Astelehenetik egubakoitzera, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan. "Aurkezlea aldatu egin dugu, tarte bereziek garrantzia hartu dute eta, bestalde, platoan ere egin ditugu egokitzapenak; horiek nabaritutako dituzte ikus-entzuleek saioak egunero ikusi ahala", dio Goiatz Aranak, *Hemen Debagoiena* saio-ko editoreak.

Zelan ikusi Goiena telebista



Antena bidez

Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan, 25. kanalean.



Euskalteleko kable bidez

Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoiengan, hamaikagarren kanalean.



Nahieran 'Goiena.eus' atarian

Goiena telebista nahieran ikusteko aukera dago *Goiena.eus* atarian; zuzeneko zein norberak aukeratutako saioa nahieran.



Harmailatik saioko aurkezle Xabier Urzelai, telebistako platoan. NEKANE MUÑOZ

Kirol hitzorduei dagokien protagonismoa itzultzeko asmoz

Pandemiaren txarrena gaindituta, 'Harmailatik' saioan ligak eta lasterketak errekeratuko dituzte

Ikasturte hasiera honek ez du iazkoarekin zerikusirik. Liga txapelketa guztiak normal hasi dituzte eta bailara mailan antolatzen dituzten lasterketak ere hasi dira agendetara itzultzen. Oraindik badira hutsuneak (Ikus 39. orria), baina asteburuan egingo dute Hiru Haundiak proba, Aloñako Igoera urriaren 17an egingo dute eta Behobia-Donostia proba herrikoia osterara ere itzuliko da. "Eta horiek badira normaltasunaren seinale", adierazi du *Harmailatik* saioko aurkezle Xabier Urzelai.

Iaz 'Harmailatik' egokitua

Izan ere, iazko ikasturtean *Harmailatik* saiok egokitu egin behar izan zuen. "Edukiak berriro egin ziren, garai bateko kirolariei eman zitzaizkien protagonismoa, inoiz baino erreportaje gehiago ere egin ziren, baina ez horrenbeste agendari lotuta. Kirol jarduerak asko bertan behera geratu ziren eta. Orain, berriz, kirol jardueretara itzuli gura dugu, lasterketak, Debagoieneko kanxetara; eta astelehenero, asteburuak eman duena erreparatu dugu".

Musikaren agertoki izango da Goiena, zuzenekoak osorik jasota

Kooltur Ostegunetan ematen dituzten kontzertuak eskainiko ditu Goiena telebistak egubakoitzero

Asteon abiatu du Kooltur Ostegunak bere eskaintza. Denboraldi berria hasteko ardura La Excavadora talde arabarrak izan du. Talde berri samarra da, baina eskarmentu dezente musikariek osatutakoa. Hurrengo egubakoitzean ikusi ahal izango da La Excavadora taldeak Arrasateko gaztetxean emandako kontzertua telebistan. Ondoren etorriko dira Mice, Sonic Trash eta Joseba Irazoki eta Lagunak. Kooltur Ekintzak elkartearen eta Goienaren arteko elkarlanaren emaitza da,



La Excavadora. KOLDO EIZMENDI

eta Iker Barandiaran Kooltur Ekintzak elkarteak kideak haxe adierazi du: "Jendeak taldeak ezagutzeko beste aukera bat eskaintzen dugu, Goienak kontzertua eskainita".

Bestalde, urriaren 30ean, Arantzazuko Goiko Benta jate-txearen ganbaran oso kontzertu berezia eskainiko du Mikel Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak. Latzenen hasi eta talde askotan ibili ondoren, 2016an ekin zion Iker Martinez oñatiarrak bakarkako proiektuari. *Itzalen mundua* argitaratu zuen 2017an eta *Lurralde berriak* 2019an. Irailaren 17an aurkeztu zuen hirugarrena, *Hegaldiak*. Lokalizazio zaindua eta kontzertu eskusiboa Goienakide diren bazkideei eskainia. Kontzertu hau Goiena telebistak ere eskainiko du, azaroan.

Herriko gaiak eztabaidagai udal ordezkariekin 'Harira' saioan

Goiatz Aranek eta Eneko Azkarate gidatzen duten saioa bueltan da, eta, ohiko ildotik, ahotsa emango die herri ordezkariak: alkate, zinegotzi, diputatu, sailburu, legebiltzarkide, batzarkide, erakunde zein elkarteetako arduradunak...

Oraingoan, Eneko Azkarate aurkeztuta, urriaren 19an hasi eta Gabonak arte, Debagoieneko

alkate eta zinegotziak izango dira protagonista. Mahaiaren bueltan elkartuko ditu GOIENAK, agintaldiari errepasoa egiteko: zer egin den, zer ez, zer geratzen den egiteko; ikuspuntu ezberdinak jasoz. Herriarrek aukera izango dute galderak bidaltzeko: berriak@goiena.eus helbidera edo 688 69 00 07 zenbakira, WhatsApp zein Telegram bidez.



Eneko Azkarate. JAGOBA DOMINGO

Bestelako olatua: gertuko informazioak eta entretenimenduak leku zabala izango dute Goiena telebistan

Gertukoa eta gertutik kontatuta. Batzuetan, egoerak eskatzen duen tonu serioagoarekin; beste batzuetan, umoretik. Beti, debagoiendarrak protagonista direla



Hemen Debagoiena

- Egutero
- 18:00/20:00/22:00

Larraitx Zeberioi egutero, astelehenetik egubakoitzera, aurkeztu duen magazina da. Denboraldi berrian hainbat nobedade izango ditugu *Hemen Debagoiena* saioan. Lantalde zabala arduratzen da egutero saio honetako edukiekin, eta aurtu ere tarte bereziak izango ditugu: *Izenen izana*, *Akordeak*... Gertuko gaiak eta gertutik landuko dira, eta debagoiendarrak izango dira protagonista.



Albisteak

- Egutero
- 14:00/15:00/16:00/17:00

Egutero albisteak jasotzen dituen informatiboa egutero izango dugu. Aurtu, nobedade nagusia ordutegi aldaketa da; izan ere, 14:00etan izango dugu albistearen lehen emisio ordua. Orduo emitituko da, *Hemen Debagoiena* saioa hasi artean. Astelehenetik egubakoitzera egutero albiste nagusiak jasoko dira *Albisteak* saioan. Asteburuan, aste albiste nagusien erreparazioa, *Asteko erreparazioa* saioan.



Harmailatik

- Astelehena
- 21:30/23:30

Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen astelehenetako saioa da. Xabier Urzelai kirol kazetariak aurkeztu du. Berezi, asteburuko kirol hitzorduen erreparazioa zabala egiten du saioan, eta, gainera, asteleheneko kirolari bat elkarriketatzen du platoan. Tarteka, kirol ekitaldi konkretu baten saio bereziak ere eskainiko dira: Aloñako Igoera, Behobia-Donostia eta abar.



Harira

- Martitzena
- 21:30 eta 23:30

Eneko Azkarate Goienako edukietako zuzendariaren saioa da. Elkarriketa zein eztabaida saioa. Sasoi berri honetan, Debagoieneko herrietako udal ordezkariak izango dira mahaiaren bueltan. Herri herri, eztabaidagai eta herritarrendako garrantzitsuenak diren gaiak ekarriko dira mahai gainera. Herriarrek ere parte hartzeko aukera izango dute, herri ordezkariendako galderak bidaltuta.

Musika urbanoaren ilunpeko loraldia

Gazte askoren musika estilo gustukoenak diren rapa, trapa eta reggaetona aztertu dituzte Xabier Gorostidik eta Jagoba Domingok ikus-entzunezko berezian. 'Hemen Debagoiena' saioan zatika eta oso-osorik ere emango du Goiena telebistak urrian

Debagoieneko gazte askoren artean musika estilo gustukoenak bihurtu dira rapa, trapa, drilla eta reggaetona. Gazte sortzaileen loraldi bat gertatu da. Ibilbide laburra izan arren, 20tik gora sortzaile daude gaur egun; ia guztiak gizonezkoak dira, eta gehienek gaztelera hutsean abesten dute.

Ez da soilik musika estilo aldaketa hutsa. Musika ekoizteko, kontsumitzeko eta plazaratzeko moduak irauli ditu olatu berriak. Bolada berri honetako musikariek ez dute apenas kontzerturik egiten. Youtubeko ikustaldiak eta Instagrameko jarraitzaile kopuruak dira arrakastaren neurtzaile. Mugimendua gertutik jarraitzen ez dutenen artean, oharkabean gertatu den eztanda izan da; ilunpeko loraldi moduko bat.

Mugimenduaren nondik norakoak ezagutzeko, musikari hauen hitzak batu ditu dokumentalak: Martin Errasti *Tatta*;



Jagoba Domingo irudiak hartzen Pxi-ri eta Ekso-ri, Aretxabaletan. XABIER GOROSTIDI

Iker Hiriarte *HRT* eta Xadi Ayastuy; Janire Davila *Janda*; Mikel Egia *Ekso* eta Markel Bengoa *Pxi*; eta Hodei Vicario *Denso* ekoizlea. Horrez gain, musika aditu hauen ikuspuntuarekin osatu da: Ainhoa Vi-

toria, Gazteako esataria; Iñaki Bengoa, soinu teknikaria eta; Nerea Loron *La Furia*, rap abeslaria. Dokumentala *Hemen Debagoiena* saioan zatika eskainiko da urriaren 13an, 20an eta 27an; eta 29an, oso-osorik.



ETAk armak utziko zituen iragarpena egin zueneko. GOIENA

Zortzi ahots, ETak armak utzi eta hamargarren urteurrenean

Presoez eta biktimez, bizikidetzaz, kontakizunaz eta arazo politikoaz dihardu Goienaren ikus-entzunezkoak

Urriaren 20an beteko dira hamar urte ETak armak behin betiko uzten zituela iragarri zuenetik, eta, mugarri haren hamargarren urteurrena aitzakia, ikus-entzunezkoa ekoiztu du Goienak.

Bi eratako protagonistak izango ditu saioak: batetik, Debagoieneko jendea; Euskal Herri mailako politikariak, bestetik. Eta urte askoan gatazkaren ingurukoak sakonean jarraitu zituen Imanol Murua Uria kazetaria ere bada, tartean.

Debagoieneko elkarriketatuei dagokienez, Arrasateko eta Oñatiko zinegotzi sozialista ohi

Blanca Roncalek, *Gogoan, por una memoria digna* elkarteko Xabier Mugartza oñatiarrak, Elena Laka abokatuak eta Joseba Arregi preso oñatiarraren emazte Nekane Basaurik dihardute presoez eta biktimez, bizikidetzaz, kontakizunaz eta arazo politikoaz, besteak beste.

Antzerako gaiak darabiltzate Jesus Egiguren sozialistak, ezker abertzaleko Floren Aoizek eta EAJko Xabier Barandiaranek ere, ETaren iragarpenaren biharumenean prentsan egin zituzten analisi eta aurreikuspenak zenbateraino bete diren aztertuz.



Osoko bilkura

- Zapatuan 19:00
- Domekan 12:00 eta 22:00

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko hileroko osoko bilkurak, herri horretako berriemailearen eskutik. Hileko lehen martitzetnetan izan ohi dira Arrasaten, eta Eneko Azurmendi izango da bertan. Bergaran hileko azken astelehenean egiten dituzte, eta horiek jarraitzen Jokin Bereziartua kazetaria izango da. Oñatikoak, hileko azken egue-nean, eta Oihana Elortzak emango digu horien berri.



Elkarriketap

- Martitzena
- 21:30 eta 23:30

Euskal Herriko pertsona ezagunak ezagutzeko aukera ematen digun saioa. Hainbat diziplina-tako pertsonaiak –musikariak, kirolariak, aktoreak...– izango dituzte aurrez aurre izen handiko hainbat kazetarik: Juan Kruz Lakastak, Joni Ubedak, Ane Zabalak, Idoia Torregaraik... *Ttap* aldizkari multimediarekin elkarlanean ekoizten den saioa da; beraz, telebistan ez ezik, *Ttap* aplikazioan ere eskura.



Bixi ibili!

- Eguena
- 21:30 eta 23:30

Aitor Agirianok gidatuko duen umorezko saioa izango da eguenero ikusi ahal izango duguna. Horixe izango da, entretenimenduari dagokionez, nobedade nagusia. Aurrez, *Hemen Debagoiena* saioan bazen *Zirikatzen* izeneko atala. Atal horren arrakastaz jabetuta, formatu luzeago eta entretenigarriago baterako urratsa egin da: ordu erdiko saio freskoa. Adi egon Aitorrekin tril eginez gero!



Kooltur

- Egubakoitza
- 23:00

Kooltur Ekintzak taldearekin elkarlanak jarraitu egingo du eta Kooltur Ostegunak saioetara ekarriko dituzten artisten emanaldiak Goiena telebistak grabatuko ditu. Aurtengoari atzo bertan eman zioten hasiera, La Excavadora talde arabararekin. Datorren astean, Mice taldearen txanda izango da, eta ostean igoko dira gaztetxeako agertokira Sonic Trash eta Joseba Irazoki eta Lagunak.



Erreportaje bereziak

- Hilean behin, osteguna
- 21:00 eta 23:00

Sasoi berri honetan ere, hainbat gai sakonago eta mimoz landuta dotoz erreportaje formatuan. Urrian bi izango dira eskainiko direnak. Lehena, urriaren 20an, ETaren su etenaren 10. urteurrenean. Hainbat testigantza jaso ditu Julen Iriondok erreportaje horretan. Hil amaieran, berriz, momentuko musika panorama berriaren gainekoa ikusgai, Xabier Gorostidiren eta Jagoba Domingoren eskutik.

Aitor Agiriano, *Bixi ibili!* saiko aurkezlea.

'Bixi ibili!': martxan da herrien arteko tribial-pikea

Euskaraz, umoretik jolasean arituta, herritarrak xaxatu eta tokikora gerturatzea izango du helburu galdera-erantzunen saio berriak. Baita, 'zero kilometroa' oinarri hartuta, ibarreko komertzio eta merkataritza taldeak herrira gerturatzea ere

Debagoiena osatzen duten herri guztiek izango dute isla hainbat atalez osatuta egongo den saio berrian. Aitor Agiriano izango da aurkezlea eta astero izango dute ikus-entzuleek hitzordua, eguenetan, 21:30ean, Goiena telebistan. Denboraldiko atal bakoitzean, herri bat izango da protagonista, eta bertako herritarrak bizitoki duten herriaren alde arituko dira nor baino nor gehiago lehian: "Mugakide diren udalerrien arteko pike sana oinarri, bailarako hainbat kontu ezagutuko ditugu modu entretenigarrian".

Baietz hamar!

Zoriz hautatutako hamar galdera asmatu beharko dituzte herri bakoitzean lehian arituko diren herritarrek: "Ohiturak, tokian tokiko hitzak eta udalerri bakoitzeko berezitasunak jasoko dituzte horiek. Parte-hartzaile bakoitzak galdera bakarrarekin jardungo du lehian eta erantzuteko aukera bakarra

izango du. Erantzuna argi ez duten kasuetan, komodina erabili ahal izango dute; poltsikoko telefonoarekin lagun bati deitzeko aukera izango dute, edo inguruan pasatzen denari aholkua eskatzeko aukera. Denboraldi amaieran, herrien arteko rankingak adieraziko du Debagoieneko zein herri dakien gehiago".

Komertzioak plazara

Bertako dendeak ere izango dute lekua. Astero komertzio batera gerturatu eta ezagutza eman die saioak herritarrei. Baita bertan eskura dituzten produktuen berri eman ere. Produktua bera izango da gero herritarrekin lehiaketa bat egiteko aitzia

URRIAREN 14AN ESTREINATUKO DA SAIOA ETA ARRASATE IZANGO DA LEHEN PROTAGONISTA

kia. Dela buzkantza batzuk, gazta bat, pisura hartutako risottoa eta abar. "Zoriz hautatutako bi herritarrek parte hartuko dute jolasean eta produktua zenbat pisatzen duen asmatu beharko dute. Apustua eginda, pisua asmatzen duena izango da irabazlea. Gainera, tarte honek saria izango du. Eta biek ala biek eramango dute sari bana". Irabazleak merkataritza elkarteari edo Udalaren eskutik herrian bertan gastatzeko 50 euroko bonu bat eskuratu du. Beste parte-hartzaileak, berriz, produktua bera jasoko du saritzat.

Kalea plato bihurtuta

Dekoratu ibiltaria izango du *Bixi ibili!* programak. Debagoieneko udalerrietako txoko eta bazterrak, egunero bizia ematen diegun horiek izango dira platoa irudiz jantziko dutenak. Hala, ezustean harrapatuko ditu Agiriano herriarrak, kamera eta mikroa eskuan dituela.

"Kaleak ematen duen bizitasuna eta freskotasuna jaso nahi dugu"

AITOR AGIRIANO 'BIXI IBILI!' SAIOKO AURKEZLEA

Herritarrak alboan zituela ikusi dugu Agiriano *Zirikatzen* tartarekin. Hemendik aurrera ere, formatu berriarekin baina debagoiendarrak izango ditu protagonista eta bidelagun aurki estreinatzearen den saioan.

Kalean gora eta behera ibiliko zara hemen ere...

Hala da, bai. Kalean sortzen diren saltsa guztietako perrexila izaten jarraituko dut; gustura, gainera.

Jendeak nola hartzen zaitu?

Orokorrean, umoretsu hartzen gaituzte, eta plazera da niretzako hori. Orokorrean, esan nahi dut, kalean elkar topo egiten dugunean egun kaskarra duenarekin ere egiten dugulako topo. Horiei eguna alaitzen saiatzen gara, nahiz eta beti ez dugun lortzen. Baina, nik dakidala, inor ez zaigu oraindik haserretu.



IBAI ZABALA

Zein herritan animatzen dira gehiago bixi-bixi jolasean egitera?

Egia esan behar badut, nagusiki, herri handietan ibili gara orain arte *Zirikatzen* tartarekin, eta, lehenago edo geroago, animatu ditugu galdera xelebreekin jolasera. Ezingo nuke bat aukeratu. Oraingoan, baina, iritsi ez garen herri txikitara ere helduko gara, eta orduan ikusi beharko da zein izango den argien eta bixien ibiliko dena.



Bi emakume Arrasateko plazan, sakelakoa eskuan dutela. IBAI ZABALA

Konektatu eta jolastu non-nahi

Saioan barrena arituko diren protagonisten eran jolastu ahal izango da edonor *Goiena.eus* atarian egongo den *Bixi ibili!* tartean. Debagoienarekin lotura duten bitxikerien bueltako hiru galdera izango dira erantzuteko astero. Galdera bakoitzak hiruna erantzun posible izango ditu eta zuzena dena hautatu behar izango du online konektatuta jolastera animatzen den orok. "Kalean topo egin dugun herritar askok esan digute pantailaz bestalde jolastu direla gurekin. Lagunartean, familian edo bakarrik, baina *Zirikatzen* tartarekin gozatu ederra hartu dutela. Hala, hitz horiei bizia eman nahi izan diegu, edonori jolasteko aukera emanez". Sakelakoarekin, tabletarekin edota ordenagailuarekin edonon egonda ere, norbanako bakoitzak bere burua proban jartzeko aukera izango du horrela.

Eskola berrituta, uberar berriak ekartzea erronka

Uberako eskola-etxe berritua inauguratu dute, Udalak eta Jaurlaritzaren Erein programak finantzatu duen ia 260.000 euroko inbertsioarekin; jende gaztea erakartzea izango dute orain erronka nagusia, auzoaren etorkizuna bermatzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Inauguratu dute Uberako eskola-etxea berritua, auzotarrendako topagune nagusia dena. Urte askotako lana izan da; izan ere, konponketak sarri egin dira izan dira, baina ez ziren nahikoa. Azkenean, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Erein programak egindako ekarpenarekin bideratu ahal izan dituzte lanak; ia 260.000 euroko inbertsioa ekarri du. Plaza ere konpondu zuten aurreko agintaldian, eta frontoia ere margotu dute.

Buruaga: "Pozarren gaude"

Eskola-etxearen berritzeak etorkizuna dakar auzotarrendako, Uberako alkate Gorka Buruagaren arabera: "Pozarren gaude. Eskola-etxean egiten ditugu ekin-tza guztiak, eta lasaitu ederra hartu dugu obra gauzatzeko aukera izan dugulako; epe luze-rako etorkizuna dakar eskola-etxea behar den moduan izateak". Auzoko sentimendua garrantziaz ere badihardu Buruagak; bereziki, gazteen artean: "Eskola zaharrean ibilitakoa naiz eta uberar izatearen sentimendu indartsua daukat. Aldiz, Uberan egunerokoa egiten ez dutenek askoz lotura txikiagoa dute; egoera horri buelta eman behar diogu; zaila izango da, lan



Auzotarrak eta Bergarako eta Elgetako udal ordezkariak izan ziren irekieran. M.A.

hori ez delako diruarekin lortuko, baina gure eginbeharretako bat izango da".

Jende gaztea erakartzea

Auzotarrekin batera, Bergarako eta Elgetako egungo eta lehengo udal ordezkariak ere izan ziren ekitaldian. Bergarako alkate Gorka Artolak auzoa biziberritzearen garrantziaz jardun zuen eta jende gaztea Uberara erakartzeko plan orokorrak ematen dituen aukerak aipatu zituen: "Etxebizitza familia bakarrak izan daitezke aukera bat, jabetza

pribatukoak; horiek euren garapena izango dute, izan behar badute. Baina badaude beste partzela pare bat, bat kanpoko promozio batetik eratorri daitezkeen etxebizitza tasatuekin eta beste bat babes ofizialeko etxebizitzekin; azken horiek Udalaren partzela baten daude eta ikusi beharko da ze aukera berri sor daitezkeen. Eperik ez dago, baina uberarrei aukera horien berri eman diegu. Herriko beste auzoetara ere jende gaztea erakartzeko ekimenak sustatzearen alde gaude".



NIRE USTEZ

ASIER ELORZA

Kristo erruki

Aurrekuan, txakur kaken arazua konpontzeko irtenbidia azaldu neban, eta orainguan, lagun gehiago egiteko asmuakin, beste mokordo bati buruz idatziko dot. Ni munduko erregia banintz, amasantu lesbiana bat izendatziakin batera, Patxi aitta santua eta bere *papanata* guztiak mingainakin relikiak garbitzen ipiniko nittuzke. Gizartea etengabe aldatzen ari da eta hauek ez dute ezer aldatu 2.000 urtean. Ez dotseu ezer exijitu behar? Neurtzeko bi modu dauzkagula dirudi, haiek gizartetik kanpo baleude bezala. Nola onartzen dugu elkarte pribatu matxista honek jasotzen dituen abantaila eta laguntza guztiak? Beste edozein elkarteri onartuko genioke? Eta guk, kasu askotan, gure seme-alabak inskribatu eta filibustero hauen eskuetan lagatzen ditugu. Eliza guztiak musika areto bihurtzeaz gain –Seminarixokoak baino eserleku erosoagoekin–, kristautu zituztenak bezala, *fila indian* jarriko nittuzke apaiz pederasta eta beraiek babestu zituzten fariseo guztiak eta *ostia* ederrak banatuko nitzkieke; eta ez barkilozkuak... Amen ez. Eman! Eta argi geratu dadila ez daukadala ezer goikoaren kontra. Kristo erruki!

OHARRAK

Elosuko feriarik ez da egingo urriaren 12an

Bigarren urtez jarraian ez da egingo. Arrazoa da, Elosuko alkatearen arabera, "auzolanerako animorik" ez dagoela.

Erretiratuen elkarretaratzerik ez hilaren 11n

Zubia dela-eta ez dute agerraldirik egingo San Martin plazan: "Urriaren 18an itzuliko gara, ohiko ordu eta tokian".

Bergara Oinez: bederatzigarrena, hilaren 14an

Agorrosinen elkartuko dira, 10:00etan. Ibilaldiaren ostean, "hamaiketako osasuntsua" egingo dute. Doakoa da.

Txapa Irratian saio bat zuzendu nahi?

Aukera dago denboraldi berrian parte hartzeko: txapa35urte@gmail.com. Bestalde, Kolax saioak eta Angiolillo liburutegiak Kartzelako Irakurketa Taldea sortu dute. Lehen saioa azaroaren 4an egingo dute, Nerea Loiola Picazaren *Epizentroa* lanarekin.

Pilota: alebin mailako lagunartekoak gaur

Urko Muruamendiarazek Peru Montalvoren aurka jokatu du eta Harkaitz Ilarduiak Unax Agirreren aurka neurtuko ditu indarrak. Udal pilotalekuan jokatu dute, 19:00etan hasita.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630
 AROZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491
 BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoiak
 Horma-armairuak
 Altxariak neurria
 Ateak · Eskailerrak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

21
K
 KALITATEA
Enpresa Registrada Nº00025

Aitor Zabaleta
 Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
 ARTIKULU
 ELEKTRONIKOAK,
 KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
 943 76 59 54 BERGARA



Boluko etxebizitza bateko berritze energetikorako esku-hartzea, irailaren 30ean. UXUE IGARZA

Abian da Boluko "berritze energetiko jasangarria"

Debagoiena 2030 plataformako Birgaitzen ekimeneko arduradunek irailaren 30ean hasi zituzten Boluan isolamendu "erraz, merke eta jasangarri" baterako interbentzioak; oraingoz, zortzi etxek hartu dute parte, gasaren fakturretan aurrezteko balioko dielakoan

Jokin Bereziartua BERGARA

Argindarraren prezioa zeresana ematen ari da azkenaldian, eta asko dira tarifa elektrikoaren gorakada salatzen ari diren herri-tarrak eta eragileak. Era berean, energia aurreztearen garrantzia ere geroago eta barneratuago dauka gizarteak. Energia aurrezteko erronkari aurre egiteari ekin diote azken egunotan Debagoiena 2030 ekimenak eta H-Enea Living Labek, Boluko auzokideekin batera.

Izan ere, "modu jasangarri eta merkean", etxeak isolatzen hasi dira; lehen esku-hartzea irailaren 30ean egin zuten. Esperientzia esportatu nahi dute, gainera; besteak beste, asteon

aurkeztu dute ekimena Antzuolan eta egoera zaurgarrienean daudenek dirulaguntza bat eskatzeko aukera izango dute (Ikus 30. orria).

Boluko etheen berezitasuna

Baina zergatik abiatu dute esperientzia pilotu hau Boluan? Honako hau dio H-Enea Living Labeko Eukene Barrenetxeak: "Identifikatu genuen 1970eko eta 1980ko hamarkaden artean eraikiak izan ziren Boluko etxebizitzek aire-ganbera bat dutela etxearen eta kanpoaldearen artean. Aire ganbara hori zelulosaz betetzen dugu, beroki lanak egin ditzan. Beroki horri esker neguan hotz txikiagoa egingo

du etxean eta udan, berriz, bero txikiagoa. Kanpoko tenperaturarekiko babestu egiten gaitu zelulosazko beroki horrek".

Fakturak alderatuko dituzte

Gasaren prezioa ere garestitu egingo dela dioten aurreikuspenak aipatu ditu Barrenetxeak: "Isolamendu mota hau oso lagungarria izango da Boluko bizilagunen artean. Izan ere, proposatzen dugun isolamendu hau beste guztiak baino merkeagoa da". Partaidetza prozesu bat abiatu zuten 2021eko martxoan Boluko jai batzordearekin batera eta prozesu horren emaitza da zortzi etxebizitzak konpromisoa agertu dutela ekimenean

parte hartzeko. "Eskaera modu kolektiboan eginda prozesu guztia merkeago irteten da. Hau da, zortzi etxebizitza horietarako inbertsioa ez da 1.000 eurora helduko". Hain zuzen ere, berritze energetiko berezi honetan parte hartuko duen bizilagunetako bat da Alfontso Alonso: "Hasieratik iruditzen zitzaidan oso ekimen interesgarria. Energia aurrezteaz gain, fakturan aurreztuko dugu. Eta hori guztia, interbentzio merke batekin".

Bizilagunen fakturretan alde nabarmena izatea espero dute: "Alderatu egingo ditugu iazko neguko fakturak eta aurtengoak eta espero dugu emaitza onak emango dituela. Baditugu beste esperientzia batzuk eta horietan emaitzak onak lortu ditugu".

Esku-hartzea, zehazki azalduta

Zaharberritze energetikoa "oso modu sinplean" egiten dela dio Barrenetxeak; kanpoalderantz dauden etxeetako hormetan hainbat zulo egin, aire-ganbera guztiak paper birziklatuz egingako zelulosa isolamenduekin bete eta, ondoren, zulo horiek igeltsuarekin estaltzen dira. Bezeroak erabakitzen du ondoren hormak margotu edo ez. Diotenez, egun erdiko esku-hartzea da, gutxi gorabehera. Esku-hartze honen abantailak harago, Barrenetxeak gaineratu du euren lanetako bat izango dela energiaren aurreztearen garrantziaz gizarte mailan kontzientzia hartzen laguntzea: "Oso garrantzitsuak dira Debagoiena 2030 moduko plataformaren barruan abiatu diren proiektuak; guri dagokigunez, energia aurrezteko eta ekoizteko bestelako moduak sustatu behar ditugu".

Olio erabilia: edukiontzi laranja jartzen ari dira

Olio erabilia birziklatzeko zerbitzua hobetzen ari da Mankomunitatea. Bergaran zazpi edukiontzi berde egon dira orain arte etxean erabilitako olio jasotzeko, eta aldaketa amaitzen denean hamazazpi egongo dira. Edukiontzi berdeak zeuden zazpi puntuetan jarri dituzte dagoeneko edukiontzi laranja berriak, eta gainerakoak datozen egunetan jarriko dituzte. Orain arte ez bezala, edozein ontzitan bota ahal izango da olio; hortaz, ez da pote berdea erabili behar, eta ez da bueltan ontzirik jasoko. Olio botatzeko erabiltzen diren poteak –beirazkoak, metalezkoak, plastikozkoak– birziklatu egingo dira.

Intsumisioaren gaineko dokumentala urriaren 13an

ZinemaOn zineklubaren eskutik, *Intsumisioa Bergaran: desobedienciazarako bide bat* izeneko dokumentala estreinatuko dute Seminarixoa urriaren 13an (20:00). Aitor Alberdi, Jesus Kalboetxeaga, Jone Albeniz eta Ion Andueza izan dira dokumentalaren zuzendariak eta intsumisio mugimenduak Bergaran eman zuena kontatzen du. Dokumental horrez gain, Asier Altuna *Kixi*-ren aspaldiko lan bat ere ikusi ahal da, intsumisioarekin lotura duena. Sarrera hiru euro ordaindu beharko da. Gainera, dokumentalaren izen bereko erakusketa bat dago zabalik Aroztegin, urriaren 24ra arte.

Erreka garbitu, auzolanean

Urriaren 16rako egin dute erreka auzolanean garbitzeko deia. Hilaren 14rako eman behar da izena: Agorrosinen, errekagarbitzeko@gmail.com helbidean edo Udalaren webguneko izen-emate orrian. Hiru tokitan elkartuko dira. "Arropa zaharra ekarri. Gainera, oinetako egokienak mendiko bota zaharrak edo zapatila zaharrak dira, orkatilak ondo lotuta izateko", adierazi dute.



JAVIER RUDMAN

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Xabier Urzelai BERGARA

Mikel Etxaburu (Ondarroa, 1969) idazlea da, eta MUko irakaslea Huheziko Fakultatean. Eta Bilbo zaharrean *Bilbi* izenez ezaguna dagoen Xake Espazio autogestionatuaren bilakaera bertatik bertara bizi izan du. Ihintza Orbegozo (Bergara, 1987) kazetaria da ikasketez, eta azken urteotan Durangoko Plateruenan kulturgintzako arduraduna izan da. Eta Gotzon Barandiaran (Larrabetzu, 1974) idazleak ere zenbait kultura plaza sustatu ditu urte hauetan guztietan; esaterako, Bihotz Bakartien Kluba, Literatura Eskola, Aho-tsenea eta Larrabetzuko Kultur-bilgunea.

Hala, hiru lagun hauek aukeratu ditu Jardun euskara elkar-teak kultura plaza berrien gainean hausnartzeko.

Denetariako ideologiak, batera

Mikel Etxaburuk oso gertutik ezagutzen du Bilbo zaharrean San Anton zubitik harago dauden kaleetako errealitatea. Eta errealitate horietako asko batzen ditu, neurri handian, Xake Espazioak: "Abenduan bost urte beteko ditu modu autogestionatuan funtzionatzen duen espazio horrek. Oraingoz, bi gune ditu: taberna, batetik, eta lonja bat, bestetik. Eta posible da aurki beste pertsona bat ere zabaltzea".

Eta hori guztia, zertarako? Galdetuko du batek baino gehiagok. "Auzotar bakoitzak gure orainaren eta etorkizunaren gainean erabakitze gaitasuna izan dezan. Izan ere, duela bost urte auzoa eraldaketa prozesu batean murgilduta zegoen, eta hor eragiteko sortu zen Xake Espazioa. *Bilbi*-ko auzoa gauez ezagutu dugu gehienok, parranda giroan, baina auzo horrek baditu bizilagunak, egun argiz ere han bizitza egiten dugunak, eta ikusten genuen auzoan jendeak erabakitze gaitasuna behar zuela. Hala, halako ekimenetan uste dugu elementu autogestionatuek berebiziko garrantzia daukatela, horiek eskatzen dutelako herritarren partetik inplikazioa, hurbiltasuna, enpatia, ardurak hartzea...".

Etxaburuk onartu du zentzu askotan Bilbo zaharrak eta Bergarak zerikusi txikia izango dutela soziolinguistikoki, politikoki, kulturaliki... Eta horren gainean ere mintzo da. "Ezin dugu ahaztu Bergara edo Aramaio

Kultura plazen beharraz eta horien aniztasunaz

'Zertarako sortuko ditugu kultura plaza berriak?' galderaren bueltan mahai-ingurua antolatu zuten atzoko Jarduneko lagunek, Euskal Herriko hainbat kultura ekimenetan lanean diharduten hiru lagun gonbidatuta; eurekin izan da GOIENA



Mikel Etxaburu Osa. EREIN



Ihintza Orbegozo Igartua. BADOK.EUS



Gotzon Barandiaran Arteaga. UZTARRIA

moduan, Bilboko San Frantzisko kalea ere Euskal Herria dela, eta euskal herritarrez beteta dagoela. Uste dut Euskal Herria irudikatzen dugunean modu interesatuan alde bati bakarrik erreparatzen diogula, baina errealitatea bestelakoa da. Egia da gure auzoan aniztasun kultural handia dagoela, jatorri askotariko jendea dago, bizi esperientzia ezberdinak izan dituztenak, egoera ekonomiko ezberdinetakoak... Eta denak izan behar ditugu kontuan. Hau da, bergararra edo aramaioarra banintz, seguruena, beste ezau-

garri batzuetako proiektuak jarriko nituzke abian, baina hemen, egiten dugun orok harreman estua izan behar du gure testuinguruarekin. Uste dut falta zaigula gure zibilizaziotik harago begiratzea, beste errealitate batzuetako euskal herritarrek daukela ikustea. Eta Xake moduko plazetan posible dela ibilbide ideologiko oso ezberdinetako jendea batzea. Hor batzen gara anarkistak, komunistak, abertzaleak, jatorri espainoleko jendea... Eta, bide batez, gure artean bikain konpontzen gara eta adostasunak lortzen ditugu".

"XAKE ESPAZIOA DA ERRADIKALKI AUTOGESTIONATUA"

"DENETARIKO IDEOLOGIAK DITUZTENAK DAUDE"

"EUSKAL HERRIAN ERREALITATE ASKO DAUDE"

MIKEL ETXABURU, IRAKASLEA HUHEZIN

"PLATERUENAREN ITXIERAK HUTSUNE HANDIA UTZI DU"

"KULTUR ELKARTEAK LEKU FALTAN DAUDE DURANGON"

"DURANGON JENDEA KULTURA GOSEZ DA, BADAGO INTERESA"

IHINTZA ORBEGOZO, KULTUR ERAGILEA

Plateruenak utzitako hutsunea

Ihintza Orbegozik gertu-gertutik bizi izan du duela urtebete Durangoko Plateruena itxi izan utzi duen hutsunea, eta horren bueltan herrian abian jarri dituzten kultur dinamiken berri eman du. "Plateruena itxi-ko zutela jakin genuenean, geure buruari egin genion lehenengo galdera izan zen: eta orain zer? Hala, kulturgintzako langileak lanean hasi ginen iazko urrian, eta barruko lana egin eta gero, 2021ean sartzearekin batera herritarrekin hasi ginen elkartzen. Hala, proiektu honi

"PLAZAK BEHAR DIRA EUSKAL KULTURA-ZALEAK SORTZEKO"

"EUSKARAZ SORTZEKO GRINA BEHAR DUGU"

"EUSKARA EZ DA HEMENGO ESKAINTZAN NAGUSI"

GOTZON BARANDIARAN, IDAZLEA

herritarrekin batera eman dion gu forma, eta uda hasieran txosten batean jaso genuen hila-bete hauetan egindako lana. Orain, Durangoko Udalarekin gaude hartu-emanetan, gaiari heltzeko interesa erakutsi dute, eta ea ikasturte berrian ekintzetara pasa gaitezkeen".

Horren harira, Durangoko kultur elkarteek gaineko erretratu azkarra egin du Orbegozik. "Elkarte mordo dago, eta baita sortzaile asko ere. Jendeak jakin-min handia dauka, kulturarako grina dago, baina espazio falta handia dago. Lehen ere leku faltan zeuden kultur eragile horietako asko eta asko eta Plateruenaren itxierak larritu egin du egoera. Eta gero, erakusleho modura, kultura kontsumitu nahi bada, gaztetxea dago, batetik, eta San Agustin antzokia, bestetik, ez dago gehiago. Hala, garbi dugu Plateruenaren eraikinak ezin duela itxita jarraitu".

Euskal kultura-zaleak sortzea

Azken urteotan Euskal Herriko zenbait kultura eragilek darabilten diskurtsoa plazaratu du Gotzon Barandiaranek. "Kultura plazak helburu nagusia dena lantzeko ildoan barruan kokatzen ditugu, eta helburu nagusi horrek izan behar du euskal kultura-zaleak sortzea. Euskaraz sortzeko grina daukaten euskaldunak sortu behar ditugu, sortzaileak izango diren zaleak, antolatzaileak izango direnak, hedabideetan arituko direnak eta baita heziketan arituko direnak ere. Eta etxean ere euskarazko transmisioa bermatuko dutenak. Horiek dira helburu nagusiak, eta guk zenbait lan ildo proposatzen ditugu. Eta kultura plazak dira lan ildo horietako bat. Euskalgintzak plaza horien beharra du".

Hala, Barandiaranen esanetan, gaur egungo kultura eskaintza-aren barruan, euskal kultura ez da nagusitzen dena. "Ez da plaza fisikoetan nagusitzen, ezta birtualean ere; alegia, digitalean aurki daitekeena. Guk Euskal Herriko zazpi lurraldeak hartzen ditugu kontuan, eta garbi daukagu bertako plazetan programatzen diren kultur ekitaldiak ez direla nagusiki euskarazkoak". Eta beste horrenbeste gertatzen da eskaintza digitalean. "Eskaintza nagusia espainolez, frantsesez eta ingelesez dago, ez euskaraz".

Birgaitzen plana, gutxien dutenei laguntzeko

Pobrezia energetikoari aurre egiteko plan pilotua jarri dute abian Debagoiena 2030 ekimenak, Udalak eta Goizperrek. Profil sozioekonomiko zaurgarria duten familia antzuolarren etxebizitzetan isolamendua jartzea du helburu Birgaitzen planak



Eukene Barrenetxea, Puri Arregi eta Eñaut Iturbe, Herriko Plazan. MAIDER ARREGI

Maidar Arregi ANTZUOLA

Profil sozioekonomiko zaurgarria duten familia antzuolarren etxebizitzetan isolamendua jartzeko Birgaitzen plana bideratu dute Goizperrek, H-Eneak eta Udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Goizperrek 10.000 euroko dirulaguntza jarri du profil zaurgarrian daudenei laguntzeko. Bailaran aitzindaria da ekimena,

eta Antzuolako Udalak bitartekari lanak egingo ditu.

Debagoiena 2030 ekimenak gidatutako esperientzia pilotua da Antzuolan jarritakoa, eta bultzatzaile nagusiak H-Enea Living Lab, Antzuolako Udalak eta Goizper enpresa dira. Asteon emandako prentsurrekoan, Birgaitzen planaren nondik norakoak azaltzeko H-Eneako

Eñaut Iturbek eta Eukene Barrenetxeak hartu dute hitza; baita Puri Arregi Gizarte Ongizate zinegotziak ere. Antzuolako Udalak pobrezia energetikoari irtenbidea ematen lehena dela nabarmendu dute. "Bailaran aitzindaria izan da Antzuolako Udalak bere ezagutza eta bere taldea baliatuz, gai honen inguruko hausnarketa egiten",

adierazi du H-Eneako kide Eukene Barrenetxeak.

Birgaitzen ekimena

H-Enea Living Labek sustatuta, 2018an jarri zen martxan Birgaitzen plana. Proiektuak bilatzen duena da 80ko hamarkada baino lehenago eraikitako etxeetako tenperatura eta konforta prezio eskuragarrietan hobetzea. "Orain arte, lau pilotu gauzatu dira bailarako herri ezberdinetan, eta 40 etxebizitzako konfort baldintzak hobetzea lortu da. Etxe horietako tenperatura neguan batez beste gradu bat eta lau gradu artean altuagoa da. Udan ere tenperatura freskoago mantentzen da. Ondorioz, urtero 17 tona CO2 gutxiago isurtzen dira atmosferara", adierazi du Eñaut Iturbek.

Isolamendu eskasa duten etxeek neguan berotasuna mantentzeko zailtasunak dituztela konprobatu dela eta hori osasunerako kaltegarria dela ere gaineratu du Eukene Barrenetxeak. "Egoera hori hobetzeko balio du egingandako prozesuak. Hori dela eta, Goizperri Antzuolako profil sozioekonomiko zaurgarria duten familien etxebizitzetan isolamendua jartzeko dirulaguntza eskatu genion. Erantzuna positiboa izan zen, eta Goizperrek 10.000 euro bideratuko ditu profil zaurgarrian dauden herritarrei laguntzeko. Udalak bitartekari lanak egingo ditu".

"Ekimenak onura ekarriko dizkie herrian egoera zaurgarrian bizi direnei, eta, bestetik, horrelako ekintzek herria koheSIONatuagoa eta inklusiboagoa izatea dakar; guztiok elkarlanean berdintasunaren bidea egitea, alegia. Dirulaguntza horren helburua gutxien daukatenei laguntzea da, eta ezinbestean

ikusitua gurean Udalean gizarte sozialen bidez lantzea gai hau", nabarmendu du Puri Arregik.

Eskaera egiteko baldintzak

Dirulaguntza Antzuolan errolatuta eta egoera zaurgarrian dauden herritarrendako izango da. Besteak beste, ondorengo baldintzak bete behar dira: udalerrian etxebizitza jabetza edo usufruktuan izatea; ohiko bizileku iraunkorra izatea; bestelako etxebizitza baten jabetzari dagokionez, ezingo da etxebizitzaren %50 baino gehiago edukitu; eta erosketa bidez eskuratu bada, %50 baino gutxiago izan behar da jabetzan. Etxebizitzak baldintza batzuk ere bete behar ditu; tartean, 1980. urtea baino lehenago eraikia izatea eta teknikoki obra eraginkorra izango litzatekeen bermatzea edukitzea.

Eskatzailearen profil ez-sozioekonomikoaren arabera baloratuko da. Hau da, kopuru txikiena daukana izango da lehen onuraduna. Eskatzaileek diru sarrerak justifikatu behar dituzte. Izena emateko azken eguna urriaren 29a da, 12:00etan. Agiriak Udaleko gizarte zerbitzuetan aurkeztu daitezke –edo gizartea@antzuola.com helbidera bidali–. Udalak, Goizperrek eta H-Eneak osatutako mahaia ebatziko du prozedura. Laguntzaren barruan sartzen dira intsuflatzearen gastua eta udal baimenaren tasa ordaintzeko kopurua ere.

**DIRULAGUNTZAK
ESKATZEKO EPEA
ZABALIK DAGO
URRIAREN 29KO
12:00AK BITARTEAN**

Laguna Negrana eta Rio Lobosko arroilan izan dira Arrolakoak

Asteburu ederra igaro dute Arrolako mendizaleek Laguna Negra eta Rio Lobos inguruko parajetan

M.A. ANTZUOLA

Aurten bai, Arrolako mendizaleek asteburu ederra pasa dute. "Pandemiarekin mugatuta egon bagara ere, aurten Laguna Negra-Urbion eta Rio Lobosko arroila inguruetara egin dugu

irteera. Neilako aintzirara joatea baldin bazen ere hasierako plana, eguraldi euritsuagatik bigarren egunean Rio Lobosera joatea erabaki genuen", kontatu dute. "Hala, lehen egunean, Laguna Negratik Urbiongo gailu-

rrera joan ginen. Eguraldi laintsu, haizetsu eta eguzkitsua izan ondoren, alaitsu bukatu dugu Urbion eremuan egin dugun ibilbide zirkularra, bertako aintzira esanguratsuenetatik igaroz. Bigarren egunean, Rio Lobos izeneko trokatea ezagutu dugu. Euripean izan bada ere, inguru ederraz disfrutatuta, troka artean eta zeruan, putreak genituela". Argazki galeria eta Wikiloc-eko ibilbideak [goiena.eus/komunitatea](https://www.wikiloc.com) atalean daude ikusgai.



Arrolako mendizaleak Laguna Negrana. ARROLA



Olarango barrualdean igogailua jartzeko lanetan. M.A.

Igogailua jartzeko Olarango obra, eginda

Aurten amaituko dira Olaran berritzeko eta irisgarri bilakatzeko lanak. Obra martxa onean doa, eta dagoeneko eginda dago igogailua jarriko duten tokia; besteak beste, komunak jartzeko instalazioa ere amaitu dute. 180.000 euroko kostua dute lanek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Maiatzean abiatu zituzten Olarango jauregia berritzeko lanak. Lan hauen helburu nagusia udal eraikina den kultura etxea %100ean irisgarria izatea da, eta, horregatik, eraikineko pisu guztiak lotuko dituen igogailua jarri dute. Obra martxa onean doa, eta dagoeneko eginda dago igogailua ezarriko den tokia – argazkian ikusten da lehenengo solairuan igogailua jarriko duten zuloa eginda dagoela–.

"Igogailua eraikinaren barruan integratuta joango da. Lan horiek eginda daude jada, eta igogailua jartzea falta da orain. Igogailua sartzeko fosaz gain, eraisketa lanak ere amaituta daude; baita komun berriak jartzeko igeltserotza obra, instalazio elektrikoaren aldaketa eta iturgintza-ko azpiegitura berria ezartzeko lanak ere", azaldu du Antzuolako Udaleko Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

Obra aurten amaitzeko asmoa du enpresak, baina ondorengo

asteetan badira egiteko dauden zenbait lan. "Igogailua instalatzeko dago oraindik, azulejoak eta baldosak jartzea ere falta da, dagozkion lan sanitarioak egitea, solairuetako sabaiak konpontzea, kristalezko ate automatikoak jartzea, pintatzea eta bukaerako txukuntze lanak egitea, hurrenez hurren. Kontratistak aurten bukatuko ditu obrak, baina lan batzuk esleitu gabe daude: sarraila automatiko berriak, seinalizazio berria eta altzariak", gaineratu du udal aparejadoreak.

Eraikin irisgarria

Lanok amaitzean, igogailua izateaz gain, eraikinak komun berriak, gelen banaketan aldaketa nabarmena eta hainbat

AURTEN AMAITUKO DIRA OLARANGO KULTURA ETXEA IRISGARRI EGITEKO LANAK

instalazio elektriko eguneratuta izango ditu. Gauzak ondo bidean, 2021eko abendurako Olaran berrituta egongo da, beraz. Obrak irauten duen bitartean Olarango gela asko ezin dira erabili; hala, musika eskola, trikiti, eskulan, euskara edo ingeleseko eskolei alternatiba bilatu die udalak, eta Herri Eskolako gela aurrefabrikatuak erabiltzen dituzte eskolak emateko. Noizean behin bilerak egiten dituzten taldeek, aldiz, aurrez gelen erreserba egin beharko dute, idatziz, udaletxean.

Aurrekontu potoloa

Olarango berritze eta egokitze lanek 180.000 euroko aurrekontua dute. Ia 250.000 euro bideratuko ditu Antzuolako Udalak 2021eko inbertsioetarako. Hain justu ere, aurtengo aurrekontuaren baitan –2.830.323 euro–, Olarango obrak dauka diru kopuru handiena. Plan Orokorra burutzeko, berriz, 90.000 euro bideratuko dira aurten.

Trenbide zaharraren ingurua harri-txintzarrekin txukundu dute

Auzolanean, aste honetan, Galartza baserriaren eta trenbidearen arteko zelaigunea txukundu dute

M.A. ANTZUOLA

Aste honetan, Galartza baserriaren eta trenbidearen arteko zelaigunean harri-txintzarra bota du lagun-talde batek, auzolanean. Hobekuntza nabarmena izango da eguraldi txarra egiten duenean: "Egindako lanari esker, eguraldi txarra dagoenean lokatz gutxiago egitea lortuko dela uste dugu. Hortaz, eskerrik asko lanean aritu direnei eta musu-truk zelaiaren pasabidea utzi duten Galartza baserriko lagunei", adierazi dute Antzuolako Udaleko ordezkariak.



Galartzako auzolana. ANTZUOLAKO UDALA

Jauregiko tunela

Bestalde, martitzenean Gipuzkoako Foru Aldundiak Antzuolako Udalari jakinarazi zion urria bukatu baino lehen lehia-kerara aterako dituztela Bide Berdean dagoen Jauregiko tunela konpontzeko lanak.

2019ko abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, gertatutako lur-jausi baten ondorioz, Jauregiko tunelaren sarrera erori egin zen. Kalte handiak ditu tunelak, eta lan sakona egin behar da bertan; gaur-gaurkoz, ezin da bertatik igaro.

Sormen arloa indartzeko lanpostu deialdia

Sormen arloko lantaldea indartzeko, Antzuolako Udalak pertsona bat kontratazeko deialdia egin du. Hautagai izateko, nahitaezkoa da Lanbiden izena emanda edukitzea; hortaz, nahi dutenek urriaren 11tik 22ra arte Lanbiden eman beharko dute.

Lanpostua urtebeterako izango da, azaroaren 2an hasita. Baldintzak honako hauek dira:

Antzuolan erroldatua egotea; 16 eta 30 urte adin-tartean egotea; Lanbiden izena emanda egotea; aurretiazko eskaera egitea; eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala edukitzea; hautaketa prozesuan hirugarren hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea izatea; batxilergo titulua, titulu tekniko edo baliokidea izatea; eta herri administrazioa eta dagozkion eginkizunak burutzeko ezgaiturik ez egotea. Informazioa udal bulegoetan emango dute.

EH Bilduk batzar irekia egingo du hilaren 15ean

Antzuolako EH Bilduk batzar irekia egingo du urriaren 15ean, egubakoitza, udalgintzako jardunaren berri emateko. Herri zein nazio mailan EH Bilduren egoeraz eta jardunaz ere hausnartuko dutela aurreratu dute. Hala, herritar ororendako batzarra Torresoroa aretoan izango da, arratsaldeko bost eta erdietan hasita.

Bizi-testamentuaz jardungo du Laura Gabirondo medikuak

Antzuolako Errukizko Amaren parrokiak antolatuta, bizi-testamentuaren gaineko hitzaldia egingo du datorren astean Laura Gabirondo medikuak. Urriaren 13an, eguaztena, izango da hitzaldia, arratsaldeko sei etatik zazpietara Torresoroan. Herritar ororendako solasaldia dela adierazi dute antolatzaileek, eta parte hartzeko dei egin dute.



Spinning saioetako bizikleta estatikoetako batean, gimnasioan. E.S.M.

Martxan da kirol eskaintza berria

Aurreko ikasturteetako eskaintza mantendu egin dute, baina badira berrikuntzak ere. Gure Zirkuan aire-akrobaziak egiten dituen Agurtzane Telleria arrasatearrak, esate baterako, zirku tailerra egingo du neska-mutikoendako

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Udalak antolatzen dituen jardueri dagokionez, martxan dira guztiak; izan ere, aurreko astean egindako ate irekien ostean, astelehenean ekin zioten ikas-turteari.

Gimnasia lasaia –martitzenetan eta eguenetan, 15:30ean–, sasoian egoteko gimnasia –martitzenetan eta eguenetan, 18:30ean– eta spinning jarduerak daude aukeran. Azken horretarako bi talde irten dira, nahiz eta ordutegietan aldaketak egon daitezkeen oraindik ere.

Etor Garatek gidatuko ditu saio horiek guztiak, eta oraindik ere badago izena emateko aukera. Hileko kuota 25 euro da, eta ikasturte osokoa aukeratu daiteke; 200 euro dira.

Prezio berezia dago aurreikusita erretiratuendako; *Gimnasia lasaia* jardueran izena ematen

gutenei 5 euroko kuota murriztua kobratuko zaie.

Eskola kirola saioak ere martxan dira. Aurreko astean egin zen informazio batzarra gurasoekin, eta aste honetan abiatu da pandemia tarteko iaz oso gorabeheratsua izan zen jarduerak. Udaletik baieztatu dute hiru taldeak irten direla; LH1-LH2, LH3-LH4 eta LH5-LH6.

Yoga saioak

Aurten ere Alazne Azkaratek helduendako yoga saioak egingo ditu. "Trailean hasita gaude. Squash kantxan egiten ditugu

**ZUNBA JARDUERA
IZAN EZIK,
PROPOSATUTAKO
JARDUERA GUZTIAK
DAUDE MARTXAN**

saioak martitzenetan eta eguenetan 18:40tik 19:40ra". Izen-emateak zabalik jarraitzen du, nahiz eta edukiera kontuengatik muga batzuk dauden. Interesatuak 653 72 31 68 telefono zenbakira deitu dezakete.

Tai txi eskaintza

Tai txi saioak ere hasita daude. Aurrekoetan moduan, Ainhoa Amestik eskaintzen ditu. "Distantziak mantendu ahal izateko, bi talde egin nituen aurreko urtean, baina aurten ez dakit posible izango dudana eskaintza hori egitea, eta apuntatzen den jendearen arabera erabakiko dut. Squash kantxan ez gara asko sartzen, eta ez da lekurik egokiena tai txia egiteko. Neguan hotza da eta argitasuna ez da oso egokia. Oraingoan, eguraldia lagun izan dugu eta aire librean egin ditut saio asko. Ikusiko



Frontoian erabilera libreko ordutegian, eguaztenean. L.Z.L.

Frontoia, atzera ere zabalik

Pandemia hasi zenetik, erabilera librerako itxita egon da frontoia, baina zabalik da berriz ere aurreko asteko astelehena ezkeror. Iraitx Lazkano alkateak azaldu du Eudeletik emandako irizpideak hartu dituztela kontuan irekiera gauzatzeko. "Eudeletik emandako irizpideak jarraitu ditugu orain arte, eta berdina gertatu da oraingoan ere. Irizpide aldaketa egon da; frontoia zabalik egon daiteke". Aireztatzea ondo egitea eta barruan maskara erabiltzea eskatzen du indarrean den araudiak. Bete beharreko gainerako baldintzen gaineko informazioa ere pilotalekuan bertan jarri dute ikusgai. Honenbestez, ordu banaketari dagokionez, pandemia aurreko funtzionamendura itzuli da frontoia. Erabilera librerako orduak daude, eskolarentzako zein antolatutako jardueretarako tarteak daude, eta baita ere erreserba orduak.

dugu zelan jarraituko dugun", esan du. Saioak, oraingoan, astelehenetan eta asteazkenetan dira, 18:00etan. Argibideetarako: 699 66 62 48.

Pilates taldea

Maier Irazabal elgetarrak gidatzen ditu pilates saioak, eta zazpi lagunekin abiatu du ikasturtea. Astelehenetan eta eguaztenetan elkartzen dira, 17:30ean, gimnasioan. Izen-emateak zabalik jarraitzen du. Kontakturako telefonoa 636 05 35 36 da. Zunba taldea, berriz, ez da irten aurten.

Areto dantzak

Hirugarren urtez, areto dantzen ikastaroa ere martxan dago Elgetan. Esti Bravok eskaintzen du eta zortzi laguneko taldea du. Gimnasioan elkartzen dira astelehenetan 20:00etatik 21:00etara eta eguaztenetan 20:30etik 22:00etara. Badago lekua orain-

dik ere. Bravoren kontaktua haxe da: 687 96 79 27.

Zirku eskolak

Nobedadea da, ikasturte honetan, Gure Zirkua egitasmoan aire akrobaziak egiten dituen Agurtzane Telleria arrasatearrak egindako proposamena. Zirku eskolak egingo ditu Elgetan. Astelehenetan izango dira saioak, 17:00etatik 18:15era. "Ez dakit, azkenean, zenbat lagun izango garen. Jendea deika daukat oraindik ere, eta ikusiko dugu zer iriten den, baina, jendea apuntatzen bada, bi talde ere egingo nituzke", azaldu du Telleriak. "Dena ondo badoa, hila-ren 18an hasiko gara. Materiala oraindik ere iristeko dago, eta instalazioa egin behar da", azaldu du. Saioak eskolako ganbaran izango dira. "Helburua da ikasturtean zehar, besteak beste, lurreko akrobaziak, aire akrobaziak, malabarrak, diabolak, eta oreka ariketak lantzea. Taldekakoak zein bakarkakoak izango dira, eta ikasturte amaierarako ikuskizun bat prestatzea da ideia". Informazio gehiagorako Telleriaren kontaktua da 609 55 62 10.

**EREMU ITXIETAKO
JARDUERETAN,
INDARREAN DIREN
COVID NEURRIAK BETE
BEHARKO DIRA**

Euskararen ezagutzan trebatzeko bost ekimen

Eguaztenean eman zioten hasiera A2 mailako euskara ikastaroari sei lagunek, eta urrian zehar hasiko dira martxan mintzapraktika taldeak. Hitzez Pitz irakurketa solasaldian, berriz, Miren Agur Meaberen 'Borrokalaria argitsuak' izango dute irakurgai

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Euskararen ezagutza eta erabilerak bultzatzeko, helburuarekin hainbat ekimen eta proposamen daude aukeran ikasturte honetan ere Elgetan.

Dinamika eta ordutegi eskaintza ahalik eta zabalena egiteko, bost dira, hasiera batean, martxan jarritako proposamenak. Ezagunak dira batzuk, eta berriak beste batzuk.

Ikasturte honetan nobedadea den A2 mailako euskara ikastaroa, esaterako, eguaztenean abiarazi zuten. Azkenean, sei lagunek osatzen dute taldea eta Arrasateko AEK-k koordinatuko du ikastaroa.

Saioak kultura etxeko erabilerak askotariko gelan egingo dituzte, eguaztenetan, 10:00etatik 12:00etara, eta AEK-ko irakasle batek gidatuko ditu. "Sei ikasleek aste honetan egin dute euskara maila baloratzeko proba. Astean bi orduko saio bat egingo dute aurrerantzean".

A1 mailako irakurketak

Hitzez Pitz ez da ekimen berria, eta ikasturte honetan ere ordubete iraungo du dinamikak, astean behin. Saioak liburutegian egingo dituzte, eta ikasturteari hasiera emateko aukeraturako irakurgaiak Miren Agur Meaberen *Borrokalaria argitsuak* lana da. "Lau lagunek eman dute izena. Bi euskara ikasteko prozesuan diren bidelariak dira, eta beste biak euskara jariatuz hitz egiten duten bidelagunak", azaldu du liburutegiko arduradun eta Elgetan Berbetan egitasmoko koordinatzaile Geaxi Ezpeletak.

Urriaren 19an egingo dute ikasturteko lehenengo saioa. "Zabalik da izen-ematea eta irakurgaiak liburutegian bertan eska daiteke", gaineratu du Ezpeletak. Gogoratu du irakurgai guztiak A1 mailakoak izango direla eta, aurreko ikasturteetan bezala,



Gidatutako Hitzez Pitz irakurketa saioa, aurreko ikasturtean. ELGETAKO LIBURUTEGIA

INTERESATUEK UDAL LIBURUTEGIAN ESKA DEZAKETE INFORMAZIO GEHIAGO

etxean egindako irakurketaren inguruko solasaldia egingo dutela saioetan.

Euskara hutsetik ikasteko

Euskara ezagutzarik ez dutenendako oinarri-oinarrizkoa den Euskara Lagun taldea osatuko da. Oraingoan, bi lagun daude izena emanda eta zehazteko dago saioen eguna eta ordua.

Honako hau ere ez da proposamen berria, eta aurreko ikasturteetan talde honetan ibilitako zenbait lagun A2 mailako ikastarora pasa badira ere eskaintza zabalik mantentzea da asmoa. "Ahozko ulermena landuko dugu bertan, eta oso oinarritzakoak diren kontzeptuak jorratuko ditugu; agurrak, zenbakiak, koloreak... Lehen hurbiltze bat izango da. Astean ordubete saio bat izango da", azaldu du Ezpeletak.

Berbalagun taldeak

Egunotan zabaldu da izen-emate kanpaina eskualde mailan, eta Elgetan ere urrian berrekin diote lan dinamikari berbalagun taldeek. Deana den, aurrekoetan baino motelago doa izen-ematea. "Goizeko taldea hastear da, baina arratsaldeko talderako bidelagun bat falta da". Astelehen arratsaldean elkartu nahi dute talde horretako bidelariekin, 17:00 aldera, eta bidelaria behar dute. Guztiak ere hilaren 24an eskualdeko mintzalaguneneko antolatuta dagoen irteeran parte hartzera gonbidatuta daude. Arabako Iruña Okan dagoen Santa Katalina lorategi botanikora egingo dute bisita gidatua. Hamar bat plaza gelditzen dira.

'Bidelaguna zure zain'

Ikasturteko beste nobedadea Hendaiatik datorren dinamika da. Bidelagun bat egongo da liburutegian euskarazko mintzapraktika egiteko prest. Urriaren 27an eta azaroaren 24an egongo da, 18:30etik 19:30era. Bi eguneko probak ematen duenaren arabera izango du jarraipena edo ez dinamikak.



NIRE USTEZ

CARLOTA ALFARO ORTEGA

Animalien babeserako lege berria

Asteak daramatzagu irakurtzen martxan dela animaliak babesteko Euskadiko lege proposamen berria. Entzun ditugu lege horrek animaliei ekarriko dizkien abantaila izugarriak, baina egia da? Bitxia bada ere, animalien babeserako elkarteak %90 aldaketaren aurka daude. Zergatik? Ezin da ukatu legeak hobekuntza handiak ekarriko dituela. Hainbat neurri harritzekoak dira: zero sakrifizioa, animaliak lotuta edukitzeko edo erakusleihoetan erakusteko debekua, katu kolonien CES bidezko kontrola... Animaliak dituzten zirkuak ere debekatuta daude! Baina legea arretaz irakurritz gero, indarrean dagoen legedian sartzen ez den bazterketa bat aurkituko dugu: "Ekoizpen- edo errenta-animaliak kanpoan geratzen dira". Hau da, lege berria argitaratzen den egunera arte Euskadiko azientak bere ongizatea babesten duen legedia du. Hori bertan behera gelditzen da lege berria argitaratu bezain laster. Behiak, ardiak, ahuntzak eta zaldi gehienak babes eremu horretatik kanpo geratuko dira. Nola liteke animalien babeserako lege baten eguneratzeak animalien zati handi bat baztertzea?



INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

Belgikarrak 'Intxortako atea'-n

Egunotan betetzen dira 85 urte tropa frankistak geldiarazteko Intxortako frontea ezarri zela. Hainbat ekitaldi egin dira memoria historikoa aldarrikatzeko eta egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko. Bisitariak ere izan dira Intxortako ibilbide tematikoan; tartean, argazkiko belgikar taldea. *La Belga* izeneko posizioa ezagutu zuten, besteak beste.

Marrazki lehiaketa eta itzal laborategia umeendako

Martxan da liburutegiko marrazki lehiaketa. 5-16 urte arteko gazteek urri amaierarako aurkeztu behar dituzte lanak. *Irakurtzeko txokoa* da gaia. Hilaren 15erako, berriz, itzal laborategia dago antolatuta. Zurrunka Teatro taldeko kideek egingo dute. Hamabi laguneko bi talde izango dira, eta beharrezkoa da aurrez izena ematea.

OHARRAK

Gabonetako loteria

EAJk banatzen duen loteria eskaerak M.J. Leteri edo B. Ardanzari egin behar zaizkie, azaroaren 14a baino lehen.

Omenaldia Ozkarbin

Mariasun Agirre, Karmen Ojanguren, Itziar Olabe eta Eli Aranzabal omenduko dituzte hilaren 16an, 12:30ean. Urriaren 8rako eman behar da izena, Ozkarbin.

25. ikasturtea hasi berri dute Artzain Eskolan

Praktikaldia luzatu egin dute; bederatzi hilabetekoa izango da aurtengo ikasturtea, ekainera artekoa. Helburua da ardiaren ziklo osoa bertatik bertara ezagutzeko aukera ematea ikasleei. Gomiztegin pozik daude eskolak orain arte egindako ibilbidearekin

Oihana Elortza OÑATI

Gomiztegiako Artzain Eskolak 25. ikasturtea hasi du, eta aurrekoak baino luzeagoa izango da; sei hilabetekoa izan ordez, bederatzikoa izango da, ekainera artekoa. Formakuntza praktikoa indartzeko hartu dute erabaki hori, ikasleei ardiaren ziklo osoa bertatik bertara ezagutzeko aukera emateko. "Gomiztegin bertan ere egingo dituzte praktikak, betiko moduan, baina, ikasturtea ekainera arte luzatuta, arditegiaren lana hobeto ezagutzeko aukera izango dute. Adibidez, komertzializazioa, salmenten prozesua, nola egiten den ikusiko dute; izan ere, normalean, martxotik aurrera izaten da hori", azaldu du Artzain Eskolako Ane Garziandiak.

Teoria eta praktikak tartekatuta

Eskola teorikoekin tartekatuko dituzte lehen hilabeteetan, baina artzainen etxetara joango dira ondoren, eta praktiken al-

dia luzeagoa izango da. "Dagoneko eratuta daukagu Euskal Herri osoan banatuta dagoen arditegien sare bat, horietako asko hemengo ikasle izan direnak. Ikasleen profilaren arabera eta bakoitzak ze asmo duen ikusita, arditegi batera edo bestera bideratuko ditugu aurtengo ikasleak. Gomiztegin ere egingo dituzte, dena den, ume garaian, adibidez, eta lan horiek eskola teorikoekin partekatuko dituzte".

Aurten, hamahiru ikasle dituzte: Bizkaitik etorritako lau, Nafarroako beste lau, Arabako bi eta bana Madrildik, Lleidatik eta Gipuzkoatik -Eskoriatzakoa-. Azken hamar urteetako kopuruaren antzerakoa da aurtengoa, izan dituzte ikasle gutxiagoko

IKASLEEN KOPURUA MANTENDU EGIN DA HASIERATIK HONA, BAINA PROFILA ASKO ALDATU DA

urteak ere, eta, alde horretatik, pozik daude Gomiztegin. "Ikasleen profila asko aldatu da, ordea. Hasierako urteetan, artzainen seme-alabak ziren ikasle gehienak, atzerritar asko etorri ziren sasoi batean, baina azken urteetan beste arlo batzuetako ikasketak dituztenak ere etorri dira. Oso aberasgarria da hori", dio Garziandiak. Ikasturtean zehar Gomiztegin bertan ostatu hartzeko aukera ere eskaintzen du Artzain Eskolak, eta ikasturte honetako hamar ikaslek hartu dute aukera hori.

25 urteko ibilbidea

Duela 25 urte hasi ziren artzaintzaren inguruko ikasketak eskaintzen Gomiztegin eta "sektorearekiko interesa mantendu" egin dela ikusita pozik daude Artzain Eskolako arduradunak. "Sektorea indartzeko eta bistratzeko balio izan badu, hori oso pozgarria da". Ospakizunei lotuta, oraindik ez dute noiz eta nola ospatu urteurrena.



NIRE USTEZ

IÑAKI FERNANDEZ

Zaindu gaitezen

Hartzen al dugu nahikoa denbora guretzat? Zergatik arduratzen gara gehiago ondokoarekin eta ez gure buruarekin? Orokorrean, uste dugu inguratuta egoteak on egiten digula, baina, askotan, gertuko zirkulua gure etsai handiena bihurtzen da.

Bakarrik egotea lagungarriagoa izaten zaigu, inguratuta egotea baino, eta ez dugu horren beldurrik izan behar. Geure burua gehiago ezagutzeko aukera emango liguke, bakardadeak barnekoa ateratzera bultzatzen baitigu.

Nahiago izaten dugu pertsona kaltegarriekin inguratu, bakarrik egon baino. Ez dugu bakardadea onartu gura nahi, baina ez gara konturatzen gure laguntza handiena izango litzatekeela bakartasun hori.

Zarata artean bizitzera ohitu gara, eta bakardadearen isiltasunak beldurra ematen digu. Inguruan ditugunak zaindu behar ditugu, baina bada garaia geure buruari behar besteko garrantzia emateko. Hasi gaitezen geure burua zaintzen. Inoiz ez da berandu ohiturak aldatzeko.

Ekonomiari buruzko solasaldia egingo du EH Bilduk 13an

Udako etenaren ostean, *Hamar Berba*. *Hamaika Berba* zikloarekin jarraituko du Oñatiko EH Bilduk hilabete honetatik aurrera. Urriaren 13rako iragarri dute hurrengo hitzaldia, ekonomiari buruzkoa.

Ekonomiaren orientalizazioa izango da landuko duten gaia. Zehazki, Zetazko Bidearen bilakaera historikoaren inguruan

hausnartuko dute, eta egun merkatuan duen pisua ere izango dute hizpide. Hizlariak izango dira Urko Apaolaza, historialaria eta *Argia*-ko kazetaria; eta Adrian Zelaia, Ekai Taldeko kidea eta EHUKo Ekonomia Aplikatuko irakaslea. Moderatzaile lanak Mikel Aramendi analista politikoak egingo ditu. Hitzaldia urriaren 13an izango da, asteazkena, 18:30ean, kultura etxeko zinema aretoan. Sarrerak aurretiaz hartzea gomendatzen da.

Udal Gobernuaren kudeaketa ez dela egokia uste du EAJk

2020ko udal aurrekontuaren soberakina zertara bideratuko den oraindik argitu ez duela diote jeltzaleek

O.E. OÑATI

Oñatiko EAJk dio, prentsa ohar bidez, Udal Gobernuaren kudeaketa "desegokia" dela eta "gardentasunik eza" duela. Dio Azkoagaindik Lezesarri auzorako oinezko bidea egiteko aurkeztutako proiektua eta aurrekontua ez direla errealak, ez dituztelako jasotzen egin beharreko desjabetze eta argiteria hobekuntzaren proiektuak. "Behin proiektuaren lanketa eta aurrekontua egiten hasita, Udal Gobernuak prozedura behar bezala lotu" beharko lukeela adiera-

zi du EAJk, "proiektu eta aurrekontu faltsurik aurkeztu eta onartu gabe". Beste bi aktuzio ere egozten dio EAJk Gobernari: batetik, ez duela argitu zertan inbertituko den 2021eko martxoko udal soberakina; hiru milioi, jeltzaleen esanetan. "Soberakina hori erabiltzeko gure proposamenak aspaldi aurkeztu genizkion, baina ez ditu aintzat hartu eta adierazi digu ezin duela hartu erabakirik kiroldegiko lanak amaitu arte". Bestea da agintaldiko finantza-plana egin ez izana.



Aurtengo ikasturteko ikasleak, Gomiztegi inguruak ezagutzeko egindako irteera batean. GOMIZTEGI

ERROSARIOAK 2021 EZ-JAIK



Errosaio domekan eman zuen azken kontzertua Iñaxio Ibarredok. ARGAZKIAK: GOIENA

Kontzertuak udazkeneko kultura ekitaldien baitan

Errosaioen bueltan antolatutakoen balorazio ona egin du Udaleko Kultura zinegotziak, eta udazkeneko egitaraua aurreratu: Musikegunak, film laburren rallya, Liburutegiaren Eguneko ospakizunak eta gaztelekuan egingo diren kontzertuak

Oihana Elortza OÑATI

Bukatu dira sanmigeletako eta errosaioetako eskaintza kulturalak, eta udazkeneko hainbatek badituzte egunak eta tokiak jarrita dagoeneko. Astean malgututako neurriekin, gainera, kontzertuak antolatuko dira, esaterako, gaztelekuan, eta zinema aretoko edukiera ere pandemia aurrekoa izango da.

Gazta dastatzearen arrakasta

Azken ekitaldietako balorazioa eskatuta, "pozik" dagoela adierazi du Kultura zinegotziak, Iñaki Olalde. "Programatutako ekitaldi guztiak egin dira, denak ondo joan dira, baita eragileek antolatutakoak ere. Gazta lehiaketan, esaterako, oso giro polita sortu zen eta Iñaxio Ibarredoren azken kontzertua ere ederra izan zen. La Basuren eta Trikiario taldearen emanaldiak izan dira, agian, motelenak. El Drogasena, berriz, oso ona". Gazta lehiaketarekin batera aurten lehenengoz antolatutako

gazta dastatzeak, adibidez, sekulako arrakasta izan du, "errepikatze" modukoa, parte hartu zuten hainbaten esanetan. Epaimahaiak Juanito Urzelairi eman zion lehen saria eta herriarrena, berriz, Nistro Altzeilaik jaso zuen. Txosnagunean antolatutako haurren jolasak ere "hasiera" baino ez direla izan adierazi dute Haurren eta Gurasoen Asanbladakoak, eta hurrengo urteetan ere egiteko asmoa dutela gaineratu.

Ertzaintzak baieztatu du ez dutela interbentziorik egin Oñatin. Udaltzainek egin dituzten artean, berriz, zapatutik domekara bitartean, Ibarredoren botila festan egondako liskar baten ondorioz, zauria egin zuen pertsona batek buruan. Pesako autobus gidari batek geltokian zain zegoen jendearengandik jasotako erasoaren berri ere jaso zuten. Ordutegiari dagokionez, tabernek eta txosnak ondo errespetatu dutela diote. Aurreko asteburuan ikusi ez ziren egoe-

ra batzuk ikusi ziren, baina: zutikako kontsumoa edo kontzertuetan zutik egotea.

Musikegunak, azaroan

Hemendik aurrera etorriko diren ekitaldiei dagokienez, Musikegunak egitasmoa egingo da berriz azaroan, adibidez. Film laburren rallya azaroaren 6an da eta trikiti jaialdia urriaren 23an. Gaztelekuan egingo da kontzerturen bat eta gaztetxeko *matinee*-ak ere bueltan izango dira urritik.



Gazta lehiaketa eta gazta dastatzea egin zituzten zapatuan Azoka Kultura Gunean.



Egaña eta Zubeldia bertsotan.



Oñatiko Sarek egindako giza gezia.




Dibertsioak musika emanaldia astelehen arratsaldean txosnagunean.



Umeendako jolasak txosnagunean.



Iñigo Erle oñatiarra txapeldun, Unai Alberdirekin, pilota txapelketan.



Herri kirolen erakustaldia.



2019ko Aloñako Igoeran, Urtiagandik gora. IMANOL SORIANO

Etxekoak, Aloñako Igoerako faboritoen artean

Iñigo Goñiren eta Aitor Ajuriaren pare ibiliko dira Iban Letamendi, Axier Alonso eta Xabier Lete, eta Ainara Uribarri eta Malen Osa, Nerea Amilibia eta Lide Urrestarazu bezain indartsu aterako dira. Gary Baños omenduko dute lasterketa hasi aurretik

Oihana Elortza OÑATI

Pandemiagatik birritan atzeratu dute data, baina, azkenean, egingo da aurten Aloñako Igoera; urriaren 17an izango da. 335 korrikalari daude izena emanda, eta horietatik 75 dira etxekoak, oñatiarrak. Debagoienekoak, 140, guztira.

Etxekoak, faboritoen artean

Eta lasterketako lehen postuetan ibiliko diren faboritoen artean dira, esaterako, mutiletan, Oñatiko hiru gazte: Iban Letamendi, Axier Alonso eta Xabier Lete. "Aurten ez da Walter Bezerra etorriko, baina bai, ordea, proba hau hirutan irabazi duen Imanol Goñi eta selekzioako kide Aitor Ajuria. Bi horiekin batera ibiliko dira Letamendi, Alonso eta Lete oñatiarrak ere", dio antolaketa lanetan dabilen Pablo Arejolaleibak. Emakumezkoen kategorian beste lau izen nabarmendu ditu: birritan irabazle izandako Nerea Amilibia, Lide Urrestarazu eta azken hilabe-

teetan oso indartsu dabilzan Ainara Uribarri eta Malen Osa oñatiarrak.

Egitea bera berezitasuna

Bi aldiz egin dute deialdia aurtengo lasterketarako izena emateko. Lehenengoa bertan behera gelditu zenean, pandemiagatik, atzeratu egin zuten, eta izena emanda zutenei aukera eman zieten zerrendan jarraitzeko edo uzteko. Libre gelditu ziren plazak zozketa bidez eman zituzten: 80 bat izen 30 postu betetzeko. Guztira, 335 lasterkarik hartuko dute parte; horietatik 31 izango dira emakumezkoak. *Deabrua* ere etorriko da.

Zerrendak, batetik, ibilbidea, bestetik, eta, batez ere, momen-

tuko egoerak agintzen zituen eta jarraitu beharreko neurri eta arauak tarteko, makina bat aldiz elkartu dira antolatzaileak; ekainetik hona, batez ere. "Urriaren 17an egingo da, eta egin ahal izatea bera izango da probako berezitasunik handiena", dio Arejolaleibak.

Baños gogoan

Ohiko orduan, 09:00etan, aterako dira korrikalari guztiak Foruen plazatik, eta hantxe helmugaratuko dira. Lasterketa hasi aurretik, baina, otsailean hil zen Gary Baños omenduko dute; ekitaldi txiki bat egingo dute haren bikotekidea eta etxekoak aurrean direla, Baños gogoan. "Iñigo Guridi *Kalibre* moduan, Gary ere beti egon da laguntzen. Oso gertukoa genuen. Bere enpresa, Mail Box, hasieratik izan da gure babeslea, furgoneta ere makina bat aldiz utzi zigun eta bera ere askotan egon zen ibilbideko ezkinaren batean laguntzen".

GUZTIRA 335 KORRIKALARIK HARTUKO DUTE PARTE; 140 BAILARAKOAK DIRA, 75 OÑATIARRAK



Emakumezko bat koadro bat pintatzen. GOIENA

Eskulan ikastaroetarako izena emateko epea zabalduko dute

Hilaren 13tik 20ra bitartean eman ahal izango da izena, udaletxeko zerbitzu telematikoan edo HAZera joanda

Amaia Txintxurreta OÑATI

Pintura, orratz-lan eta eskulan dekoratibo ikastaroak antolatuko ditu Udalak ikasturte honetarako. Azaroaren 2an hasiko dituzte saioak, baina izena aurretik eman beharko da. Urriaren 13tik 20ra bitartean eman behar da, hain justu ere, udaletxeko zerbitzu telematikoaren bitartez –sinadura digitala behar da– edo Herriararren Arreta Zerbitzura joanda. Eskainitako plazak baino jende kopuru handiagoak izena emango balu, aukeraketa zozketa bidez egingo lukete. Onartutakoen zerrenda hilaren

27an jarriko dute kultura etxeko harreraren eta Udalaren webgunean. Joan den urtean, edukiera eta distantziak kontuan hartuta, talde txikiagoak eratu zituzten, eta bi txandatan eman ikastaroak.

Umeendako zein nagusiendako ikastaroak daude eta prezioak ezberdinak dira: 78,17 euro nagusiek eta 57,22 umeek. Onartuen zerrenda kaleratzean, Udalak dagokion tasa aplikatuko du emandako kontu korrontean.

Ikastaro bakoitzaren egutegi eta ordutegiak udal webgunean kontsulta daitezke.

Musika hezkuntza goiztiarreko ate irekiak gaur Santa Anan

2 eta 3 urteko haurrendako eta horien gurasoendako da; ikasturtean, musika eskolan emango dituzte saioak

A.T. OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolaren eskaintzaren barruan, musika goiztiarreko saioak daude. Eta, hain justu ere, saio horietan egiten dutena aurkeztu eta erakutsiko dute gaur.

Arantzazu Bikuña irakaslea da saio horien gidaria, eta musika hezkuntza goiztiarraren onurak azpimarratu ditu: "Iker-tzaile askok sakonki aztertu dute musika hezkuntzak umearen garapen integrala lortzen laguntzen duela, eta horretan lan egiten dugu guk ere. Umea

guraso edo gertuko batekin etortzen da saioetara, eta giro polita sortzen da".

Gaur, egubakoitza, 18:30ean izango dira ate irekiak Santa Anan. Ordubete iraungo dute eta sarrera doakoa izango da, edukiera bete arte.

Interesa izanez gero, *idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com* helbidera idatzita eman beharko da izena ikasturtean zehar eskainiko dituzten saioetara joateko. Egubakoitzetan 18:00etatik 19:00etara eskainiko dituzte musika saio horiek.

GOIENA TELEBISTA
SASOI BERRIA



BESTELAKO
OLATUA!



IZENEN IZANA
TXOMIN MADINA
ASTELEHENETAN

"Abizenak eta
Debagoieneko
kale-izendegia izango
ditugu ardatz"



AKORDEAK
AITZIBER ARANBURUZABALA
MARTITZENETAN

"Hainbat estilotako
musikariak izango ditugu
protagonista"



OKM GIDA
JONE OLABARRIA
EGUAZTENETAN

"Debagoiensean
baldin badago,
hemen dago"



"Eduki
berriekin gatoz,
orain artekoa
eta gehiago
eskaintzeko"

LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA



DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK
ENEKO AZURMENDI
EGUENETAN

"Munduan
zehar bizi diren
debagoiendarrendako
leihoa"



LUZAPENA
MIREIA BIKUÑA
EGUBAKOITZETAN

"Bailarako kirolariak gertutik
eta beste modu batera
ezagutuko ditugu"



ZUBIAK
UXUE IGARZA
HAMABOSTEAN BEHIN

"Musikari, kirolari eta bailarako
aurpegi ezagunek gizarteko
erronkekin nola konektatzen
duten ikusiko dugu"

**HEMEN
DEBAGOIENA**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00 / 20:00 ETA 22:00

goiena

Zu hemen zaude.

"Ingalaterran zaleak oso zorrotzak dira atezainekin"

IMANOL ETXEBERRIA MANCHESTER CITY-KO HARROBIKO ATEZAINEN ENTRENATZAILEA Athleticen atea defendatzen lehenengo, eta ondoren, bertako atezainekin egindako lana City-ko metodologian txertatzeko fitxatu dute teknikari arrasatearra

Xabier Urzelai ARRASATE

Egun batzuk etxean atsedean hartzen dela harrapatu du GOIENAK Imanol Etxeberria (Bergara, 1973). Bilbon dago, Ingalaterran asteon duten *Internacional brake-a* baliatuta; alegia, jokalaria asko nazioarteko partiduetan murgilduta daude. Hain zuzen, denboraldi honetan arrasatearra Citizen-ekin dabil lanean, Pep Guardiolak zuzentzen duen Manchester Cityko harrobiarekin.

Hasteko, argitu dezagun kontu hau, arrasatearra ala bergararra?

[Barre] Betiko zalantza! Bergaran jaio nintzen, baina 3 urterekin Arrasatera joan ginen bizi izatera. Horrenbestez, neure burua arrasateartzat daukat. 22 urte egin nituen arte Arrasaten bizi izan nintzen, Athleticen fitxatu ninduen arte.

Izan ere, Meatzerreka auzoan kokatu izan zaitut beti...

Halaxe da; Meatzerrekan baserri txiki bat erosi genuen, eta han bizi izan nintzen gaztetan, bai.

Eta UDAkoa ala Mondrakoa?

Bi taldeetako oroitzapen ederrak ditut, eta hainbat joan-etorri egin nituen bi klub horien artean. Gaztetan, eskolako futbol taldeak Mondrara egin nuen salto zenbait lagunekin batera, orduan jokalaria. Gero pasa nintzen atezain postura, baina Mondra Hirugarren Mailara igo zenean ez nuen askorik jokatu, eta UDARA joateko konbentzitu ninduten.

Orduan Aretxabaleta Preferente Mailan zegoen, eta nik jokatzeko beharra neukan. UDAn urte oso polita egin eta gero, Mondrara bueltatu nintzen osterarene, eta Bigarren B Mailara igotzeko promozioa jokatu genuen [1992-93 denboraldia]. Ondo gogoan dut orduko taldea: Inaxio Garro, Iker Egaña, Maturana, Carrillo, Fermin, Aramburuzabala, Txosa, Iban Aranguren, Igor Gordobil, Asier Lopez, Alberto Urretxu, Urbina... Eta Gasteiztik etorri ziren Moreno eta Juanjo ere bai. Norbait ahaztuko zitzaidan, baina tira... Ondoren, UDARA bueltatu nintzen osterarene, eta handik Cultural de Durangok fitxatu ninduen. Durangoko taldearekin, berriz, Bigarren B Mailara igo ginen [1994-1995], eta orduan fitxatu ninduen Athleticen.

Kirol ibilbideko urte oparoenak Bilbon egin zenituen [1996 eta 2001 artean ligako 140 partidua ofizial jokatu zituen Athleticen], eta ondoren jokatu zenuen Rayo Vallecanon, Leonesan eta Eibarren. Baina Ingalaterrako ligak gertutik ezagutzeko arantza geratu zitzazuiz?

Bai. Pentsa, birritan izan nintzen hango taldeekin astebezez entrenatzen. Lehenengo aukera Premier Leaguen zegoen Boltonen izan nuen, eta ondoren beste aukera bat izan nuen Queens Park Rangers taldean. Baina aukera haiek ez ziren gauzatu.

Horrek bultzatu zaitu atezain entrenatzaile lanetan Ingalaterrara joatera?

Beti nahi izan dut Ingalaterran futbola zelan bizi duten gertutik ikusi. Athleticen atezainekin lanean ibili eta gero, duela bizpahiru urte lagun baten eskaintzari esker iritsi nintzen Luton futbol taldera, Londresko iparraldera, Ingalaterrako Bigarren Mailara. Eta, orain Manchester Cityra joateko aukera ere, neurri handian, orduan egindako kontaktuei esker lortu dut.

Izan ere, Lutongo egonaldia pandemiak eten zuen.

Bai; liga amaitzeko zazpi jardunaldi geratzen zirenean eten ziguten klubeko hainbati kontratua, eta etxera etorri nintzen. Lehenago, Lutonen lanean nengoela gogoan dut Manchester Cityk Nottingham Forest taldera utzita zeukan atezain baten atzetik nenbilela. Gure atea indartu gura genuen eta Aro Muric fitxatu gura genuen. Bada, Xabier Manzisidorrekin harremanetan jarri nintzen; ordu-

"KONFIANTZA EMAN DIDATE LANEAN, ETA ARDURAK DITUT"

"HEMEN ATEZAIKIN INDARTSUAK IZAN BEHAR DUTE"



Imanol Etxeberria, Manchester Cityren kirol instalazioetan. I.E.

ko, Cityn zegoen, eta euren atezainaren gainean erreferentziak eskatu nizekion. Fitxaketa ez genuen gauzatu, baina harremana mantendu nuen Manzisidorrekin. Hala, duela hila-bete batzuk, haren bitartez iritsi zitzaidan Ingalaterrara itzultzeko aukera, Manchester Cityko harrobiarekin lan egitera. Esan zidan norbait behar zutela nire esperientziarekin, klubeko harrobiko atezain gazteekin abian jarrita zeukaten metodologiari nire ekarpena egiteko. Eta oso pozik nago, hiru atezain entrenatzaileekin dihardut lanean.

Aldea egongo da Luton moduko klub baten eta Manchester Cityren artean.

Bai; Manchester City klub handia da. Lehenengo taldeko kideak aparte egoten dira lanean, eta ni gehiago nago akademian;

hala, gure egunerokoa ez dugu eurekin partekatzen, nahiz eta aste barruan hainbatetan izaten naizen Xabier Manzisidorrekin. Euren entrenamendu saioak ere gertutik jarraitzen ditugu. Juanma Lilloekin, Txiki Begiristainekin... Tratu pertsonala oso gertukoa da lehenengo taldeaz arduratzen direnekin. Bestalde, gure egunerokoan egokitu egin behar izaten dugu Pep Guardiolak lehenengo taldean dituen beharretara. Batzuetan, 10-15 jokalaria gazte hartzen ditu goiko taldean entrenatzeko, eta besteekin jarraitzen dugu lanean. Batzuetan, jokalaria euren ere zorabiatu egiten ditugu apur bat, baina tira [Barreak], garbi dugu horretarako gaudela.

Ze ezaugarri behar dira Ingalaterran atezain izateko? Espainiako Ligan, esaterako, baloia hanketan atezai-



Arrasatearra, Cityren entrenamendu-gunean. I.E.

nek geroago eta trebeagoak izan behar dute.

Ingalaterra ezberdina da. Han atezainari fisikoki indartsua izatea eskatzen zaio, eta ausarta. Hango atezainak 1,90 neurtu behar du; aurrelariak oso gorpuzkera handia dute eta atezaina ezin da euren aurrean kikildu. Baloi geldiko jokaldi asko dituzte, faltak, kornerrak... Atezainak inguruan jokalaria mordoa izaten ditu oso gertu, eta area txikian agindu beharra dago. Gainera, Ingalaterran zaleak oso zorrotzak dira atezainekin, eta presio handia izaten dute. Atea hutsean mantentzea asko baloratzen dute zaleek. **Zorrotzak, baina, aldi berean, atezainak kontratatzen dirutza xahutzeko kapaz dira klubak. Hori bai, normalean, kanpora jotzen dute: Cityk eta Liverpoolak Brasilgo Ederson eta Alisson Becker dituzte. Chelseak De Gea, Manchester Unitedek Kepa Arrizabalaga eta Edouard Mendy, Tottenhamek Hugo Lloris, Arsenalen Bern Leno alemana ibili da jokatzeko... Zerrenda amaigabea da.**

Bai, eta horregatik hasi ziren Manchester Cityn metodologia propioarekin lanean. Gainera, *brexit*-aren ondorioetako bat da debekatu egin dutela 18 urtez azpiko atzerriko jokalariek fitxatzea, eta, noski, horretarako joera handia dagoen tokian hori arazoa da. Denbora behar da gazteekin lan egiteko, gorpuz-

"INGALATERRAN FUTBOLZALEEK TALDE BAKARRA DUTE"

"GASOLINDEGIETAN EZ DUT LISKARRIK EDO ARAZORIK IKUSI"

kera handiko atezainak daude harrobietan, baina gaztetatik falta izan zaie atezain batek izan behar dituen beste ezaugarri batzuk lantzea; horretan gabilta. **Eta, hala ere, Espainiako Ligako puntako atezainei kosta egin zaie Premierren egonkortzea.** Ez da erraza, lehen aipatu dugu. Kepa Arrizabalagarekin, esaterako, sei urtez egon nintzen Athletice lanean. Manchester Uniteden egin zuen lehenengo urtea oso ona izan zen, eta gero, talde osoaren mailak egin zuen behera. Emaizak okertzen hasi ziren, eta Keparengan jarri zuten fokua, kanpaina moduko bat egin zuten fitxaketa garestia izan zelako. Orain, mentalitatea aldatu du, hobeto ikusten dut. **Esanguratsua da Ingalaterrako Bigarren Mailak, Championship deritzonak, zelako maila duen, zale kopurua... Han jendeak talde bakarra du, eta hemen, urrun joan gabe, Realak ibili behar izan du Ez dut bigarren talderik moduko kanpainak sustatzen.**

Ikusgarria da, beheko kategorietako klubek ere sekulako futbol zelaia dituzte, harmailak jendez beteta... Han Nottingham Foresteko zale bat noiz ez da izango Liverpool edo Manchesterreko jarraitzaile, nahiz eta bere taldea Hirugarren Mailan egon. Dena dela, nik ezagutu ditut Barakaldoko zaleak ez direnak Athleticeko jarraitzaile. Barakaldokoak dira, kito.

Brexit-a ere aipatu duzu. Ez dakit zein den hango benetako egoera, baina hemengo telebistak gasolindegietan jendea mutur joka erakusten dabilta.

Hemengo telebistan nik ere ikusi dut hori, baina han ez dut halako egoerarik bizi izan; Manchesterren, behintzat, ez dago arazorik. Ez gasolindegietan, ez supermerkatuetan.

Nahi modukoa ezin bada egin, itxaron egin behar

Bigarren urtez jarraian ez dituzte Debagoienean horren ezagunak diren asfalto gaineko Oñati-Arrasate eta Antxintxika krosa antolatuko. Hala, Antxintxikako eta AEDko ordezkariak hartutako erabakiaren berri eman diote GOIENARI

X.U. ARRASATE

Gaur gauerdian hasita, Hiru Haundiak proba egingo dute, eta debagoiendar kuadrilla polita batuko da Murgiako irteera puntuan. Hain justu, atzo iluntzean Aloñako Igoeraren aurkezpena egin zuten, Oñatin. Datorren domekan, urriak 17, izango da hitzordua. Badirudi poliki-poliki normaltasuna kirol hitzorduetan ere nagusitzen dabilela, baina ez denetan. Izan ere, udazkenean badira errepideko zenbait lasterketa esanguratsu Debagoienean, eta horiek ez dituzte egingo.

"Ezin nahi modukoa egin"

Antxintxikakoek penaz hartu dute euren horren kuttuna den lasterketa ez antolatzeak erabakia. "Klubeko kide guztiak urtean zehar oso gutxitan batzen gara, eta, lanerako bada ere, Antxintxika krosa da egun horietako bat. Ilusio handiz egiten dugun lana da, baina erabaki dugu aurten ere ez antolatzea; izan ere, hilabeteetako lana behar da dena prestatzeko, eta ez genuen ikusten guk gura genuen moduko lasterketa antolatzeak aukerarik", adierazi du Patxi Torres presidentea. Pandemiak iraun duen bitartean Torres ibili da hainbat taldekideekin batera bestelako lasterketetan esku hartzen, eta ikusi dute ze ezaugarri izan dituzten proba horiek: "Lasterketak herriguneetatik atera behar izan dituzte. Helmugak eta irteera puntuak ez dituzte herriko plazetan egin, ibilbideak jendarteengandik urrunduta egon dira... Guk ez dugu nahi halakorik Antxintxika krosarendako; bi herri batzen ditu, Soraluze eta Bergara, eta bertako kaleetatik pasatzen dira korrikalariak. Proba herrikoia antolatzea izaten da gure helburua, egon dadila herrian giro polita, eta, hori ezin badugu bermatu, nahiago dugu beste



Bi lasterkari 2019ko Oñati-Arrasate proban, helmugan, plazan. GOIENA

urtebetez itxaron", adierazi du Patxi Torresek.

Bi urteko hutsunearen ondoren lasterketa asko arriskuan daude, sinergiak galdu egiten direlako. Torresek ez du uste Antxintxika krosaren kasua denik: "Bere egunean triatloia antolatzen genuen eta ondoren krosa antolatzen hasi ginen. Jendeak oso ondo hartzen duen proba da eta klubari ere ondo datorkio antolatzea. Apartekorik ez badago, datorren urtean lasterketa izango da".

Euskara elkarte atzean

Oñati-Arrasate lasterketaren kasua bestelakoa da. Antolatzaileak ez dira kirol talde bateko ordezkariak, eta bai euskara

